

# EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMEI EMANDAKO ERANTZUNA EAE-N

## 2023KO DATUAK



Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

Txosten hau Emakunderentzat egin dutenak:



**Generoko Aholkularitza**  
Consultoría de Género





# AURKIBIDEA

|                                                                                                       |           |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>1. SARRERA ETA HELBURUAK</b>                                                                       | <b>5</b>  |
| <b>2. METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA</b>                                                                | <b>7</b>  |
| 2.1. LANAREN FASEAK                                                                                   | 7         |
| 2.2. PARTAIDEAK                                                                                       | 9         |
| 2.3. LEHENTASUN IRIZPIDEAK LANDA LANEAN                                                               | 10        |
| 2.4. PARTE HARTZEKO MODUA                                                                             | 11        |
| 2.5. KONTSULTAREN EDUKIA                                                                              | 11        |
| 2.6. KONTSULTAREN MUGAK                                                                               | 13        |
| <b>3. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN EMANDAKO ERANTZUNA EAE-N</b>                            | <b>14</b> |
| 3.1. EUSKO JAURLARITZAKO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO ARRETARAKO BALIABIDEEN DATUAK  | 14        |
| Arau-hauste penalak eta biktima diren emakumeen segurtasun- eta babes-zerbitzuak (Ertzaintza)         | 15        |
| Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ)                                                                  | 19        |
| Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Koordinazio Zentroa (EAIKZ)                                         | 22        |
| Indarkeriaren biktima diren emakumeei informazioa eta arreta eskaintzeko 24 orduko zerbitzua (SATEVI) | 25        |
| Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa            | 28        |
| Alokairu-erregimenean dauden Babes Ofizialeko Etxebizitzaren promozioan baremazio gehigarria          | 31        |
| Kasu larrietan eta salbuespenezkoetan zuzenean esleitzea alokairu-erregimeneko etxebizitzak           | 34        |
| Lehen arreta                                                                                          | 37        |
| Ospitaleko larrialdiak                                                                                | 39        |
| Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE)                                                               | 41        |
| Bitartekaritza Soziolaboralerako Programa                                                             | 44        |
| Biktimak diren emakumeak eta haien seme-alabak unibertsitateko ikasketak ordaintzetik salbuestea      | 47        |
| Eskola-jazarpena: jazarpen edo abusu sexualarekin eta/edo jazarpen sexistarekin lotutako kasuak       | 49        |
| 3.2. FORU ALDUNDIETAKO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO ARRETARAKO BALIABIDEEN DATUAK    | 53        |
| Indarkeria matxistaren biktimei berehala harrera egiteko zentroak                                     | 54        |
| Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroak                                  | 61        |
| Indarkeria matxistaren egoeretan laguntza psikologikoa emateko zerbitzuabitzua                        | 75        |
| Hezkuntzako arreta psikosozialeko zerbitzua                                                           | 82        |
| Espezializatutako beste programa batzuk                                                               | 87        |
| 3.3. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEI ARRETA EMATEKO UDALETAKO BALIABIDEEN DATUAK    | 94        |
| Espezializatutako informazio, balorazio eta diagnostiko-zerbitzua (Oinarrizko Gizarte Zerbitzua)      | 95        |

|                                                                                                                                                                 |            |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| Ostatu-zerbitzua - Abegi-etxeak .....                                                                                                                           | 102        |
| Indarkeria matxistaren egoeretan laguntza psikologikoa emateko zerbitzua.....                                                                                   | 113        |
| <b>4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMEI ZUZENDUTAKO BALIABIDEEN EZAUGARRI OROKORREN AZTERKETA: GASTUA, PROFESIONALEN KOPURUA ETA PLAZA KOPURUA. ....</b> | <b>118</b> |
| 4.1. EUSKO JAURLARITZAKO BALIABIDE OROKORREN EZAUGARRIAK .....                                                                                                  | 118        |
| 4.2. FORU ALDUNDIETAKO BALIABIDE OROKORREN EZAUGARRIAK.....                                                                                                     | 122        |
| 4.3. UDALETAKO BALIABIDE OROKORREN EZAUGARRIAK.....                                                                                                             | 127        |
| 4.4. ARRETA BALIABIDE GUZTIEN EZAUGARRI OROKORRAK .....                                                                                                         | 132        |
| <b>5. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMEN ARRETAREN AZTERKETA: ARTATUTAKO KASUAK ETA EMAKUMEEN PROFILAK.....</b>                                           | <b>133</b> |
| 5.1. EUSKO JAURLARITZAKO BALIABIDEEN ARRETAREN AZTERKETA .....                                                                                                  | 133        |
| 5.2. FORU ALDUNDIETAKO BALIABIDEEN ARRETAREN AZTERKETA .....                                                                                                    | 144        |
| 5.3. UDAL BALIABIDEEN ARRETAREN AZTERKETA .....                                                                                                                 | 152        |
| <b>6. INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA IZAN DIREN EMAKUMEEI ARRETA EMATEKO BALIABIDEEN DATU NAGUSIEN EBOLUZIOAREN AZTERKETA.....</b>                              | <b>160</b> |
| 6.1. EUSKO JAURLARITZAKO ARRETA BALIABIDEEN DATU NAGUSIEN BILAKAERAREN AZTERKETA.....                                                                           | 160        |
| 6.2. FORU ALDUNDIETAKO ARRETA-BALIABIDEEN DATU NAGUSIEN BILAKAERAREN AZTERKETA.....                                                                             | 166        |
| 6.3. UDALETAKO ARRETA BALIABIDEEN DATU NAGUSIEN BILAKAERAREN AZTERKETA .....                                                                                    | 173        |
| <b>7. ONDORIOAK .....</b>                                                                                                                                       | <b>180</b> |
| <b>8. ADIERAZLE NAGUSIEN HISTORIKOA: PROFESIONALEN KOPURUA, GASTUA ETA ARTATUTAKO KASUAK .....</b>                                                              | <b>184</b> |
| 8.1. EUSKO JAURLARITZAKO BALIABIDE OROKORREN DATU HISTORIKOAK: .....                                                                                            | 184        |
| 8.2. FORU ALDUNDIETAKO BALIABIDE OROKORREN DATU HISTORIKOAK: .....                                                                                              | 190        |
| 8.3. UDAL BALIABIDEETAKO DATU HISTORIKOAK: .....                                                                                                                | 191        |
| <b>9. ERANSKINAK .....</b>                                                                                                                                      | <b>192</b> |
| 9.1. PARTE HARTU DUTEN UDALEN ZERREDA.....                                                                                                                      | 192        |

## 1. SARRERA ETA HELBURUAK

Lan honen helburua EAEko hainbat erakundek emakumeen aurkako indarkeria matxistari eman dioten erantzuna aztertzea da.

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen 2022ko martxoaren 3ko bigarren moldaketaren 1/2022 Legearen 51.5 artikulua ezartzen duen moduan, "Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak, Emakunde-Emakumearen Euskal Institutuaren bitartez, eta esku hartzen duten erakundeekin lankidetzan, Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan dauden baliabideen eskuragarritasunaren, irisgarritasunaren eta kalitatearen ebaluazioak egin behar dituzte aldizka, arreta-baliabideen mapa eguneratua izateko, eta beharrezko laguntza-estaldurak ezartzeko" bai eta "baliabideetara joaten ez diren edo joateko zailtasunak dituzten emakumeen taldeak identifikatzeko" ere.

Agindu horrekin bat eginez, Institutuak hainbat txosten eta aldizkako ebaluazio egin ditu (<http://www.emakunde.euskadi.eus/violencia/-/informacion/evaluacion/>).

*Etxeko tratatu txarren eta sexu-indarkeriaren biktime izan diren emakumeentzako laguntza hobetzeko Erakundearen arteko II. Hitzarmenaren* esparruan, <http://www.emakunde.euskadi.eus/violencia/-/informacion/coordinacion-cooperacion/>, Informazio Sistemen Taldea (IST) sortu zen eta 2013tik baliabide publiko desberdinetatik biktimei ematen zaien laguntzaren inguruko informazioa jasotzeko irizpideak homogeneizatzeko adierazle-sistema lantzen ari da, azken xede gisa diagnostikoak hobetu ahal izateko.

2015ean, Erakundearen Arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak adostu zuen eta konpromisoa hartu zuen adierazle horien inguruko datuak Emakunderi emateko. Une horretatik aurrera, informazio kuantitatiboa jasotzeko urteko prozesua jarri zen martxan, eta hitzarmen horren parte diren erakunde publikoei laguntzen zaie informazioa iraultzen.

2023an, datu-bilketa berriro jarri da abian, adierazle horiek eguneratzeko. Aurreko kontsultetan bezala, informazio-bilketa, alde batetik, arreta-zerbitzuen ezaugarri orokorrekin lotura duten oinarritzko adierazleetan oinarritzen da (gastua, langileak eta egoitza-baliabideetako plaza kopurua) eta, bestetik, baliabide horietan artatutako emakumeen bolumenean eta profilean.

Aurreko urtetan bezala, adostutako datuen bilketa bermatzeko, bai eta prozesu honetan zehar sor daitezkeen jazoerak erregistratu eta konpontzeko ere monitorizazioa egin dugu<sup>1</sup>.

Nabarmendu behar da informazio-bilketa kuantitatiboan emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako zerbitzuak edo baliabideak erakunde publiko guztietan daudela (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak), bai bikotekidearen edo bikotekide ohiaren partetik indarkeria pairatu dutenentzat, familia barruan pairatu dutenentzat (bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako ezik) eta sexu-indarkeriaren biktimentzat (familiakoak ez diren gizonak egindakoak). Gainera, beste

<sup>1</sup>Landa-lanaren inguruko informazio gehiagorako, datuen bilketaren laneko fitxa teknikoa kontsulta daiteke, bertan zehatz-mehatz jasotzen baita jarraitu den prozesua eta landa-lanean izan diren intzidentziak.

indarkeria mota batzuk ere jasotzen hasi dira, zehazki, sexu esplotaziorako salerosketa, behartutako ezkontzak eta emakumeen genitalen mutilazioa (Istanbulgo Hitzarmenak jasotzen dituen indarkeria motak).


Ikerketaren xedea helburu zehatz hauetan bana daiteke:

- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei EAEko erakunde publikoek ematen dieten laguntzaren estandarizatutako datuak jasotzea, baliabide mota bakoitzaren erabiltzaileen edo onuradunen kopurua kalkulatzeko eta profilak deskribatzeko.
- Emakumeen indarkeriaren biktimen baliabideen inbertsioa eta ezaugarriak neurtzeko adierazleen datuak biltzea (langileei dagokienez, prestakuntzari, gastuari, egoitzetako plazei...).
- Biktima horien arretan esku hartzen duten erakundeei EAEko erakundeen erantzunaren irudia eskaintzea, gogoeta partekatua izateko, eta alderdi kritikoak eta hobetzeko arloak identifikatzeko.
- Baliabide horiek azken urteotan artatutako kasuen bilakaerari buruzko ikuspegia eskaintzea.

## 2. METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA

### 2.1. LANAREN FASEAK

Jarraian, metodologia eta laneko prozesua zehaztuko ditugu:



#### 1. fasea: Landa-lanaren aurrekoa

Fase honetan landa-lana prestatu eta planifikatzeko zereginak egin dira.

Alde batetik, eta datu-bilketa errazteko, lan handia egin da zeregin honetarako ad-hoc diseinatu den **aplikazio informatibo berria berrikusteko eta iragazteko**. Aplikazio horrek datuak biltegitratzeaz gain, bilketan parte hartzen duten erakundeei haien urteko txostenetarako, datu historikoetarako eta beste erakunde batzuen datu alderagarrietarako sarbidea izatea ahalbidetzen die.

Gainera, aplikazio honetatik Emakunderen webgunean dagoen EAEko emakumeen indarkeriaren biktimentzako arreta-zerbitzuen eta baliabideen geolokalizazio-mapa aktiboan argitaratutako informazioa editatu eta eguneratu dezake erakunde bakoitzak<sup>2</sup>.

Bestalde, datuak biltzeko erabiltzen dugun **galdetegia iragazi** dugu, eta edukietako batzuk eguneratu eta egokitu egin ditugu aurreko urteko landa-lanean erregistratutako jazoeretan oinarrituta.

Gainera, fase honetan beste zeregin batzuk ere egin dira, hala nola landa-lanaz arduratzen den taldearen prestakuntza; harremanetarako pertsonen datu-baseak prestatzea; telefonoak, posta elektronikoak, etab.

<sup>2</sup>Hemen kontsulta daiteke: <https://www.emakunde.euskadi.eus/u72-20021/es/x57aEAIWar/comunvJSP/x57avMapaRecursos.do?locale=es>

## 2. fasea: datu-bilketa

Landa-lana 2024ko martxoaren 17a eta maiatzaren 10aren bitartean egin da.

Datuak biltzeko erabili den teknika nagusia *norberak administratutako online galdetegia* izan da. Galdetegi honek bi zati desberdin ditu; bata baliabideen ezaugarri orokorreari buruzkoa eta bestea kasuen arretan oinarritua.<sup>3</sup> Erakunde bakoitzak indarkeria matxistaren biktimenezako dituen arreta-baliabide adina galdetegi bete ditu.

## 3. fasea: azterketa eta lehenengo aurrerakina

Landa-lana amaitutakoan, lehen aurrerapena egin da, eta Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundietako baliabideetan jasotako datu nagusiak sartu dira.

## 4. fasea: amaierako txostenak:

Bildutako informazioa aztertu ostean, amaierako txostenaren lehen zirriborroa egin da. Zirriborro hori osatzeko, kontsulta kualitatiboa egin da Informazio Sistemen Taldeko kideekin (IST). Zehazki, saio bat egin da (2024ko azaroaren 13an, Emakunderen egoitza nagusian, Gasteizen). Saio horretan, azterketaren emaitza nagusiak aurkezteaz gain, lortutako emaitzak alderatu ahal izan dira, bai eta horien gaineko iritziak trukatu ere.

Alderaketaren eta informazio kualitatibo osagarriaren bilketaren ostean, amaierako txostena itxi da.

---

<sup>3</sup>Informazio gehiagorako, ikusi kontsultaren edukiari buruzko atala, Metodologia eta lan-prozesua ataleko 2.5. puntuan.



## 2.2. PARTAIDEAK

Sarreran esan dugun moduan, informazio-bilketa kuantitatiboak hurrengo taulan adierazitako erakunde publiko guztiei eragiten die, Erakundeen Arteko II. Hitzarmenean jasotzen diren emakumeen indarkeriaren aurkako biktimeentzako zerbitzuei edo baliabideei dagokienez. Zehazki, hauek dira kontsultatutako erakundeak eta azertu beharreko baliabideak:

| ERAGILEAK                                    |                                                      |                                                                        | IKERGAI DIREN ZERBITZUAK/BALIABIDEAK                                                                  |            | PARTE-HARTZEA                                                                                |            |     |
|----------------------------------------------|------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|----------------------------------------------------------------------------------------------|------------|-----|
| EUSKO JAURLARITZA                            | SEGURTASUN SAILA                                     |                                                                        | Arau-hauste penalak eta biktime diren emakumeen segurtasun- eta babes-zerbitzuak (Ertzaintza)         |            | Bai                                                                                          |            |     |
|                                              | BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA | JUSTIZIA SAILBURUORDETZA                                               | Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ)                                                                  |            | Bai                                                                                          |            |     |
|                                              |                                                      |                                                                        | Emakumearen aurkako indarkeriaren koordinazio-zentroa (EAIKZ)                                         |            | Bai                                                                                          |            |     |
|                                              |                                                      | GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUORDETZA                                   | Indarkeriaren biktime diren emakumeei informazioa eta arreta eskaintzeko 24 orduko zerbitzua (SATEVI) |            | Bai                                                                                          |            |     |
|                                              |                                                      |                                                                        | Genero-indarkeriaren biktime diren emakumeentzako ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa.           |            | Bai                                                                                          |            |     |
|                                              |                                                      |                                                                        | LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA                                                    |            | Alokairu-erregimenean dauden Babes Ofizialeko Etxebizitzaren promozioan baremazio gehigarria |            | Bai |
|                                              | OSASUN SAILA                                         |                                                                        | Kasu larrietan eta salbuespenekoetan zuzenean esleitzea alokairu-erregimeneko etxebizitzak            |            | Bai                                                                                          |            |     |
|                                              |                                                      |                                                                        | Lehen arreta eta Etengabeko arretako guneak (EAG)                                                     |            | Bai                                                                                          |            |     |
|                                              | LAN ETA ENPLEGU SAILA                                |                                                                        | Ospitaleko larrialdiak                                                                                |            | Bai                                                                                          |            |     |
|                                              |                                                      |                                                                        | Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE)                                                               |            | Bai                                                                                          |            |     |
|                                              |                                                      |                                                                        | Bitartekaritza Soziolaboralerako Programa                                                             |            | Bai                                                                                          |            |     |
|                                              | HEZKUNTZA SAILA                                      |                                                                        | Biktimak diren emakumeak eta haien seme-alabak unibertsitateko ikasketak ordaintzetik salbuestea      |            | Bai                                                                                          |            |     |
|                                              |                                                      |                                                                        | Biktimak diren emakumeentzako eta haien seme-alabentzako hezkuntza-bekak (Unibertsitatekoak)          |            | Bai                                                                                          |            |     |
|                                              |                                                      |                                                                        | Biktimak diren emakumeen eta haien seme-alaben ikasketa-espeditenteak lekualdatzea                    |            | Bai                                                                                          |            |     |
|                                              |                                                      |                                                                        | Eskola-jazarpena: jazarpen edo abusu sexualarekin eta/edo jazarpen sexistarekin lotutako kasuak       |            | Bai                                                                                          |            |     |
|                                              |                                                      |                                                                        |                                                                                                       |            |                                                                                              |            |     |
| FORU ALDUNDIAK<br>(Araba, Bizkaia, Gipuzkoa) |                                                      |                                                                        |                                                                                                       | AFA        | BFA                                                                                          | GFA        |     |
|                                              |                                                      | Indarkeria matxistaren biktimei berehala harrera egiteko zentroak      |                                                                                                       | Bai        | Bai                                                                                          | Bai        |     |
|                                              |                                                      | Indarkeria matxistaren biktime diren emakumeentzako egoitza-zentroak.  |                                                                                                       | Bai        | Bai                                                                                          | Bai        |     |
|                                              |                                                      | Indarkeria matxistaren egoerei laguntza juridikoa emateko zerbitzua    |                                                                                                       | Bai        | Bai                                                                                          | Bai        |     |
|                                              |                                                      | Indarkeria matxistaren egoerei laguntza psikologikoa emateko zerbitzua |                                                                                                       | Bai        | Bai                                                                                          | Bai        |     |
|                                              |                                                      | Arreta psikosozial hezitailerako zerbitzua.                            |                                                                                                       | Bai        | Bai                                                                                          | Bai        |     |
|                                              |                                                      | Especializatutako beste programa batzuk                                |                                                                                                       | Ez         | Bai                                                                                          | Bai        |     |
| UDALAK<br>(251 udal)                         |                                                      |                                                                        |                                                                                                       | Araba      | Bizkaia                                                                                      | Gipuzkoa   |     |
|                                              |                                                      | Informazio-, balioespen-, diagnostiko-zerbitzua                        |                                                                                                       | Bai        | Bai                                                                                          | Bai        |     |
|                                              |                                                      | Ostatu-zerbitzua - Abegi-etxea                                         |                                                                                                       | Bai        | Bai                                                                                          | Bai        |     |
|                                              |                                                      | Indarkeria matxistaren egoerei laguntza juridikoa emateko zerbitzua    |                                                                                                       | Ez dagokio | Bai                                                                                          | Ez dagokio |     |
|                                              |                                                      | Indarkeria matxistaren egoerei laguntza psikologikoa emateko zerbitzua |                                                                                                       | Ez dagokio | Bai                                                                                          | Ez dagokio |     |

Oharra:

UDALAK: Tokiko erakundeek dituzten baliabideen kopurua aldakorra da. Esaterako, udal batek Oinarrizko Gizarte Zerbitzua soilik eskain dezake, beste batek aldez, lau baliabide izan ditzake (OGZ, harrera-pisuak, arreta psikologikorako zerbitzua eta aholkularitza juridikorako zerbitzua).

Udalen kasuan, biztanleria-bolumen handiagatik lehentasunezkoztat jotzen diren udalerrien % 77,8k (35 udalerri guztira) parte hartu du kontsultan. Era berean, garrantzi ertaineko 36 udalerri eta garrantzi txikiko 119k eman dute informazioa. **Guztira, 190 udalerri hartu dute parte**, hau da, EAEko udalen % 75,7k.

Aurreko urteekin alderatuta, udalen partaidetzak behera egin du, eta jaitsiera hori bereziki nabarmena izan da Bizkaiko udalen kasuan.

|                                                | Guztira    | Parte-hartzea | % Parte-hartzea |
|------------------------------------------------|------------|---------------|-----------------|
| <b>Biztanleria kopuru HANDIA duten udalak</b>  | <b>45</b>  | <b>35</b>     | <b>77,8</b>     |
| <i>Araba</i>                                   | 9          | 9             | 100,0           |
| <i>Bizkaia</i>                                 | 16         | 12            | 75,0            |
| <i>Gipuzkoa</i>                                | 20         | 14            | 70,0            |
| <b>Biztanleria kopuru ERTAINA duten udalak</b> | <b>47</b>  | <b>36</b>     | <b>76,6</b>     |
| <i>Araba</i>                                   | 14         | 12            | 85,7            |
| <i>Bizkaia</i>                                 | 17         | 8             | 47,1            |
| <i>Gipuzkoa</i>                                | 16         | 16            | 100,0           |
| <b>Biztanleria kopuru TXIKIA duten udalak</b>  | <b>159</b> | <b>119</b>    | <b>74,8</b>     |
| <i>Araba</i>                                   | 28         | 19            | 67,9            |
| <i>Bizkaia</i>                                 | 79         | 48            | 60,8            |
| <i>Gipuzkoa</i>                                | 52         | 52            | 100,0           |
| <b>Parte hartu duten udalak, GUZTIRA</b>       | <b>251</b> | <b>190</b>    | <b>75,7</b>     |
| <i>Araba</i>                                   | 51         | 40            | 78,4            |
| <i>Bizkaia</i>                                 | 112        | 68            | 60,7            |
| <i>Gipuzkoa</i>                                | 88         | 82            | 93,2            |


### 2.3. LEHENTASUN IRIZPIDEAK LANDA LANEAN

Kontsultatu beharreko erakundeen eta baliabideen aniztasuna kontuan izanik, estrategia bat ezarri da datuak biltzeko, eragilerik esanguratsuenen parte-hartzea bermatu ahal izateko. Hala, informazioa biltzeko prozesuan zehar, eragile hauen informazioa bermatzea lehenetsi zen:

- **Eusko Jaurlaritzako baliabideak:** Lan eta Enplegu Saila (Lanbide); Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (Justizia Sailburuordetza eta Gizarte Politiketako Sailburuordetza); Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila (Etxebizitza Sailburuordetza); Osasun Saila; Segurtasun Saila; Hezkuntza Saila.
- **Hiru Foru Aldundietako baliabideak:** Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia.
- **Euskadiko hiru hiriburuetakoko baliabideak:** Bilbo, Donostia eta Gasteiz.
- **Biztanleria-bolumen handiena duten udalerrietako baliabideak (biztanleria-bolumen handia):** Bizkaian 15.000 biztanletik gorako udalerriak izan dira, Gipuzkoan 10.000 biztanletik gorakoak eta Araban 2.000 biztanletik gorakoak. Lurralde bakoitzean lehentasunezkoztat hartutako udalerriek lurralde horretako biztanleriaren % 77,8 baino gehiago biltzen dute ( % 75 Bizkaian, % 70 Gipuzkoan eta % 100 Araban).

## 2.4. PARTE HARTZEKO MODUA

Esan dugun moduan, datu kuantitatiboak biltzeko erabilitako teknika norberak administratutako eta honetarako ad hoc diseinatutako online galdetegi izan da. Galdetegi hori Emakundek espezifikoki sortu duen aplikazio informatikoaren bitartez bete dute. Aplikazio informatiko erraz eta intuitiboa da, informatzaileek haien erantzunak modu autonomoan irauli ahal izateaz gain, parte hartu duten erakundeek ere informazioa modu homogeneousan iraultzeko.



Aplikazio berri horri esker, informatzaileek datuak itzul ditzakete; izan ere, erakundeek haien baliabideen datuen **txostena deskarga** dezakete, bai eta **azterketa konparatiboak egin eta zerbitzuen datu historikoak ikusi** ere.

## 2.5. KONTSULTAREN EDUKIA

Aurretik esan dugun moduan, baliabideen ezaugarri orokorrekin lotutako adierazleei buruzko informazioa orientatzera bideratuta dago kontsulta, bai eta baliabide horietan artatutako indarkeria matxistaren biktimen kasuei buruzko informazioa ere (kasu guztiak eta kasu berri guztiak).



Zehazki, **baliabideari buruzko datu orokorreari dagokienez, informazio hau eskatu da:**

| DIMENTSIOAK                                                                         | ADIERAZLEAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
|-------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| PROFESIONALAK                                                                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimetako arreta jasotzen duten baliabidera atxikitako pertsona kopurua (gizonak eta emakumeak).</li> <li>- Baliabideari atxikitako pertsonen kopurua (gizonak eta emakumeak), berdintasunari eta/edo emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza dutenak.</li> </ul>         |
| GASTUAK                                                                             | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimetako arreta-baliabidearen gastu osoa.</li> <li>- Baliabideari dagokion Sailaren/Departamentuaren gastu osoa.</li> <li>- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta emateko baliabidearen gastuaren proportzioa Saileko/Arloko gastu osoaren gainean.</li> </ul>             |
| PLAZA KOPURUA<br>(Egoitza-baliabideak dituzten aldundientzat eta udalentsat soilik) | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta emateko etxebizitzetako plaza kopurua (espezifikoa izan edo ez).</li> <li>- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimetako etxebizitza espezifikoen plaza kopurua.</li> <li>- Udala bada, udalerriko edo beste udalerrri batzuekin partekatutako plaza kopurua.</li> </ul> |

## Artatutako kasuei dagokienez, informazio hau eskatu zaie:

| DIMENTSIOAK               | ADIERAZLEAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
|---------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| ARTATUTAKO KASUAK GUZTIRA | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabidean artatutako emakume biktimen kopuru osoa, indarkeria motaren arabera</li> <li>- Baliabidean artatutako biktimen seme-alaben kopuru osoa</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
| ARTATUTAKO KASU BERRIAK   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabidean artatutako emakume biktima berrien kopuru osoa, indarkeria motaren arabera</li> <li>- Baliabidean artatutako emakume biktima berrien kopuru osoa, adinaren arabera</li> <li>- Baliabidean artatutako emakume biktima berrien kopuru osoa, nazionalitatearen arabera</li> <li>- Baliabidean artatutako emakume biktima berrien kopurua, egoera administratiboaren arabera</li> <li>- Baliabidean artatutako biktimen seme-alaba berrien kopurua</li> </ul> |

| ALDAGAIK                                               | ADIERAZLEAK<br>INDARKERIA MOTENTZAT: BIKOTEKIDEA/BIKOTEKIDE OHIA, FAMILIA BARRUKOA, SEXUALA ETA BESTE<br>INDARKERIA MOTA BATZUK                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|--------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| KASU BERRIAK INDARKERIA MOTAREN ARABERA*               | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabidean artatutako emakume biktima berrien kopuru osoa, jasandako indarkeria mota nagusiaren arabera</li> <li>- Baliabidean artatutako emakume biktima berrien kopuru osoa, jasandako indarkeria motaren arabera (emakume batek indarkeria mota bat baino gehiago jasan ditzake).</li> </ul>                                                                                        |
| KASU BERRIAK ERASOTZAILEAREKIKO HARREMANAREN ARABERA** | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabidean artatutako emakume biktima berrien kopurua, erasotzailearekiko harremanaren arabera.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| KASU BERRIAK ADINAREN ARABERA                          | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabidean artatutako emakume biktima berrien kopuru osoa, adinaren arabera</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
| KASU BERRIAK NAZIONALITATEAREN ARABERA                 | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabidean artatutako emakume biktima berrien kopuru osoa, nazionalitatearen arabera</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| KASU BERRIAK JAIOTERRIAREN ARABERA                     | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabidean artatutako emakume biktima berrien kopuru osoa, jaioterriaren arabera</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| EGOERA ADMINISTRATIBOA                                 | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabidean artatutako emakume biktima berrien kopurua, egoera administratiboaren arabera</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| BIZI DEN UDALERRIA                                     | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabidean artatutako emakume biktima berrien kopuru osoa, bizi den udalerraren arabera</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
| DESGAITASUNA                                           | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliabidean artatutako emakume biktima berrien kopuru osoa, desgaitasunaren arabera</li> <li>- Baliabidean artatutako emakume biktima berrien kopuru osoa, desgaitasun motaren arabera</li> </ul>                                                                                                                                                                                       |
| SEME-ALABAK BERE KARGU                                 | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Seme-alabak beren kargu dituzten baliabidean artatutako emakume biktima berrien kopurua</li> <li>- Baliabidean artatutako emakume biktima berrien seme-alaba adingabeen kopuru osoa</li> <li>- Baliabidean artatutako emakume biktima berrien adin nagusiko seme-alaben kopuru osoa</li> </ul>                                                                                          |
| HAIEN KARGU DITUZTEN MENDEKO PERTSONA HELDUAK          | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Mendekotasuna duten pertsona helduak beren kargu dituzten baliabidean artatutako emakume biktima berrien kopurua.</li> <li>- Baliabidean artatutako emakume biktima berrien kargu dauden mendeko pertsona helduen kopuru osoa</li> <li>- Baliabidean artatutako emakume biktima berrien kargu dauden mendeko pertsona helduen kopuru osoa, emakumeekiko harremanaren arabera</li> </ul> |

\* Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren edo familiako kideren baten partetik indarkeria jasan dutenei soilik galdetzen zaie indarkeria motaren inguruan

\*\*Beste indarkeria mota batzuentzako atal bereziak ez du aldagai hau kontuan hartzen, emakumeak pairatutako indarkeria mota zehatza jasotzen du (emakumeen genitalen mutilazioa, ezkontza behartua edo sexu esplotaziorako salerosketa).

## 2.6. KONTSULTAREN MUGAK

Ikerketa honen irismenak dituen muga batzuk aipatu behar dira. Informazioaren azterketa zehatza egiteko muga nagusietako bat bereizitako datuen falta da (batez ere udalen kasuan). Erakundeek ez dituzte beti eskatzen zaizkien datuak izaten (informazio hori erregistratzen ez dutelako, erregistratzen duten informazioak ez duelako zehazki bat egiten edo ez dagoelako, datua azkar atera ahal izateko erregistro informatikorik ez dagoelako, etab.). Beraz, bereizketa batzuk tentu handiz interpretatu behar dira.

Urtetik urtera hobetuz doa datuen kalitatea, baina egun oraindik lagin nahikorik ez duten datuak daude; beraz, kontu handiz ibili beharko da parte-hartze txikia izan duten udalerrietako adierazle batzuk interpretatzerakoan.

Gainera, datuak behar bezala interpretatzeko, beharrezkoa da datuen eta jasotako informazio motaren inguruko gako esanguratsu batzuk kontuan izatea:

- Txosten honetako datu gehienak erakundeek 2023an artatutako emakumeen kasu berrien kopuru osoak dira, baina datu batzuk kasu guztien gainean ere jaso dira (2021ean alta eman duten kasuak eta aurretik alta eman zutenak, baina baliabidean jarraitzen dutenak).
- Baliabide guztiek ez dute informazio bera jasotzen, eta, kasu batzuetan, datuak ez dira emakumeen kopuruenak. Datuak behar bezala interpretatzeko, beharrezkoa da txostenean zehar ageri diren oharretan arreta jartzea.
- Kasu batzuetan, indarkeriaren biktimak diren emakumeak artatzeko espezifikoki sortu diren zerbitzuen edo baliabideen informazioa jaso da (zerbitzua emakume horiei dago bideratuta soilik), eta beste batzuetan, emakumeen indarkeriaren espezifikoa izan gabe ere, indarkeria pairatu duen emakumea artatzen duten baliabide edo zerbitzuena (zerbitzua herritar guztiei bideratuta egon daiteke, esaterako, baina emakumeen indarkeriaren kasu batzuk arta ditzake). Hori gertatzen da arreta psikologikorako zerbitzu espezifikorik ez duten udal batzuekin; indarkeria pairatu duten emakumeak eta emakumeen aurkako indarkeriarekin zerikusirik ez duten beste kasu batzuk artatzen dituzte. Halaber, aldundiek egoitza ez espezializatuetan artatutako emakume biktimak ere zenbatu ahal izan dituzte.

### 3. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN EMANDAKO ERANTZUNA EAE-N.

#### 3.1. EUSKO JAURLARITZAKO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO ARRETARAKO BALIABIDEEN DATUAK

Jarraian, Eusko Jaurlaritzak emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta eskaintzeko duen baliabide bakoitzaren azterketa aurkeztuko dugu.

Gogoratu behar da lan honetan aztergai diren baliabide guztiek parte hartu dutela datu-bilketan.

| ERAKUNDEA                                                  |                                 | BALIABIDEA                                                                                            | PARTE HARTZEA |
|------------------------------------------------------------|---------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| SEGURTASUN SAILA                                           |                                 | Arau-hauste penalak eta biktima diren emakumeen segurtasun- eta babes-zerbitzuak (Ertzaintza)         | BAI           |
| BERDINTASUN, JUSTIZIA<br>ETA GIZARTE<br>POLITIKETAKO SAILA | JUSTIZIA                        | Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ)                                                                  | BAI           |
|                                                            | SAILBURUORDETZA                 | Emakumearen aurkako indarkeriaren koordinazio-zentroa (EAIKZ)                                         | BAI           |
|                                                            | GIZARTE                         | Indarkeriaren biktima diren emakumeei informazioa eta arreta eskaintzeko 24 orduko zerbitzua (SATEVI) | BAI           |
|                                                            | POLITIKETAKO<br>SAILBURUORDETZA | Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa.           | BAI           |
| LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA<br>GARRAIO SAILA      |                                 | Alokairu-erregimenean dauden Babes Ofizialeko Etxebizitzan promozioan baremazio gehigarria            | BAI           |
|                                                            |                                 | Kasu larrietan eta salbuespenezkoetan zuzenean esleitzea alokairu-erregimeneko etxebizitzak           | BAI           |
| OSASUN SAILA                                               |                                 | Lehen arreta eta Etengabeko arretako gunak (EAG)                                                      | BAI           |
|                                                            |                                 | Ospitaleko larrialdiak                                                                                | BAI           |
| LAN ETA ENPLEGU SAILA                                      |                                 | Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE)                                                               | BAI           |
|                                                            |                                 | Bitartekaritza Soziolaboralerako Programa                                                             | BAI           |
| HEZKUNTZA SAILA                                            |                                 | Biktimak diren emakumeak eta haien seme-alabak unibertsitateko ikasketak ordaintzetik salbuestea      | BAI           |
|                                                            |                                 | Biktimak diren emakumeentzako eta haien seme-alabentzako hezkuntza-bekak (Unibertsitatea)             | BAI           |
|                                                            |                                 | Biktimak diren emakumeen eta haien seme-alaben ikasketa-espedienteak lekualdatzea                     | BAI           |
|                                                            |                                 | Eskola-jazarpena: jazarpen edo abusu sexualarekin eta/edo jazarpen sexistarekin lotutako kasuak       | BAI           |

**SEGURTASUN SAILA**

Arau-hauste penalak eta biktima diren emakumeen segurtasun- eta babes-zerbitzuak (Ertzaintza)

**BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA**

Arau-hauste penalen eta biktima diren emakumeen segurtasun- eta babes-zerbitzuen datuek jasotzen dituzte Ertzaintzak jaso duen emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen kopurua, bere jardunbide eta eskumenen arloan eta polizia-agirietan ageri direnak.

**BALIABIDEAREN DATU OROKORRAK**


2023an, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak **8.622.792,56 euro bideratu zituen indarkeriaren biktimen arretara**. Gastu horretatik, 4.946.955,36 €segurtasun pribatura bideratu dira emakume biktimentzat, eta beste 3.403.103,20 €, emakumeei arreta eta babesa ematen dieten Ertzaintzako langileentzat.

Gainera, 39.421,80 € bideratu dira Bortxa telefonora. Baliabide teknologiko hori Ertzaintzaren komisarietan eskaintzen zaie indarkeriaren biktima diren emakumeei, emakume horiek zuzeneko lotura izan dezaten larrialdi-egoeretan dauden polizia-unitateekin. 233.312,20 € bideratu dira EBA proiektuaren II. fasera, espedienteak modu partekatuan kudeatzeko sistema digital berrira.

|                                                                                                                     | <b>2023</b>           |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|
| <b>INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN ARRETARA BIDERATUTAKO SEGURTASUN SAILAREN GASTUA</b>                       | <b>8.622.792,56 €</b> |
| Tratu txarrak jaso dituzten emakumeei arreta eta laguntza ematen aritzen diren Ertzaintzako langileak (106 ertzain) | 3.403.103,20€         |
| Bortxa telefonoa                                                                                                    | 39.421,8 0€           |
| Segurtasun pribatua                                                                                                 | 4.946.955,36 €        |
| EBA proiektua                                                                                                       | 233.312,20 €          |

Segurtasun Sailak emakumeen aurkako indarkeriaren borrokara bideratzen duen **gastua % 20,8 igo da 2022arekin arekin alderatuta**.


INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN ARRETARA BIDERATUTAKO SEGURTASUN SAILAREN GASTUAREN BILAKAERA 2016-2023



Bestalde, sail honek indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako arretan soilik jarduten duten **106 profesional** ditu, eta talde profesional horretako kideen % 47,7 emakumeak dira. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurkako borrokan Segurtasun Saileko profesionalen guztizko kopurua % 63,1 igo da 2022arekin alderatuta.

|                                                                                                                                                       | 2023       |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| <b>INDARKERIAREN BIKTIKMEI ARRETA EMATEKO BALIABIDE/ZERBITZUAN DAGOEN LANGILE KOPURUA</b>                                                             | <b>106</b> |
| Indarkeriaren biktimen arretarako baliabide/zerbitzuan dauden emakumezko langileen %                                                                  | 47,69      |
| Indarkeriaren biktimen arretarako baliabide/zerbitzuan berdintasunaren eta/edo emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko prestakuntza duen langileen % | 100        |


SEGURTASUN SAILEKO PROFESIONALEN KOPURUAREN BILAKAERA 2018-2023




## BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK

**2023ean, Ertzaintzak emakumeen aurkako indarkeriaren 5.235 kasu erregistratu ditu guztira. Aurreko urteko datuekin alderatuta, % 7,5 gehiago.**

ERTZAINZAK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIEN BILAKAERA 2015-2023





ERTZAINZAK ARTATU DITUEN EMAKUME BERRIAK  
INDARKERIAREN ARLOAREN ARABERA. 2023

Erregistratu diren hamar kasutatik % 69,9 bikotekidearen edo bikotekide ohiaren partetik jasandako indarkeria-kasuak dira; % 18,0 familia barruko indarkeria-kasuak dira (bikotekidea edo bikotekide ohia kenduta) eta % 12,1 familiatik kanpo pairatutako sexu-indarkeriaren kasuak.

ERTZAINZAK ARTATU DITUEN EMAKUME BERRIAK,  
INDARKERIA MOTAREN ETA ERASOTZAILEAREN ARABERA 2023

| BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE OHIAREN INDARKERIA                              | 2023 |
|-------------------------------------------------------------------------------|------|
| % Ezkontidea /izatezko bikotekidea /bikotekidea/ mutil-laguna                 | 56,7 |
| % Ezkontide ohia/ izatezko bikotekide ohia/ bikotekide ohia/ mutil-lagun ohia | 43,3 |
| % Guztira                                                                     | 100  |
| FAMILIA BARRUKO INDARKERIA                                                    |      |
| % Arbasoa (aita/aitona)                                                       | 37,6 |
| % Ondorengoa (Semea/Biloba)                                                   | 28,5 |
| % Beste senide batzuen                                                        | 33,9 |
| % Guztira                                                                     | 100  |
| SEXU INDARKERIA                                                               |      |
| % Pertsona ezagunak                                                           | 38,0 |
| % Pertsona ezezagunak                                                         | 62,0 |
| % Guztira                                                                     | 100  |

Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren partetik jasandako indarkeria kasuen % 56,7ean, erasotzailea biktimaren egungo bikotekidea da; aldiz, kasuen % 43,3an, erasotzaileak bikotekide ohiak dira.

Gainera, familia barruko emakumeen aurkako hamar indarkeria kasutatik lautan, erasotzailea emakumearen arbasoa da (aita, aitona) eta kasuen % 28,6an, ondorengoa (semea, biloba). Gainera, kasuen % 33,0an erasotzailea beste senide bat da (osaba, lehengusua...).

Erregistratutako sexu-erasoen % 38,0 biktimak ezagutzen duen gizon batek gauzatu du, eta kasuen % 62,0an, erasotzailea ezezaguna izan da.

21 eta 50 urteko emakumeak erregistratutako kasu guztien bi heren dira (% 67,5). Gainera, **emakumeen % 11,4 adingabeak dira eta % 15,7ek 50 urte baino gehiago ditu.**

Indarkeria motaren arabera, emakume biktimen adinean alde batzuk ikusten dira. Horrela, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren esparruko biktima gehienak 21 eta 50 urte bitartekoak dira (% 81,2). Aitzitik, familia barruko indarkeria askoz ohikoagoa da emakume adingabeen artean (% 27,6), baita zaharrenen artean ere (% 36,3k 51 urte baino gehiago zituzten). Zalantzarik gabe, emakume gazteek jasaten dute sexu-indarkeria gehien. Indarkeria-mota horren biktimen % 41,3 adingabeak dira, eta % 77k 30 urte baino gutxiago dituzte.

## ERTZAINZAK ARTATU DITUEN EMAKUME BERRIAK ADINAREN ETA INDARKERIA MOTAREN ARABERA 2023


| 2023                         | BIKOTEKIDEA EDO BIKOTEKIDE OHIA | FAMILIA BARNEKOA | SEXUALA | GUZTIRA |
|------------------------------|---------------------------------|------------------|---------|---------|
| 14 urte baino gutxiagokoen % | 0,1                             | 18,3             | 19,1    | 5,7     |
| 14-17 urtekoen %             | 2,0                             | 9,3              | 22,2    | 5,7     |
| 18-20 urtekoen %             | 4,4                             | 3,5              | 13,4    | 5,3     |
| 21-30 urtekoen %             | 24,0                            | 9,8              | 22,2    | 21,2    |
| 31-40 urtekoen %             | 31,6                            | 7,4              | 8,7     | 24,5    |
| 41-50 urtekoen %             | 25,7                            | 15,3             | 9,1     | 21,8    |
| 51-64 urtekoen %             | 9,8                             | 20,6             | 4,1     | 11,0    |
| 65 urte edo gehiagokoen %    | 2,5                             | 15,7             | 1,1     | 4,7     |
| Guztira                      | 100                             | 100              | 100     | 100     |

Ertzaintzak identifikatu dituen indarkeria matxistaren biktimen % 57,6 Espainian jaiotakoak dira, eta % 42,4, berriz, atzerriko herrialde batean jaiotakoak.

## ERTZAINZAK ARTATU DITUEN EMAKUME BERRIAK, JAIOTAKOEN HERRIALDEAREN ARABERA 2023

|                        | 2023 |
|------------------------|------|
| Espainian jaiotakoen % | 57,6 |
| Atzerrian jaiotakoen % | 42,4 |
| Guztira %              | 100  |

## ERTZAINZAK ARTATU DITUEN EMAKUME BERRIAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA 2023



Lurralde bakoitzean erregistratutako kasuak proportzioan daude lurralde bakoitzeko biztanleriaren dentsitatearekin.

Hala, erregistratutako kasuen %51,7 Bizkaian izan da, % 31,2 Gipuzkoan eta % 16,1 Araban.

BERDINTASUN,  
JUSTIZIA ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILAJustizia  
Sailburuordetza

Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ)

## BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA

**Biktimari Laguntzeko Zerbitzua** delituen biktimen eskubideak defendatzeko zerbitzua da eta diziplina anitzeko taldeek osatzen dute; legelariak, gizarte-langileak eta psikologiako profesionalek. Zerbitzua aurrez aurrekoa da, doakoa, konfidentziala, bakarkakoa eta pertsonalizatua.


Prozesu guztian zehar eskaintzen den orientazioak eta laguntzak honako hauek biltzen dituzte: laguntza psikologikoa, osasun edo gizarte-zerbitzuetara bideratzea, prozesu judizialaren inguruko aholkularitza, justiziaren doako tramitazioa, etab.

## BALIABIDEAREN DATU OROKORRAK

2022an, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak (BLZ) **1.078.529 euroko gastua esleitu zuen baliabidearen osotasunari**. Baliabide horren gastua, azken urtearekin (2021) alderatuta, % 186 igo zen.

|                                                                                                                                   | 2023              |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------|
| <b>INDARKERIAREN BIKTIMEN ARRETARA BIDERATUTAKO BALIABIDE/ZERBITZUAREN GASTUA</b>                                                 | <b>1.078.529€</b> |
| Baliabidearen/zerbitzuaren gastu osoa                                                                                             | 644.860.000€      |
| Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen arretarako baliabide/zerbitzuaren gastuaren %, baliabide/zerbitzuaren gastu guztiarekiko | 0,17              |

BLZ-REN GASTUAREN BILAKAERA. 2018-2023




Bestalde, 2022an **16 profesional izatetik, hiru lurralde historikoetan 21 profesional izatera igaro da zerbitzua urtebete beranduago**. Beraz, profesional berrien kopurua % 31,3 igo zen, neurri handi batean genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza judizial integrala emateko<sup>4</sup>.

<sup>4</sup> Hala ere, 5 profesional berriak ez daude genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza judiziala emateko zerbitzu eskusiboari atxikita; aitzitik, balio anitzekoak dira, eta biktimei laguntzeko zerbitzuaren berezko eginkizunak betetzen dituzte, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko berezko eginkizunak betetzen ez dituztenean.

|                                                                                                                                                                   |             |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------|
|                                                                                                                                                                   | <b>2023</b> |
| <b>BALIABIDEAN/ZERBITZUAN DAGOEN LANGILEEN KOPURUA</b>                                                                                                            | <b>21</b>   |
| Baliabidean/zerbitzuan dagoen emakumeen %                                                                                                                         | 71,4        |
| Indarkeriaren biktimei laguntzeko zerbitzuan/baliabidean berdintasunaren eta/edo emakumeen aurkako indarkeriaren arloko prestakuntza duten profesionalen ehunekoa | 100,0       |

BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUKO LANGILE KOPURUAREN BILAKAERA 2018-2023




Oharrak: Ez dago baliabide/zerbitzuan 2019an zegoen langileen kopuruaren daturik

## BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK

2023ean, BLZk **2.642 espediente** izapidetu ditu genero-indarkeriagatik, familia barruko indarkeriagatik eta sexu-askatasunaren aurkako indarkeriagatik. Zifra hori 2022an erregistratutakoa baino % 28,3 handiagoa da, urte horretan 2.059 espediente izapidetu baitziren.

BIKOTEAREN/BIKOTEKIDE OHIAK EGINDAKO INDARKERIAREN ESPEDIENTE KOPURUAREN BILAKAERA BLZ-K ERAMAN DITUEN FAMILIA BARNEKO INDARKERIA KASUAK ETA SEXU ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUAK 2015-2023



1. oharra: 2015eko datuak emakumeen zein gizonen indarkeriagatik izapidetutako espediente guztienak dira, beraz, tentu handiz interpretatu behar dira baliabide honen bilakaeraren datuak.

2. oharra: Ez dago 2018ko daturik; izan ere, urte horretan baliabide horrek ez zuen galdeketa parte hartu.

BIKOTEAK/BIKOTEKIDE OHIAK EGINDAKO INDARKERIAREN,  
FAMILIA BARRUKO INDARKERIAREN ETA SEXU-  
ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUENGATIK IZAPIDETUTAKO  
ESPEDIENTEAK, INDARKERIA ARLOAREN ARABERA 2023


|                                                       | 2023 |
|-------------------------------------------------------|------|
| Bikotekidearen edo bikotekide-ohiaren indarkeriaren % | 65,8 |
| Familia barruko indarkeriaren %                       | 10,4 |
| Sexu-indarkeriaren %                                  | 14,0 |
| Beste indarkeria batzuk %                             | 9,8  |
| Guztira %                                             | 100  |

18 eta 50 urte bitarteko emakumeak erregistratutako kasu guztien % 70,0 dira. Emakumeen % 3,4 adingabeak dira, eta % 3,3k 70 urte baino gehiago dituzte.

Izapidetutako espedienteen % 65,8 genero-indarkeriako kasuak dira, % 10,4 familia barruko indarkeria, % 14,0 sexu-askatasunaren aurkako delituak eta beste % 9,8 beste indarkeria-mota batzuk.

BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUAN ARTATU DITUEN  
EMAKUME BERRIAK ADINAREN ETA INDARKERIA MOTAREN  
ARABERA 2023

| 2023                         | GUZTIRA |
|------------------------------|---------|
| 18 urte baino gutxiagokoen % | 3,4     |
| 18-30 urtekoen %             | 21,5    |
| 31-40 urtekoen %             | 22,7    |
| 41-50 urtekoen %             | 26,2    |
| 51-60 urtekoen %             | 15,6    |
| 61-70 urtekoen %             | 7,3     |
| 70 urte edo gehiagokoen %    | 3,3     |
| Guztira                      | 100     |




## BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA

**Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Koordinazio Zentroaren (EIAKZ)** funtzio nagusia da EAEko babes-aginduen Koordinazio Puntua izatea. Zehazki, funtzio hauek betetzen ditu zentro honek:

- ✓ Genero-indarkeriaren inguruko neurriren bat duten ebazpen judizial guztiak jasotzen ditu.
- ✓ Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak (BLZ) eskaintzen dituen zerbitzu guztien berri ematen die biktimei.
- ✓ Estatuko Etxeko Indarkeriaren Biktimen Babeserako Erregistro Nagusiaren informazioarako sarbidea du.
- ✓ Erakundeekin lankidetzan aritzen da eta harremanak ditu genero-indarkeriaren kasuak behatu eta haien jarraipena egiteko gaitasuna duen sistema informatikoa eraikitzeko.
- ✓ Justiziarekin lankidetzan aritzeko Zerbitzuen datuen mantentze-lanak egiten ditu eta datuak argitaratzen ditu, hots, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarena.
- ✓ Babesteko Aginduari dagokionez: Laguntzeko eta babes sozialerako neurriak koordinatzea, biktimak informatzea eta baliabide eta laguntza sozialetara bideratzea, eta biktimari biktimarioaren prozesuaren egoeraren, eta kautelazko neurrien irismenaren eta indarraldiaren berri ematea etengabe.
- ✓ Estatistikak egitea.

## BALIABIDEAREN DATU OROKORRAK


**Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Zentro Koordinatzaileak 123.398,96 €bideratu ditu 2023an baliabide honetara atxikitako langileentzat, 2022an erregistratutako kopurua baino % 3,6 gehiago.**



Bestalde, aurreko urtean bezala, **hiru pertsonak osatzen dute baliabide honetako profesionalen taldea eta horietako bi emakumezkoak dira.**

|                                                        | 2023     |
|--------------------------------------------------------|----------|
| <b>BALIABIDEAN/ZERBITZUAN DAGOEN LANGILEEN KOPURUA</b> | <b>3</b> |
| Baliabidean/zerbitzuan dagoen emakumeen %              | 66,6     |

EAIKZ-KO LANGILEEN BILAKAERA. 2018-2023




Oharrak: Ez dago baliabide/zerbitzuan 2019an zegoen langileen kopuruaren daturik

### BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK

**2023an, zentro horrek bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria dela-eta irekitako 2,045 prozedura izapidetu zituen, eta horietatik % 54 kasu berriak izan ziren (1.105).** Prozedura berrien kopuruak behera egin du 2022tik, urte hartan 1.753 kasu berri erregistratu baitziren (-% 36,3).

|                                                                                           | 2023         |
|-------------------------------------------------------------------------------------------|--------------|
| BALIABIDEAK/ZERBITZUAK ARTATUTAKO EMAKUMEEN GUZTIZKOA                                     | 2.045        |
| <b>BALIABIDEAK/ZERBITZUAK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIEN GUZTIZKOA</b>                        | <b>1.105</b> |
| BALIABIDEAK/ZERBITZUAK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIEN %, ARTATUTAKO EMAKUMEEN GUZTIZKOAREKIKO | 54,0         |

EAIKZ-EN PROZEDURA ZABALDUTA DUTEN EMAKUME BERRIEN KOPURUAREN BILAKAERA 2015-2023



Oharra: 2015eko datuek kautelazko neurri guztiei egiten diete erreferentzia; beraz, zuhurtziaz interpretatu behar da baliabide horren bilakaera. Ez dago 2018ko daturik; izan ere, urte horretan baliabide horrek ez zuen galdeketa parte hartu.

18 eta 50 urte bitarteko emakumeak erregistratutako kasu guztien % 84,2 dira. Emakumeen % 1,3 adingabeak dira, eta % 4,2k 60 urtetik gora dituzte.

EAIKZ-EN PROZEDURA ZABALIK DUTEN EMAKUME BERRIAK  
ADINAREN ARABERA. 2023


| 2023                         | GUZTIRA |
|------------------------------|---------|
| 18 urte baino gutxiagokoen % | 1,3     |
| 18-30 urtekoen %             | 28,2    |
| 31-40 urtekoen %             | 30,3    |
| 41-50 urtekoen %             | 25,7    |
| 51-60 urtekoen %             | 10,1    |
| 61 urte edo gehiagokoen %    | 4,2     |
| Guztira                      | 100     |

Baliabide horrek artatutako kasu berrien ia % 52,7 Espainian jaio da, aldiz, % 47,3 atzerriko herrialde batean jaioa da.

EAIKZ-EN PROZEDURA ZABALIK DUTEN EMAKUME BERRIAK  
JAIOTERRIAREN ARABERA. 2023

|                                | 2023 |
|--------------------------------|------|
| Nazionalitate espainiarraren % | 52,7 |
| Atzerriko nazionalitatearen %  | 47,3 |
| Guztira                        | 100  |

EAIKZ-EN PROZEDURA ZABALIK DUTEN EMAKUME BERRIAK ADINAREN  
ARABERA. 2022



Erregistratutako kasuen % 68,2 Bizkaian daude, % 4,9 Gipuzkoan eta % 27,0 Araban.



BERDINTASUN,  
JUSTIZIA ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILAGizarte  
Politiketako  
Sailburuordetza

Indarkeriaren biktima diren emakumeei informazioa eta arreta eskaintzeko 24 orduko zerbitzua (SATEVI)

**BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA**


**Indarkeriaren biktima diren emakumeei informazioa eta arreta eskaintzeko 24 orduko zerbitzua (SATEVI)** -900 840 111- telefono bidezko berehalako zerbitzu anonimoa, konfidentziala eta doakoa da eta urteko 365 egunetan, 24 orduz dago erabilgarri. Zerbitzuaren lantaldea emakumeen aurkako indarkeriaren edozein adierazleren biktima diren emakumeei laguntza emateko prestatuta dauden profesionalak osatzen dute.

Deiak doakoak dira eta ez dira telefonoaren fakturan ageri. 51 hizkuntzatan dago zerbitzua eta entzun edo hitz egin ezin duten pertsonak ere artatzen dituzte. Edozein indarkeriaren biktima diren emakumeez gain (fisikoa, psikologikoa, sexuala...) hurbileko pertsonak, senideak eta profesionalak ere artatzen dituzte.

**BALIABIDEAREN DATU OROKORRAK**

2023an, **SATEVIk 514.080 euroko gastua** izan du, 2022koaren berdina. Gastu hori baliabide hau sartuta dagoen Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Zuzendaritzaren gastu osoaren % 0,08da.


|                                                                                                               | 2023             |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------|
| <b>BALIABIDEAREN/ZERBITZUAREN GASTUA</b>                                                                      | <b>514.080 €</b> |
| Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Gastua                                               | 644.860.000 €    |
| Baliabidearen/zerbitzuaren gastuaren %, Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren gastuarekiko | 0,08             |



Aurreko urtetan bezala, **SATEVIko profesionalen taldea 10 emakumek osatu dute 2023ean**, eta guztiek dute prestakuntza bai emakumeen aurkako indarkerian, bai genero-berdintasunean.

|                                                                                                                      | 2023      |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>BALIABIDEAN/ZERBITZUAN DAGOEN LANGILEEN KOPURUA</b>                                                               | <b>10</b> |
| Baliabidean/zerbitzuan dagoen emakumeen %                                                                            | % 100     |
| Berdintasunaren eta/edo emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko prestakuntza duten baliabide/zerbitzuko langileen % | 100       |

ZERBITZUKO/BALIABIDEKO PROFESIONAL KOPURUAREN BILAKAERA. 2019-2023




### BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK

Arretari dagokionez, **2023an, SATEVIk indarkeria matxistaren biktime diren 1.442 emakume artatu ditu, eta horietatik 1.162 ( % 80,6) kasu berriak ziren** (lehen aldiz zerbitzu horretara jotzen zuten emakumeak). Zerbitzu horretan artatutako kasu berrien kopurua % 5,1 igo da aurreko urtearekin alderatuta, urte hartan 1.106 emakume berrirekin esku hartu baitzen.

|                                                                                           | 2023         |
|-------------------------------------------------------------------------------------------|--------------|
| BALIABIDEAK/ZERBITZUAK ARTATUTAKO EMAKUMEEN GUZTIZKOA                                     | 1.442        |
| <b>BALIABIDEAK/ZERBITZUAK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIEN GUZTIZKOA</b>                        | <b>1.162</b> |
| BALIABIDEAK/ZERBITZUAK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIEN %, ARTATUTAKO EMAKUMEEN GUZTIZKOAREKIKO | 80,6         |

|                                                            | 2023       |
|------------------------------------------------------------|------------|
| SEME-ALABAK ARDURAPEAN DITUZTEN EMAKUME ARTATUEN GUZTIZKOA | <b>645</b> |

SATEVI-K ARTATUTAKO EMAKUME BERRIEN GUZTIZKOAREN BILAKAERA 2015-2023



## SATEVIK ARTATU DITUEN EMAKUME BERRIAK INDARKERIAREN ARLOAREN ARABERA 2023

|                                                       | 2023 |
|-------------------------------------------------------|------|
| Bikotekidearen edo bikotekide-ohiaren indarkeriaren % | 90,2 |
| Familia barruko indarkeriaren %                       | 5,1  |
| Sexu-indarkeriaren %                                  | 4,7  |
| Guztira                                               | 100  |

**Zerbitzu honek artatutako emakumeen %90,2 bikotekidearen edo bikotekide ohiaren arloko indarkeriaren biktima da, %5,1 familia kanpoko sexu-indarkeriaren biktima eta %4,7 familia barruko indarkeriarena.**

## SATEVIK ARTATU DITUEN EMAKUME BERRIAK INDARKERIA MOTAREN ETA ERASOTZAILEAREN ARABERA 2023

| BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE OHIAREN INDARKERIA                            | 2023 |
|-----------------------------------------------------------------------------|------|
| Ezkontidea /izatezko bikotekidea /bikotekidea/ mutil-laguna                 | 48,3 |
| Ezkontide ohia/ izatezko bikotekide ohia/ bikotekide ohia/ mutil-lagun ohia | 51,7 |
| Guztira                                                                     | 100  |
| FAMILIA BARRUKO INDARKERIA                                                  |      |
| Arbasoa (aita/aitona)                                                       | 24,6 |
| Ondorengoa (Semea/Biloba)                                                   | 44,3 |
| Beste senide batzuk                                                         | 31,1 |
| Guztira                                                                     | 100  |
| SEXU INDARKERIA                                                             |      |
| Pertsona ezagunak                                                           | 63,2 |
| Pertsona ezezagunak                                                         | 22,8 |
| Beste harreman mota bat                                                     | 14,0 |
| Guztira                                                                     | 100  |

Baliabide honetan artatu diren bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria-kasuen % 51,7tan erasotzailea biktimaren bikotekidea da. Kasuen % 48,3 ean, erasoaren unean gizona biktimaren bikotekide ohia zen.

Familia barruko emakumeen aurkako indarkeria-kasuen % 24,6 emakumearen aurreko ahaidea den gizona da (aita, aitona) eta % 44,3 ondorengo ahaidea (semea, biloba). Kasuen % 31,1ean erasotzailea beste senide bat da (osaba, lehengusua...).


Bestalde, ikusi da identifikatutako sexu-erasoen % 63,2 biktimak ezagutzen duen gizon batek gauzatu du, eta kasuen % 22,8an, erasotzailea ezezaguna izan da.

Jatorriari erreparatuz, **emakumeen % 72,5k nazionalitate espainiarra dute eta % 27,5k atzerritarra.**


## SATEVIK ARTATU DITUEN EMAKUME BERRIAK JAIO DIREN HERRIALDEAREN ARABERA 2023

|                         | 2023 |
|-------------------------|------|
| Espainian jaioetakoen % | 72,5 |
| Atzerrian jaioetakoen % | 27,5 |
| Guztira                 | 100  |

## SATEVI-K ARTATUTAKO EMAKUME BERRI GUZTIEN BANAKETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA 2023



Zerbitzua erabiltzen duten emakumeen kokalekuari dagokionez, % 69,3Bizkaian bizi da, % 21,1 Gipuzkoan eta % 9,6 Araban.



## BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA


**Genero-indarkeriaren biktime diren emakumeentzako ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa** ordainketa bakarreko dirulaguntza da, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren partetik indarkeria jasan duten emakumeentzat eta lan bat lortzeko zailtasunak dituztenentzat, adina, prestakuntza orokor edo espezializatuaren gabezia eta gizarte-baldintzak direla eta. Azken finean, tratu txarren egoeratik ateratzeko eta bai independentzia ekonomikoa, bai inklusio soziala ahalbidetzeko laguntza da.

## BALIABIDEAREN INGURUKO DATU OROKORRAK

**2023ean, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailak ematen duen genero-indarkeriaren biktime diren emakumeentzako ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa 2.442.240 eurokoa izan da**, iaz baino % 52,8 gehiago. Kopuru hori sailak urte horretan izan duen gastu osoaren % 0,38 inguru da.

|                                                                                                                      | 2023              |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------|
| <b>BALIABIDEAREN/ZERBITZUAREN GASTUA</b>                                                                             | <b>2.442.240€</b> |
| Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Zuzendaritzaren Gastua                                               | 644.860.000 €     |
| Baliabidearen/zerbitzuaren gastuaren %, Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Zuzendaritzaren gastuarekiko | 0,38              |

ORDAINKETA BAKARREKO DIRULAGUNTZAREN GASTUAREN BILAKAERA 2018-2023




Bestalde, lau profesional daude baliabide honetan, 2022an baino bat gehiago. Guztiak emakumezkoak dira, eta erdiak prestakuntza dute bai berdintasunean bai indarkeria matxistan.

|                                                        | 2023     |
|--------------------------------------------------------|----------|
| <b>BALIABIDEAN/ZERBITZUAN DAGOEN LANGILEEN KOPURUA</b> | <b>4</b> |
| Baliabidean/zerbitzuan dagoen emakumeen %              | 100      |

|                                                                                                                      |    |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| Berdintasunaren eta/edo emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko prestakuntza duten baliabide/zerbitzuko langileen % | 50 |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|

ORDAINKETA BAKARREKO DIRULAGUNTZAKO PROFESIONALEN KOPURUAREN BILAKAERA 2019-2023



### BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK

2023ean zehar, **ordainketa bakarreko 385 diru-laguntza eman dira guztira**. Laguntza hori jaso duten **emakume guztiak bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria matxistaren biktimak dira**, laguntza indarkeria mota horretara mugatzen da.


Bestalde, prestazio hori lehen aldiz jaso duten emakumeen kopurua 51,0 igo da 2022aren aldean.

|                                                                    |             |
|--------------------------------------------------------------------|-------------|
|                                                                    | <b>2023</b> |
| <b>BALIABIDEAK/ZERBITZUAK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIEN GUZTIZKOA</b> | <b>385</b>  |

Guztira, artatutako emakumeen 503 adingabe zenbatu dira ( % 42,3 neskak eta % 57,7 neskak).

|                                                                                               |             |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------|-------------|
|                                                                                               | <b>2023</b> |
| <b>ZERBITZUAK ARTATUTAKO SEME-ALABA ADINGABE BERRIEN KOPURUA (BIZIKIDETZAGATIKO BIKTIMAK)</b> | <b>503</b>  |

ORDAINKETA BAKARREKO LAGUNTZA EKONOMIKOA JASO DUTEN EMAKUME BERRIEN KOPURUAREN BILAKAERA 2015-2023



## ORDAINKETA BAKARREKO LAGUNTZA EKONOMIKOA JASO DUTEN EMAKUME BERRIAK ADINAREN ARABERA. 2023

|                              | 2023 |
|------------------------------|------|
| 14 urte baino gutxiagokoen % | 0,0  |
| 14-17 urtekoen %             | 0,0  |
| 18-20 urtekoen %             | 2,3  |
| 21-30 urtekoen %             | 29,4 |
| 31-40 urtekoen %             | 34,8 |
| 41-50 urtekoen %             | 24,9 |
| 51-64 urtekoen %             | 6,8  |
| 65 urte edo gehiagokoen %    | 1,8  |
| Guztira                      | 100  |

2023ean dirulaguntza hori jaso duten hamar emakumetik sei inguru atzerrian jaio da; % 37,7, aldiz, Espainian.

Adinaren arabera, emakume gehienek **21 eta 50 urte artean dituzte ( % 89,1)**, eta lautik batek 41 eta 50 urte artean. Gainera, eskabideen % 2,3 18 eta 20 urte bitarteko emakumeentzat izan dira.

## ORDAINKETA BAKARREKO LAGUNTZA EKONOMIKOA JASO DUTEN EMAKUME BERRIAK JAIO DIREN HERRIALDEAREN ARABERA 2023

|                        | 2023 |
|------------------------|------|
| Espainian jaiotakoen % | 37,7 |
| Atzerrian jaiotakoen % | 62,3 |
| Guztira                | 100  |

## ORDAINKETA BAKARREKO LAGUNTZA EKONOMIKOA JASO DUTEN EMAKUME BERRIAK EGOERA ADMINISTRATIBOAREN ARABERA. 2023

|                                 | 2023 |
|---------------------------------|------|
| Egoera erregularrean daudenen % | 90,9 |
| Egoera irregularrean daudenen % | 9,1  |
| Guztira                         | 100  |

Prestazio hori 2023an jaso duten ia emakume guztiak administrazio-egoera erregularrean daude ( % 90,9); hala ere, emakumeen % 9,1 administrazio-egoera irregularrean dago.

LURRALDE PLANGINTZA,  
ETXEBIZITZA ETA  
GARRAIO SAILA

Etxebizitza  
Sailburuordetza

Alokairu-erregimenean dauden Babes Ofizialeko Etxebizitzaren  
promozioan baremazio gehigarria.


## BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA

Indarkeriaren biktima izan diren emakumeek Etxebiden eman dezakete izena alokairuko etxebizitza eskatzeko genero-indarkeriaren biktima gisa. Hala, 4 puntu gehiago lortuko dituzte baremazioan 2 urtez. Gainera, etxebizitza-behar berezia duten lehentasunezko kupoaren barruan sartuko dira. Ez dituzte gutxieneko diru-sarrerak egiaztatu beharko, ezta etxebizitza eskatzen duten udalerrietan erroldatuta egon ere. Halaber, ez da derrigorrezkoa kasu guztietan etxebizitzarik ez izatea.

## BALIABIDEAREN DATU OROKORRAK

2023, 2022 eta 2021erako daturik ez dagoenez, gogoratu behar da 2020an Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak, ordezkartzek eta Alokabidek ez zutela inolako gasturik egin emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko prestakuntzan. 2019an, gastu-partida hori 5.856,4 eurokoa zen.

LANGILEEK INDARKERIAREN INGURUKO PRESTAKUNTZA JASOTZEKO GASTUAREN BILAKAERA (ETXEBIZITZAKO PLANGINTZAREN ETA PROZESU ERAGILEEN ZUZENDARITZA, ORDEZKARITZAK ETA ALOKABIDE). 2018-2020



Bestalde, baliabidean dauden profesionalen kopuruari buruzko azken datuek, 2019koek, diote emakumeen aurkako prestakuntza zuten zuzendaritza horretako profesionalen kopurua 27koa zela.

|                                                                                                                                                                                                         | 2019 |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------|
| EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN INGURUAN PRESTAKUNTZA DUTEN BALIABIDE/ZERBITZUKO <b>LANGILEEN</b> KOPURUA (ETXEBIZITZAKO PLANGINTZAREN ETA PROZESU ERAGILEEN ZUZENDARITZA, ORDEZKARITZAK ETA ALOKABIDE) | 27   |

**BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK**

2023ean, alokairu-erregimenean dauden Babes Ofizialeko Etxebizitzaren promozioan baremazio gehigarria jaso dute 1.672 emakumek, eta horietatik 498 kasu berriak izan dira (% 29,8) (urte horretan bertan emandakoak). Laguntza hori jaso duten emakume guztiak bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria matxistaren biktimak dira, laguntza indarkeria mota horretara mugatzen da.


Kasu berrien kopurua igo egin da 2022arekin alderatuta, urte horretan 308 baremazio berri erregistratu baitziren (% 61,7).

|                                                                                                                                                                                                   | 2023  |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------|
| ALOKAIRU-ERREGIMENEAN DAUDEN BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN PROMOZIOETAN BAREMAZIO GEHIGARRIA DUTEN EMAKUME BIKTIMA GUZTIAK                                                                        | 1.672 |
| ALOKAIRU-ERREGIMENEAN DAUDEN BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN PROMOZIOETAN BAREMAZIO GEHIGARRIA LEHEN ALDIZ JASO DUTEN EMAKUME BIKTIMA GUZTIAK                                                       | 498   |
| ALOKAIRU-ERREGIMENEAN DAUDEN BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN PROMOZIOETAN BAREMAZIO GEHIGARRIA LEHEN ALDIZ JASO DUTEN EMAKUME BIKTIMEN % BAREMAZIO GEHIGARRIA DUTEN EMAKUME BIKTIMA GUZTIEN GAINEAN | 29,8  |

Guztira, artatutako emakumeen 457 adingabe zenbatu dira.

| ZERBITZUAK                   | ARTATUTAKO | SEME-ALABA | ADINGABE | BERRIEN | KOPURUA | 2023 |
|------------------------------|------------|------------|----------|---------|---------|------|
| (BIZIKIDETZAGATIKO BIKTIMAK) |            |            |          |         |         | 457  |

ALOKAIRU-ERREGIMENEAN DAUDEN BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN PROMOZIOETAN BAREMAZIO GEHIGARRIA DUTEN EMAKUME BERRIEN GUZTIZKOAREN BILAKAERA 2015-2023





ALOKAIRU-ERREGIMENEAN DAUDEN BABES OFIZIALEKO  
ETXEBIZITZEN PROMOZIOETAN BAREMAZIO GEHIGARRIA  
DUTEN EMAKUME BERRIAK, ADINAREN ARABERA. 2023

|                              | 2023 |
|------------------------------|------|
| 14 urte baino gutxiagokoen % | 0,0  |
| 14-17 urtekoen %             | 0,0  |
| 18-20 urtekoen %             | 1,8  |
| 21-30 urtekoen %             | 31,9 |
| 31-40 urtekoen %             | 33,5 |
| 41-50 urtekoen %             | 23,1 |
| 51-64 urtekoen %             | 8,4  |
| 65 urte edo gehiagokoen %    | 1,2  |
| Guztira                      | 100  |

Adinaren arabera, emakume horietako gehienak 31 eta 40 urte bitartekoak dira ( % 33,5), eta ia % 90 21 eta 50 urte bitartekoak. Emakume zaharrenak, 65 urtetik gorakoak, guztizkoaren % 1,2 dira.

Jatorriari erreparatuz, emakumeen % 60,6k nazionalitate espainiarra du eta % 39,4k atzerritarra.

ALOKAIRU-ERREGIMENEAN DAUDEN BABES OFIZIALEKO  
ETXEBIZITZEN PROMOZIOETAN BAREMAZIO GEHIGARRIA  
DUTEN EMAKUME BERRIAK, NAZIONALITATEAREN ARABERA.

2023

|                                | 2023 |
|--------------------------------|------|
| Nazionalitate espainiarraren % | 60,6 |
| Atzerriko nazionalitatearen %  | 39,4 |
| Guztira                        | 100  |

ALOKAIRU-ERREGIMENEAN DAUDEN BABES OFIZIALEKO  
ETXEBIZITZEN PROMOZIOETAN BAREMAZIO GEHIGARRIA  
DUTEN EMAKUME BERRIAK, EGOERA ADMINISTRATIBOAREN  
ARABERA. 2023

|                               | 2023 |
|-------------------------------|------|
| Egoera erregularrean dauden % | 100  |
| Egoera irregularrean dauden % | 0,0  |
| Guztira                       | 100  |

Baliabide horretara joan diren emakume guztiek egoera administratibo erregularra dute.

LURRALDE PLANGINTZA,  
ETXEBIZITZA ETA GARRAIO  
SAILAEtxebizitza  
SailburuordetzaKasu larrietan eta salbuespenezkoetan alokairu-  
erregimeneko etxebizitzak zuzenean esleitzea

## BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak 2004an onartu zuen “*Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako babestutako etxebizitzaren arlorako jarduketa-plana*”.

Planeko hainbat neurrik araudiaren estaldura izan zezaten, Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailburuaren 2006ko urriaren 4ko Agindua onartu zen, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako etxebizitzaren inguruko ekintza positiboak buruzkoa.

Plan horretako neurrietako bat da genero-indarkeria kasu larriak eta ez-ohikoak pairatu dituzten emakume biktimei alokairuko etxebizitza zuzenean esleitzea. Aldundiko edo udaleko baliabide batean dauden emakumei zuzenean esleitzen zaie etxebizitza.

Larritasuna eta ez-ohikotasuna honen arabera baloratuko da:


- ✓ Udaleko edo foru-aldundiko etxebizitzak eta zentroak erabili izana, eta egonaldiaren denbora muga igarota, bertan jarraitzeko aukerarik ez eduki izana.
- ✓ Denbora jakin batean etxebizitza bilatu izana eta lortu ez izana.
- ✓ Babes sozialik edo familiarrik ez izatea.

## BALIABIDEAREN DATU OROKORRAK

2023an, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak 47.304,0 €-ko gastua egin zuen, indarkeria larri eta salbuespenezko kasuetan alokairu-erregimeneko etxebizitza zuzenean esleitzeko.

|                                                                  | 2023              |
|------------------------------------------------------------------|-------------------|
| <b><u>ALOKAIRUKO ETXEBIZITZAK ZUZENEAN ESLEITZEKO GASTUA</u></b> | <b>47.304,0 €</b> |

ALOKAIRU-ERREGIMENEAN DAUDEN ETXEBIZITZEN ESLEIPEN ZUZENEAN BALIABIDEAK DUEN GASTUAREN BILAKAERA 2018-2023




Bestalde, **7 profesional daude baliabide honetan. Guztiak emakumeak dira, eta erdiak berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko prestakuntza dute.**

|                                                                                                                      | 2023     |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------|
| <b>BALIABIDEAN/ZERBITZUAN DAGOEN LANGILEEN KOPURUA</b>                                                               | <b>7</b> |
| Baliabidean/zerbitzuan dagoen emakumeen %                                                                            | 100      |
| Berdintasunaren eta/edo emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko prestakuntza duten baliabide/zerbitzuko langileen % | 100      |

### BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK

2023an, alokairu-erregimeneko **54 etxebizitza esleitu zaizkie zuzenean indarkeria matxistaren biktimei, iaz baino hiru gutxiago.** Etxebizitza guztiak bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren biktima diren emakumeei esleitu zaizkie, eta eremu horretara mugatzen da laguntza hau.

ALOKAIRU-ERREGIMENEAN DAUDEN ETXEBIZITZEN ESLEIPEN ZUZENA DUTEN EMAKUME BERRIEN KOPURUAREN BILAKAERA 2015-2023



ALOKAIRU-ERREGIMENEAN DAUDEN BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ESLEIPEN ZUZENA DUTEN EMAKUME BERRIAK, ADINAREN ARABERA. 2023

|                              | 2023 |
|------------------------------|------|
| 14 urte baino gutxiagokoen % | 0,0  |
| 14-17 urtekoen %             | 0,0  |
| 18-20 urtekoen %             | 0,0  |
| 21-30 urtekoen %             | 27,8 |
| 31-40 urtekoen %             | 46,3 |
| 41-50 urtekoen %             | 20,4 |
| 51-64 urtekoen %             | 5,6  |
| 65 urte edo gehiagokoen %    | 0,0  |
| Guztira                      | 100  |


Emakume horietako gehienek 31 eta 40 urte bitartean dituzte ( % 50,9), eta gehienek 21 eta 50 urte bitartean ( % 98,3).

Alokairu-erregimeneko etxebizitza baten onuradun diren lau emakumetik hiru atzerritarrak dira ( % 77,8), eta Espainiako nazionalitatea duten emakumeak % 22,2 dira.

ALOKAIRU ERREGIMENEAN DAUDEN BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ESLEIPEN ZUZENA DUTEN EMAKUME BERRIAK. 2023

|                                | 2023 |
|--------------------------------|------|
| Nazionalitate espainiarraren % | 22,2 |
| Atzerriko nazionalitatearen %  | 77,8 |
| Guztira                        | 100  |

ALOKAIRU ERREGIMENeko ETXEBIZITZEN ESLEIPEN ZUZENDA DUTEN EMAKUME BERRIEN BANAKETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2021



2023ko datu eguneratuen faltan, 2021ean, lurralde historikoaren arabera, etxebizitza horien % 41,3 Bizkaian bizi diren emakumeei eman zaizkie, % 22,6 Gipuzkoan eta % 35,8 Araban.

## OSASUN SAILA

Lehen arreta eta Etengabeko arretako gunek (EAG)

## BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA


Indarkeria matxistaren kasuetan, lehen mailako arretako osasun-laguntza eta etengabeko arretako puntuak (EAG) EAEko biztanleria osoari zuzendutako funtsezko osasun-laguntzari dagokio.

## BALIABIDEAREN DATU OROKORRAK

Eskuragarri dauden azken datuen arabera, **2021ean Osasun Sailean 10.187 profesionalak jaso dute emakumeen aurkako indarkeriaren eta/edo berdintasunaren arloko prestakuntza**. Sail honetan indarkeria mota horri buruzko prestakuntza jaso duten profesionalen kopuruak nabarmen egin du gora aurreko urtearekin alderatuta (1.005 profesional).

|                                                                                                                                | 2021    |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------|
| EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ETA/EDO BERDINTASUNAREN GAINEKO PRESTAKUNTZA JASO DUTEN BALIABIDE/ZERBITZUKO LANGILEEN KOPURUA | 10.187€ |


EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN INGURUKO PRESTAKUNTZA JASO DUTEN BALIABIDEKO LANGILEEN KOPURUAREN BILAKAERA. 2014-2021



## BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK

**2023an, emakumeen aurkako indarkeriaren 1.114 biktima artatu dituzte** Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko lehen mailako arretako eta etengabeko arretako gunetako osasun-laguntzako zerbitzuek. Erregistratutako kasuen kopurua % 30 inguru igo da 2022. urtearekin alderatuta.

LEHEN ARRETAN ETA ETENGABEKO ARRETA GUNEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIEN KOPURUAREN  
BILAKAERA 2015-2023




LEHEN ARRETAN ETA ETENGABEKO ARRETA GUNEETAN  
ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK. 2023

|                 | 2023 |
|-----------------|------|
| %Fisikoa        | 37,4 |
| %Psikologikoa   | 25,0 |
| %Sexuala        | 7,2  |
| %ez du zehazten | 30,5 |
| Guztira         | 100  |

Baliabide horretan artatutako emakumeen % 37,4k indarkeria fisikoa jasan du, eta % 25ek indarkeria psikologikoa. Gainera, sexu-indarkeriako kasuen % 7,2 detektatu da.

Gainera, emakumeen mutilazio genitalaren 23 kasu detektatu dira, beste indarkeria-mota batzuen barruan sailkatuta.

MUTILAZIO GENITALA EMAKUMEBERRIEN BANAKETA. 2023



Lurralde historikoen arabera, emakume horien % 57,0 Bizkaian detektatu da, % 32,2 Gipuzkoan eta % 10,8 Araban.

Baliabide horretan artatutako hamar emakumetik zazpik 20 eta 49 urte bitartean dituzte ( % 68,1). Gainera, % 10,1 65 urtetik gorako emakumeak dira, eta emakume gazteenak, 19 urtera artekoak, guztizkoaren % 6,2.

LEHEN ARRETAN ETA ETENGABEKO ARRETA GUNEETAN  
(EAG) ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK ADINAREN ARABERA.  
2023

|                              | 2023 |
|------------------------------|------|
| 14 urte baino gutxiagokoen % | 1,2  |
| 14-19 urtekoen %             | 5,0  |
| 20-29 urtekoen %             | 19,6 |
| 30-39 urtekoen %             | 23,8 |
| 40-49 urtekoen %             | 24,7 |
| 50-64 urtekoen %             | 15,6 |
| 65 urte edo gehiagokoen %    | 10,1 |
| Guztira                      | 100  |

## OSASUN SAILA

## Ospitaleko larrialdiak


## BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA

Ospitaleko larrialdiak EAEko Larrialdi-zerbitzuetara joaten diren herritarrei eskaintzen zaien berehalako osasun-arreta dira.

## BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK

2023an, indarkeria matxistaren biktima **diren 1.158 emakume artatu dira Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko ospitaleetako larrialdi-zerbitzuetan**. Baliabide horrek 2023an artatutako emakumeen kopurua 2022an artatutakoak (816) baino % 41,9 gehiago da.

OSPITALEKO LARRIALDIETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIEN KOPURUAREN BILAKAERA 2015-2023



OSPITALEKO LARRIALDIETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK. 2023


|                 | 2023 |
|-----------------|------|
| %Fisikoa        | 24,7 |
| %Psikologikoa   | 1,7  |
| %Sexuala        | 25,9 |
| %ez du zehazten | 47,7 |
| Guztira         | 100  |

Baliabide honetan artatutako lau emakumetik bat ( % 25,9) sexu-indarkeriaren biktima gisa erregistratu da, % 24,7k indarkeria fisikoa jasan du eta % 1,7k indarkeria psikologikoa.

Erasotzailea ez da zehazten, indarkeria-mota bakarrik.

Gainera, emakumeen mutilazio genitaleko 5 kasu detektatu dira, beste indarkeria mota batzuen barruan sailkatuta.

EMAKUMEEN MUTILAZIO GENITARALAREN BANAKETA  
LURRALDEKA. 2023



Lurralde historikoen arabera, emakume horien % 62,0 Bizkaian erregistratu zen, % 17,7 Gipuzkoan eta % 20,3 Araban.

Baliabide horretan artatutako emakumeen % 27,4k 20-29 urte ditu, eta % 78,2k 20-49 urte. Gainera, aipatzekoa da % 6,8 19 urtetik beherako neskak direla, eta % 4 65 urtetik gorako emakumeak.

OSPITALEKO LARRIALDIEK ARTATUTAKO EMAKUMEAK ADINAREN  
ARABERA. 2023

|                              | 2023 |
|------------------------------|------|
| 14 urte baino gutxiagokoen % | 0,0  |
| 14-19 urtekoen %             | 6,8  |
| 20-29 urtekoen %             | 27,4 |
| 30-39 urtekoen %             | 27,1 |
| 40-49 urtekoen %             | 23,7 |
| 50-64 urtekoen %             | 11,0 |
| 65 urte edo gehiagokoen %    | 4,0  |
| Guztira                      | 100  |



## LAN ETA ENPLEGU SAILA

## Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE)

## BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) hilean behineko dirulaguntza da, baliabide nahikorik ez daukaten pertsona eta familien oinarrizko beharrak asetzeko, eta lan-munduan irtenbide bat bilatzen laguntzeko. Euskal Enplegu Zerbitzuak - Lanbidek kudeatzen duen baliabidea da.


Indarkeriaren biktima izan den emakume batek Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eskatzen duenean, Lanbidek lehentasuna ematen dio eta bere baldintza pertsonaletara egokitzen du tratamendua.

## BALIABIDEAREN DATU OROKORRAK

2023an, Lanbidek **12.891.912 €** bideratu ditu emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeen diru-sarrerak bermatzeko errentara, hau da, Lan eta Enplegu Sailaren guztizko gastuaren % 3,3. Datu hori 2022an baino % 41,3 handiago da.

|                                                                                           | 2023               |
|-------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------|
| <b>GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEK JASOTZEN DUTEN DSBE-REN GASTU OSOA</b>    | <b>12.891.912€</b> |
| DSBEren gastu osoa                                                                        | 389.787.907 €      |
| Genero-indarkeriaren biktimen DSBEren gastuaren proportzioa DSBEren gastu osoaren gainean | %3,3               |


INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO DSBE-REN GASTUAREN BILAKAERA. 2017-2023



Bestalde, indarkeria matxistaren biktimei arreta ematen lan egiten duten **151 profesional daude baliabide horri atxikita, eta gehienak emakumeak dira ( % 91,4)**. Profesional-talde osoak berdintasunaren eta/edo emakumeen aurkako indarkeriaren arloko prestakuntza du.

|                                                                                                 | 2023    |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------|---------|
| <b>BALIABIDEARI ATXIKITA DAUDEN LANGILEEN GUZTIZKO KOPURUA</b>                                  | 151     |
| Baliabidean dauden emakume profesionalen %                                                      | 91,4    |
| Emakumeen aurkako indarkerian eta/edo berdintasunean prestakuntza duten baliabideko langileen % | % 100,0 |

*Oharra: Lanbideko bulego guztietan dago genero-indarkeriaren biktimenezako arretarako tutore bat gutxienez eta prestakuntza du genero-indarkeriaren biktimen den emakumearen baldintzetara hobekien egokitzen den moduan betetzeko zeregina.*




### BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK

2023an, indarkeriaren biktimen izan diren 1.613 emakumek jaso dute DSBEa, eta horietatik 404k (% 34,1) jaso dute lehen aldiz.

2023an DSBEa jaso duten emakumeen kopuruak gora egin du 2022tik (% 31,6); urte horretan, 3.071 emakumek jaso zuten prestazio hori.

|                                                                                                    | 2023       |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| DSBE JASO DUTEN EMAKUME BIKTIMA GUZTIEN KOPURUA                                                    | 1.613      |
| DSBE <b>LEHEN ALDIZ</b> JASO DUTEN <b>EMAKUME</b> BIKTIMA GUZTIEN KOPURUA                          | <b>404</b> |
| LEHEN ALDIZ DSBE JASO DUTEN EMAKUME BIKTIMEN % DSBE JASOTZEN DUTEN EMAKUME BIKTIMA GUZTIEN GAINEAN | 25,9       |



Adinaren arabera, prestazio hori jasotzen duten emakume gehienek 31 eta 40 urte bitartean dituzte ( % 37,3) edo 21 eta 30 artean ( % 28,5). Ia % 91,2k 21 eta 50 urte bitartean ditu.

DSBE JASOTZEN DUTEN EMAKUME BERRIAK ADINAREN ARABERA. 2023

|                              | 2023 |
|------------------------------|------|
| 14 urte baino gutxiagokoen % | 0,0  |
| 14-17 urtekoen %             | 0,3  |
| 18-20 urtekoen %             | 0,0  |
| 21-30 urtekoen %             | 28,5 |
| 31-40 urtekoen %             | 37,3 |
| 41-50 urtekoen %             | 25,4 |
| 51-64 urtekoen %             | 8,5  |
| 65 urte edo gehiagokoen %    | 0,0  |
| Guztira                      | 100  |

DSBE JASOTZEN DUTEN EMAKUME BERRIAK JAIO DIREN HERRIALDEAREN ARABERA. 2023

|                                | 2023 |
|--------------------------------|------|
| Nazionalitate espainiarraren % | 46,2 |
| Atzerriko nazionalitatearen %  | 53,8 |
| Guztira                        | 100  |


Prestazio hori jaso duten emakumeen % 46,2k Espainiako nazionalitatea du, eta % 53,8k atzerriko nazionalitatea.

DSBE JASOTZEN DUTEN EMAKUME BERRIAK EGOERA ADMINISTRATIBOAREN ARABERA. 2023

|                               | 2023 |
|-------------------------------|------|
| Egoera erregularrean dauden % | 46,2 |
| Egoera irregularrean dauden % | 53,8 |
| Guztira                       | 100  |

2023an, baliabide horretan artatutako emakumeen % 53,8 administrazio-egoera irregularrean dago, eta gainerako % 46,2 administrazio-egoera erregularrean.

DSBE-A JASOTZEN DUTEN EMAKUME BERRIEN BANAKETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2022



2023ko daturik ez dagoenez, lokalizazioaren arabera, 2022an emakume horien % 56,3 Bizkaian bizi dira, % 28,1 Gipuzkoan eta % 15,6 Arabako Lurralde Historikoan.

## LAN ETA ENPLEGU SAILA

## Bitartekaritza Soziolaboralerako Programa

## BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA


Bitartekaritza Soziolaborala Lanbideren programa bat da eta enplegu-eskatzailerak diren emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei banakako aholkularitza eskaintzen die, lan-merkatuan eta prestakuntza-ikastaroetan sar daitezzen errazteko.

## BALIABIDEAREN DATU OROKORRAK

2023an, Lanbideak 489.099,2 € bideratu ditu emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei programara, 2022koa baino pixka bat gutxiago (% 3,5 gutxiago). 2023an programa horretara bideratu duen gastua Lanbideren guztizko gastuaren % 0,12 da.

INDARKERIAREN BIKTIMEN ARRETARAKO BITARTEKARITZA SOZIO LABORALERAKO PROGRAMAREN GASTUAREN BILAKAERA. 2018-2023


|                                                                            | 2023               |
|----------------------------------------------------------------------------|--------------------|
| <b>GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN BALIABIDEEN GASTU OSOA</b> | <b>489.099,2 €</b> |
| Baliabidearen gastu osoa                                                   | 12.891.912€        |
| Baliabidearen gastuaren proportzioa DSBEaren kostu osoaren gainean         | 0,12%              |



Bestalde, baliabide horri atxikitako 151 profesional daude guztira, eta indarkeria matxistaren biktimei arreta ematea, horietatik gehienak emakumeak baitira (% 91,4). Profesional-talde osoak berdintasunaren eta/edo emakumeen aurkako indarkeriaren arloko prestakuntza du.

|                                                                                                 | 2023       |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| <b>BALIABIDEARI ATXIKITA DAUDEN LANGILEEN GUZTIZKO KOPURUA</b>                                  | <b>151</b> |
| Baliabidean dauden emakume profesionalen %                                                      | 91,4       |
| Emakumeen aurkako indarkerian eta/edo berdintasunean prestakuntza duten baliabideko langileen % | 100        |

Bitartekaritza Soziolaboralerako Programara atxikita dauden indarkeriaren biktimen arretarako langileak DSBerako berberak dira, indarkeriaren tutoreak.




### BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK

2023an, indarkeria matxistaren biktima diren **1.647 emakume sartu dira Lanbideren gizarte- eta lan-bitartekotzako programan espezializatutako tutoretza-programan, eta horietatik 824 ( % 50,0) lehen aldiz sartu dira**. Guztiak dira bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremuan eragindako indarkeriaren biktimak.

2023an artatutako kasu berriek gora egin dute 2022rekiko ( % 22,8), urte horretan programan 672 emakume berri artatu baitziren.

|                                                                                                                         | 2023       |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| BITARTEKARITZA SOZIOLABORALEKO PROGRAMAN PARTE HARTU DUTEN EMAKUME GUZTIEN KOPURUA                                      | 1.647      |
| BITARTEKARITZA SOZIOLABORALEKO PROGRAMAN <b>LEHEN ALDIZ</b> PARTE HARTU DUTEN <b>EMAKUME GUZTIEN KOPURUA</b>            | <b>824</b> |
| ESKU HARTZE SOZIOLABORALEKO PROGRAMAN <b>LEHEN ALDIZ</b> PARTE HARTU DUTEN EMAKUMEEN %, EMAKUME BIKTIMA GUZTIEN GAINEAN | 50,0       |

BITARTEKARITZA SOZIOLABORALEKO PROGRAMAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIEN KOPURUAREN BILAKAERA 2019-2021



Adinari dagokionez, baliabide hori eskuratu duten hamar emakumetik bederatzik 21 eta 50 urte bitartean ditu.

BITARTEKARITZA SOZIOLABORALEKO PROGRAMAN  
ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK ADINAREN ARABERA 2023

|                              | 2023 |
|------------------------------|------|
| 14 urte baino gutxiagokoen % | 0,0  |
| 14-17 urtekoen %             | 0,2  |
| 18-20 urtekoen %             | 0,0  |
| 21-30 urtekoen %             | 30,8 |
| 31-40 urtekoen %             | 33,0 |
| 41-50 urtekoen %             | 26,9 |
| 51-64 urtekoen %             | 8,6  |
| 65 urte edo gehiagokoen %    | 0,4  |
| Guztira                      | 100  |

BITARTEKARITZA SOZIOLABORALEKO PROGRAMAN  
ARTATUTAKO EMAKUME BERRIEN BANAKETA JAIOTERRIAREN  
ARABERA. 2023

|                                | 2023 |
|--------------------------------|------|
| Nazionalitate espainiarraren % | 52,3 |
| Atzerriko nazionalitatearen %  | 47,7 |
| Guztira                        | 100  |


Baliabide horretan artatutako emakumeen % 52,3k nazionalitate espainiarra du, eta % 47,7k nazionalitate atzerritarra.

DSBE JASOTZEN DUTEN EMAKUME BERRIAK EGOERA  
ADMINISTRATIBOAREN ARABERA 2021

|                               | 2021 |
|-------------------------------|------|
| Egoera erregularrean dauden % | 92,6 |
| Egoera irregularrean dauden % | 7,4  |
| Guztira                       | 100  |

2023ko datuen faltan, baliabide horretan artatutako emakumeen % 92,6k egoera administratibo erregularra du, eta gainerako % 7,4k egoera administratibo irregularra.

BITARTEKARITZA SOZIOLABORALEKO PROGRAMAN ARTATUTAKO  
EMAKUME BERRIEN BANAKETA LURRALDE HISTORIKOAREN  
ARABERA. 2022



2023ko daturik ezean, 2022an emakume horien % 55,5 Bizkaian bizi da, % 28,3 Gipuzkoan eta gainerako % 16,2a Araban.

Azkenik, aipatzekoa da 2022an programa horretan sartu ziren emakumeen % **3,9k desgaitasunen bat duela**.

**HEZKUNTZA SAILA**

Biktimak diren emakumeak eta haien seme-alabak unibertsitateko ikasketak ordaintzetik salbuestea

**BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA**

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeen eta haien seme-alabak, 25 urtetik beherakoak, bere kargu daudenak eta berarekin bizi direnak, unibertsitateko zerbitzu akademikoak jasotzeko prezio publiko guztietatik salbuetsita egongo dira.


**BALIABIDEAREN DATU OROKORRAK**

Hezkuntza Sailak emandako datuen arabera, **2023/2024 ikasturtean Sail honek 78.291 €-ko gastua egin du emakumeentzako eta haien seme-alaba biktimentzako unibertsitate-irakaskuntzak ordaintzetik salbuesteko**. Aurreko ikasturtean partida horri eskainitakoa baino % 1,82 gutxiago da datu hori.

|                                                                  | <b>2023/2024</b> |
|------------------------------------------------------------------|------------------|
| <b>UNIBERTSITATEKO IKASKETAK ORDAINTZETIK SALBUESTEKO GASTUA</b> | <b>78.291€</b>   |

Oharra: Salbuespenak berak dakarren gastua bakarrik sartzen da (ez da sartzen salbuespenak kudeatzen dituzten langileen gastua)


UNIBERTSITATEA ORDAINTZEKO SALBUESPENETARA BIDERATUTAKO SAILEKO GASTUAREN BILAKAERA 2019/2020-2021/2022-2022/2023- 2023/2024IKASTURTEA.

**BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK**

2023/2024 ikasturtean **78 matrikula-salbuespen eman dira**, aurreko ikasturtean baino % 25,0 gutxiago (104). Salbuespen gehienak ( % 83,1) EHUraiko matrikulazioetan eman dira, % 9,6 Deustuko Unibertsitateari dagozkio eta % 7,2 Mondragon Unibertsitateari.

|                                                                                   | 2023/2024 |
|-----------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>UNIBERTSITATE-IKASKETAK ORDAINTZEKO EMAN DIREN <b>SALBUESPENEN KOPURUA</b></b> | <b>83</b> |
| EHUko salbuespenen %                                                              | 83,1      |
| Deustuko Unibertsitateko salbuespenen %                                           | 9,6       |
| Mondragon Unibertsitateko salbuespenen %                                          | 7,2       |

UNIBERTSITATE-IKASKETAK ORDAINTZETIK SALBUETSITA DAUDENEN KOPURUAREN BILAKAERA 2019/2020-2021/2022 IKASTURTEA.





## HEZKUNTZA SAILA

Eskola-jazarpena: jazarpen edo abusu sexualarekin eta/edo jazarpen sexistarekin lotutako kasuak

### BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA


Urtero, Hezkuntza Ikuskaritzak EAEko eskola-jazarpenaren inguruko datuak jasotzen ditu, eta horren barruan sartzen dira Euskadiko ikastetxeetako sexu-jazarpen edo abusu kasuak eta/edo jazarpen sexista.

### BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK

**2023/2024 ikasturtean, 21 haur eta nerabe detektatu dira sexu-jazarpen edo -abusu sexistagatiko protokoloa aktibatu dutenak (aurreko ikasturtean baino % 50 gehiago).** Protokolo hori aktibatu den kasu horien erdiak Bigarren Hezkuntzan gertatzen dira, eta kasuen % 40 Lehen Hezkuntzan aktibatzen dira.

|                                                                                                                    | 2023/2024 |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>JAZARPEN EDO ABUSU SEXUALAGATIKO/SEXISTAGATIKO PROTOKOLOA AKTIBATU DUTEN HAUR ETA NERABEEN GUZTIZKO KOPURUA</b> | <b>21</b> |
| Haur Hezkuntzan aktibatutako protokolo kopuruaren %                                                                | 0,0       |
| Lehen Hezkuntzan aktibatutako protokolo kopuruaren %                                                               | 40,0      |
| Bigarren Hezkuntzan aktibatutako protokolo kopuruaren %                                                            | 50,0      |
| Lanbide Heziketan aktibatutako protokolo kopuruaren %                                                              | 5,0       |
| Batxilergoaren %                                                                                                   | 5,0       |

ESKOLA-JAZARPENeko KASUEN BILAKAERA. 2020-2023




ARTATUTAKO HAUR ETA NERABE BERRIEN KOPURUA, SEXUAREN ARABERA. 2023/ 2024

|                 | 2023/2024 |
|-----------------|-----------|
| Nesken kopurua  | 57,1      |
| Mutilen kopurua | 42,9      |
| Guztira         | 100       |

Protokolo hau aktibatzen den kasuen % 57,1 neskak/neskak dira.

Lurralde historikoen arabera, kasuen % 42,9 Gipuzkoan aktibatu dira, % 42,9 Bizkaian eta % 14,3 Araban.

ARTATUTAKO HAUR ETA NERABE BERRIEN BANAKETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2023/2024



HEZKUNTZA SAILA

Emakumeen eta haien seme-alaba biktimen espediente akademikoak lekualdatzea

BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA


Hezkuntza Sailaren barruan, Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza arduratzen da espediente akademikoak lekualdatzeko eskaerak biltzeaz eta kudeatzeaz.

BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK


2023/2024 ikasturtean, 81 lekualdatze egin dira emakumeen eta haien seme-alaba biktimen espediente akademikoetan, % 161 gehiago aurreko ikasturtearekin alderatuta, orduan 31 espediente lekualdatu baitziren.

|                                                                                               | 2022/2023 |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| EMAKUMEEN ETA HAIEN SEME-ALABA BIKTIMEN ESPEDIENTE AKADEMIKOEN LEKUALDATZEEN GUZTIZKO KOPURUA | 81        |
| Nesken kopurua                                                                                | 51,0      |
| Mutilen kopurua                                                                               | 49,0      |

ESPEDIENTEA LEKUALDATZEKO KASUEN BILAKAERA. 2022-2023



ARTATU DIREN HAUR ETA NERABE BERRIEN BANAKETA,  
LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2023/2024



Lurralde historikoaren arabera, lekualdaketa eskatu zuten emakumeen % 49,4 Bizkaian detektatu zen, % 21,0 Gipuzkoan eta % 29,6 Araban.

Lekualdatze gehienak Espainian jaiotako emakumeei eta haien seme-alabei dagozkie ( % 64,0), eta % 36 atzerrian jaiotakoak dira.

EMAKUMEEN ETA HAIEN SEME-ALABEN ESPEDIENTE AKADEMIKOAK  
LEKUALDATZEA, ADINAREN ARABERA. 2023/2024

|                        | 2023/2024 |
|------------------------|-----------|
| Espainian jaiotakoen % | 64,0      |
| Atzerrian jaiotakoen % | 36,0      |
| Guztira                | 100,0     |

HEZKUNTZA SAILA

Emakumeentzako eta haien seme-alabentzako hezkuntza-bekak (unibertsitatekoak).

BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA


Bikotekidearen, bikotekide ohiaren edo familia barruko indarkeriaren biktimak, Eusko Jaurlaritzak unibertsitate-ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko deitutako hezkuntza-bekak eskatzen badituzte, laguntza horiek emateko baldintza akademikoak betetzetik salbuetsita daude.

BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK

2023/2024 ikasturtean, 25 unibertsitate-beka eman zaizkie emakumeei eta, kasu batzuetan, haien seme-alabei.

|                                                                                      | 2023/2024 |
|--------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| UNIBERTSITATE-IRAKASKUNTZETAN HEZKUNTZA-BEKAK JASO DITUZTEN EMAKUME BERRIAK, GUZTIRA | 25        |

UNIBERTSITATE-IKASKETETAN HEZKUNTZA-BEKAK EMAN  
DIZKIETEN EMAKUMEEN BANAKETA, LURRALDE HISTORIKOAREN  
ARABERA. 2023



Lurralde historikoaren arabera, bekak jaso zituzten emakumeen % 24,0 Bizkaian erregistratu zen, % 40,0 Gipuzkoan eta % 36,0 Araban.

Adinari dagokionez, hezkuntza-bekak dituzten emakumeen % 72 21 eta 30 urte bitartekoak dira. % 24,0k 18 eta 20 urte artean ditu, eta % 4k 31 eta 40 urte artean.

UNIBERTSITATE-IKASKETETAN HEZKUNTZA-BEKAK JASO  
DITUZTEN EMAKUME BERRIAK, ADINAREN ARABERA. 2023

|                              | 2023 |
|------------------------------|------|
| 14 urte baino gutxiagokoen % | 0,0  |
| 14-17 urtekoen %             | 0,0  |
| 18-20 urtekoen %             | 24,0 |
| 21-30 urtekoen %             | 72,0 |
| 31-40 urtekoen %             | 4,0  |
| 41-50 urtekoen %             | 0,0  |
| 51-64 urtekoen %             | 0,0  |
| 65 urte edo gehiagokoen %    | 0,0  |
| Guztira                      | 100  |

### 3.2. FORU ALDUNDIETAKO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO ARRETARAKO BALIABIDEEN DATUAK

Foru Aldundiei dagokienez, erakunde horietako baliabide guztiek hartu dute parte kontsultan.

| BALIABIDEA                                                                                                                                                                                                 | AFA        | BFA        | GFA        |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|------------|------------|
| Indarkeria matxistaren biktimei berehala harrera egiteko zentroak                                                                                                                                          | Bai        | Bai        | Bai        |
| Indarkeria matxistaren biktimei diren emakumeentzako egoitza-zentroak.                                                                                                                                     | Bai        | Bai        | Bai        |
| Indarkeria matxistaren egoerei laguntza juridikoa emateko zerbitzua                                                                                                                                        | Bai        | Bai        | Bai        |
| Indarkeria matxistaren egoeretan laguntza psikologikoa emateko zerbitzua                                                                                                                                   | Bai        | Bai        | Bai        |
| Arreta psikosozial hezitzaileko zerbitzua                                                                                                                                                                  | Bai        | Bai        | Bai        |
| Espezializatutako beste programa batzuk: Genero-indarkeriaren biktimei diren adingabeei arreta ematen espezializatutako familia esku-hartze programa (BFA)                                                 | Ez dagokio | Bai        | Ez dagokio |
| Espezializatutako beste programa batzuk: Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua (GLFZ) (GFA)                                                                                                                | Ez dagokio | Ez dagokio | Bai        |
| Espezializatutako beste programa batzuk: Babesgabetasun eta bazterkeria sozial egoera pairatzeko arrisku larria duten emakumeentzako egoitza-zentroa, baita indarkeria matxistaren biktimentzako ere (GFA) | Ez dagokio | Ez dagokio | Bai        |

## FORU ALDUNDIAK

Indarkeria matxistaren biktimei berehala harrera egiteko zerbitzua

## BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA

Aldundien eskumena duten berehalako harrera egiteko zentroak indarkeriaren biktima izan diren eta aldi baterako babesa eta ostatua behar duten emakumeei daude zuzenduta.

Bizikidetza-unitatea mantentzeko helburuarekin, zerbitzua eta prestazio guztiak jasotzeko aukera izango dute haien mende dauden eta normalean haiekin bizi diren pertsonak ere, izan seme-alabak, adingabe zein adinez nagusiak, edota mendekotasuna duten beste pertsona helduak.

## BALIABIDEAREN INGURUKO DATU OROKORRAK


**2023an, Foru Aldundiek 3.718.132,75 euroko inbertsioa egin dute indarkeria matxistaren biktimentzako berehalako harrera-zerbitzuetan.** BFAk 1.580.784,36 € inbertitu ditu guztira arreta-baliabide horretan, hau da, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sailaren % 2,1. AFAn gastua 1.115.657,31 eurokoa izan da, hau da, AFAn baliabide honi dagokion sailaren gastu osoaren % 0,4. GFAn kasuan, gastua 1.021.691,08 eurokoa da, saileko gastuaren % 0,2.

**2023ko gastuaren eta 2022koaren arteko datu erlatiboak alderatuz gero, % 24,1eko gorakada adierazgarria izan da. Gastua 2.995.297,57 €-tik 3.718.132,75 €ra igaro da.** Lurraldeka, handitu egin da hiru aldundiek baliabide horretan egin duten gastua: BFAn eta GFAn % 16,1 eta % 20,3 handitu da hurrenez hurren; aldiz, AFAn kasuan, % 42,3 handitu da gastua aurreko urtearekin alderatuta.

| 2023                                                                     | AFA                  | BFA                   | GFA                   | FA GUZTIRA            |
|--------------------------------------------------------------------------|----------------------|-----------------------|-----------------------|-----------------------|
| <b>BALIABIDEAREN GUZTIZKO GASTUA</b>                                     | <b>1.115.657,31€</b> | <b>1.580.784,36 €</b> | <b>1.021.691,08 €</b> | <b>3.718.132,75 €</b> |
| Baliabidearen mende dagoen sailaren edo departamentuaren guztizko gastua | 269.009.835 €        | 75.085.822 €          | 515.224.247 €         | 859.319.905 €         |
| Zerbitzuaren gastuaren proportzioa sail edo departamentuarekiko          | % 0,4                | % 2,1                 | % 0,2                 | % 0,4                 |

BFAren gastu osoa Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sailari dagokio, AFAn eta GFAn kasuan berriz, Gizarte Politiken Sailari egiten dio erreferentzia.


ALDUNDIETAKO BEREHALAKO HARRERA EGITEKO ZERBITZUETAKO GASTUAREN BILAKAERA 2019-2023



Guztira **61 profesional daude lanean aldundietako berehalako harrera-zentroetan**, 2022an baino bat gutxiago.

| 2023                                                                                            | AFA       | BFA       | GFA       | FA GUZTIRA |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|-----------|-----------|------------|
| <b>BALIABIDEARI ATXIKITA DAUDEN LANGILEEN GUZTIZKO KOPURUA</b>                                  | <b>27</b> | <b>19</b> | <b>15</b> | <b>61</b>  |
| Baliabidean dauden emakume profesionalen %                                                      | 92,6      | 94,7      | 93,3      | 93,4       |
| Emakumeen aurkako indarkerian eta/edo berdintasunean prestakuntza duten baliabideko langileen % | 100       | 100       | 100       | 100        |


ALDUNDIETAKO BEREHALAKO HARRERA EGITEKO ZERBITZUETAKO LANGILEEN BILAKAERA 2019-2023



Bestalde, guztira **59 plaza** zenbatu dira eta guztiak indarkeria matxistaren emakume biktimentzako dira. 2022ko kopuru berdina da hori.

| 2023                                               | AFA       | BFA       | GFA       | FA GUZTIRA |
|----------------------------------------------------|-----------|-----------|-----------|------------|
| <b>BALIABIDEAN/ZERBITZUAN DAGOEN PLAZA KOPURUA</b> | <b>16</b> | <b>24</b> | <b>19</b> | <b>59</b>  |
| Indarkeriaren biktimentzako berariazko plazen %    | 100       | 100       | 100       | 100        |

FORU ALDUNDIETAKO BEREHALAKO HARRERA EGITEKO ZERBITZUETAN DAUDEN PLAZA KOPURUEN BILAKAERA 2020-2023




**BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK**

Guztira **311** emakume igaro dira **2023an** zehar berehalako harrerako hainbat baliabidetatik. Gainera, baliabide horietan emakume horien **208** seme-alaba artatu dituzte.

Orotara, 2023an **537** pertsona artatu dituzte foru-aldundietako berehalako arretako baliabidetan; horien artetik % 90,7 lehen aldiz.


| 2023                                                                         | AFA        | BFA        | GFA       | FA GUZTIRA |
|------------------------------------------------------------------------------|------------|------------|-----------|------------|
| ARTATUTAKO EMAKUME GUZTIAK                                                   | 69         | 172        | 70        | 311        |
| <b>ARTATUTAKO EMAKUME BERRI GUZTIAK</b>                                      | <b>62</b>  | <b>157</b> | <b>60</b> | <b>279</b> |
| Artatutako EMAKUME BERRIEN %, artatutako emakumeen guztizkoaren gainean      | 89,9       | 91,3       | 85,7      | 89,7       |
| ARTATUTAKO SEME-ALABAK, GUZTIRA                                              | 67         | 119        | 40        | 226        |
| <b>ARTATUTAKO SEME-ALABA BERRI GUZTIAK</b>                                   | <b>58</b>  | <b>114</b> | <b>36</b> | <b>208</b> |
| Artatutako SEME ALABA BERRIEN %, artatutako seme-alaben guztizkoaren gainean | 86,6       | 95,8       | 90,0      | 92,0       |
| ARTATUTAKO PERTSONAK, GUZTIRA                                                | 136        | 291        | 110       | 537        |
| <b>ARTATUTAKO PERTSONA BERRI GUZTIAK</b>                                     | <b>120</b> | <b>271</b> | <b>96</b> | <b>487</b> |
| PERTSONA berrien % guztizkoaren gainean                                      | 88,2       | 93,1       | 87,3      | 90,7       |

Baliabide horietan artatutako emakume berri guztien kopurua apur bat igo da 2022rekin alderatuta; 272 emakumetik 279ra igaro da (% 2,6). Lurraldeka, datuek erakusten dute artatutako kasuen kopurua igo egin dela bai AFAn (50etik 62ra), bai BFAn (155etik 157ra). Aldiz, GFAn artatutako kasuak murriztu egin dira (67 emakumetik 60ra).




Bestalde, baliabide horietan artatutako seme-alaba berrien kopurua ere igo egin da; 2022an 203 izatetik 2023an 208 izatera igaro da. % 2,5eko hazkunde hori honela banatzen da: AFAn, artatutako seme-alaba berrien kasuak % 24,0 igo dira; BFAn, hazkundea % 1,3koa izan da eta GFAn, berriz, %10,4ko beherakada izan da.



FORU ALDUNDIETAKO BEREHALAKO HARRERA EGITEKO ZERBITZUETAN ARTATU DITUZTEN SEME-  
ALABA BERRIEN BILAKAERA 2020-2023

Berehalako harrera egiteko zerbitzuetara joan diren **279 emakume berrien** ia seiren bat Bizkaiko baliabideetan artatu dituzte (% 55,3), % 21,5 Gipuzkoan eta % 22,2 Araban.

BEREHALA HARRERA EGITEKO FORU BALIABIDEETAN  
ARTATUTAKO EMAKUME BERRIEN BANAKETA  
LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2023

**Baliabide honetara jotzen duten emakume gehienek bikotekidearen edo bikotekide ohiaren partetik pairatu dute indarkeria (% 89,6).** Familia barruko indarkeriaren biktimak emakume guzti horien % 5,7 dira, eta sexu-indarkeriarenak, % 4,7.

Lurraldearen arabera, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren partetik indarkeria jasan duten emakumeen kopurua apur bat altuagoa da AFAn (% 95,2) eta BFAn (% 87,9) kudeatutako baliabideetan; aldiz, sexu-indarkeriaren kasuek proportzio handiagoa dute GFAn (% 6,7).

FORU ALDUNDIETAKO BEREHALAKO HARRERA EGITEKO ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK INDARKERIAREN ARLOAREN  
ARABERA 2023

|                                                       | 2023 | AFA  | BFA  | GFA  | FA GUZTIRA |
|-------------------------------------------------------|------|------|------|------|------------|
| Bikotekidearen edo bikotekide-ohiaren indarkeriaren % |      | 95,2 | 87,9 | 88,3 | 89,6       |
| Familia barruko indarkeriaren %                       |      | 0,0  | 8,3  | 5,0  | 5,7        |
| Sexu-indarkeriaren %                                  |      | 4,8  | 3,8  | 6,7  | 4,7        |
| Beste indarkeria modu batzuen %                       |      | 0,0  | 0,0  | 0,0  | 0,0        |
| Guztira                                               |      | 100  | 100  | 100  | 100        |

Baliabide horietan artatutako lau emakumetik hiruk indarkeria psikologikoa jasan dute gehienbat eta kasuen % 22an, indarkeria mota nagusia fisikoa izan da.

FORU ALDUNDIETAKO BEREHALAKO HARRERA EGITEKO ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK PAIRATU DUTEN INDARKERIA  
MOTA NAGUSIAREN ETA INDARKERIAREN ARLOAREN ARABERA 2023

| 2023                                               | BIKOTEKIDEA EDO<br>BIKOTEKIDE OHIA | FAMILIA<br>BARNEKOA | FA GUZTIRA  |
|----------------------------------------------------|------------------------------------|---------------------|-------------|
| Nagusiki indarkeria fisikoa pairatu dutenen %      | 20,5                               | 33,3                | <b>22,0</b> |
| Nagusiki indarkeria psikologikoa pairatu dutenen % | 78,6                               | 66,7                | <b>75,4</b> |
| Nagusiki indarkeria ekonomikoa pairatu dutenen %   | 0,9                                | 33,3                | <b>2,5</b>  |
| Nagusiki sexu-indarkeria pairatu dutenen %         | 0,0                                | 0,0                 | <b>0,0</b>  |
| Nagusiki beste indarkeriak pairatu dituztenen %    | 0,0                                | 0,0                 | <b>0,0</b>  |
| Guztira                                            | 100                                | 100                 | <b>100</b>  |

FORU ALDUNDIETAKO BEREHALAKO HARRERA EGITEKO  
ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK  
ERASOTZAILEAREN ARABERA. 2023

| BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE<br>OHIAREN INDARKERIA                            | 2023       |
|--------------------------------------------------------------------------------|------------|
| Ezkontidea /Izatezko bikotekidea<br>/Bikotekidea/ Mutil-laguna                 | 94,4       |
| Ezkontide ohia/ Izatezko bikotekide<br>ohia/ Bikotekide ohia/ Mutil-lagun ohia | 5,6        |
| Guztira                                                                        | 100        |
| FAMILIA BARRUKO INDARKERIA                                                     |            |
| Arbasoa (aita/aitona)                                                          | 37,5       |
| Ondorengoa (Semea/Biloba)                                                      | 31,3       |
| Beste senide batzuk                                                            | 31,3       |
| Guztira                                                                        | 100        |
| SEXU INDARKERIA                                                                |            |
| Pertsona ezagunak                                                              | 30,0       |
| Pertsona ezezagunak                                                            | 70,0       |
| Beste harreman mota bat                                                        | 0,0        |
| Guztira                                                                        | <b>100</b> |

Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren partetik jasandako indarkeria kasuen % 94,4ean, erasotzailea biktimaren egungo bikotekidea da; aldiz, kasuen % 5,6ean, erasotzaileak bikotekide ohiak dira.

Emakumeen aurkako familia barruko indarkeria-kasuen % 37,5ean, erasotzailea arbaso bat da (aita, aitona). Erasotzaileen % 31,3 ondorengoak izan dira eta kasuen beste % 31,3an, erasotzailea beste senide bat izan da (anaia, osaba, edo suhia, besteak beste).

Sexu-indarkeriari dagokionez, erregistratutako kasuen % 30,0an, erasotzailea biktimak ezagutzen duen gizon bat izan da eta kasuen % 70,0an ezezagun bat.

Lurraldea gorabehera, 21 eta 40 urteko emakumeak dira gehiengoa baliabide hauetan (gutzizkoaren % 68,1).

FORU ALDUNDIETAKO BEREHALAKO HARRERA EGITEKO ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK LURRALDE HISTORIKOAREN  
ETA ADINAREN ARABERA 2023

| 2023                         | AFA  | BFA  | GFA  | FA GUZTIRA  |
|------------------------------|------|------|------|-------------|
| 14 urte baino gutxiagokoen % | 0,0  | 0,0  | 0,0  | <b>0,0</b>  |
| 14-17 urtekoen %             | 0,0  | 0,0  | 0,0  | <b>0,0</b>  |
| 18-20 urtekoen %             | 4,8  | 5,7  | 10,0 | <b>6,5</b>  |
| 21-30 urtekoen %             | 19,4 | 33,8 | 48,3 | <b>33,7</b> |
| 31-40 urtekoen %             | 45,2 | 34,4 | 23,3 | <b>34,4</b> |
| 41-50 urtekoen %             | 19,4 | 19,1 | 15,0 | <b>18,3</b> |
| 51-64 urtekoen %             | 9,7  | 5,1  | 3,3  | <b>5,7</b>  |
| 65 urte edo gehiagokoen %    | 1,6  | 1,9  | 0,0  | <b>1,4</b>  |
| Guztira                      | 100  | 100  | 100  | <b>100</b>  |

Indarkeria-motei erreparatuz gero, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktima izan diren emakume gehienek 18 eta 40 urte artean dituzte (% 73,2). Familia barruko indarkeriaren kasuan, gehienek 18 eta 20 urte artean dituzte (% 25,0) eta % 12,6 50 urtetik gorakoak dira. Gainera, baliabide horietan erregistratutako sexu-indarkeriaren biktimen % 76,9k 18 eta 30 urte artean dituzte.

FORU ALDUNDIETAKO BEREHALAKO HARRERA EGITEKO ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK INDARKERIA MOTAREN ETA ADINAREN ARABERA 2023

| 2023                         | BIKOTEKIDEA EDO BIKOTEKIDE OHIA | FAMILIA BARNEKOA | SEXUALA | FA GUZTIRA |
|------------------------------|---------------------------------|------------------|---------|------------|
| 14 urte baino gutxiagokoen % | 0,0                             | 0,0              | 0,0     | 0,0        |
| 14-17 urtekoen %             | 0,0                             | 0,0              | 0,0     | 0,0        |
| 18-20 urtekoen %             | 4,8                             | 25,0             | 15,4    | 6,5        |
| 21-30 urtekoen %             | 32,4                            | 31,3             | 61,5    | 33,7       |
| 31-40 urtekoen %             | 36,0                            | 31,3             | 7,7     | 34,4       |
| 41-50 urtekoen %             | 19,6                            | 0,0              | 15,4    | 18,3       |
| 51-64 urtekoen %             | 6,0                             | 6,3              | 0,0     | 5,7        |
| 65 urte edo gehiagokoen %    | 1,2                             | 6,3              | 0,0     | 1,4        |
| Guztira                      | 100                             | 100              | 100     | 100        |

Bestalde, bildutako datuek erakusten dute **baliabide horietan artatutako 117 emakumek seme-alaba adingabeak dituztela haien kargu**, hau da, artatutako kasuen % 43,0k. Seme-alaba adingabeen kargura dauden emakumeen ehunekoa apur bat altuagoa da Araban (guztizkoaren % 48,0) eta Bizkaian (guztizkoaren % 46,7).

**Guztira 92 adingabe daude emakume horien kargura, eta horietatik % 56,5 neskak dira. Gainera, bi emakumek beraiekin bizi diren adin nagusiko seme-alabak dituzte.**

| 2023                                                                                                           | AFA       | BFA | GFA       | FA GUZTIRA |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|-----|-----------|------------|
| <b>Beren kargu seme-alaba adingabeak dituzten artatutako emakume berriak</b>                                   | 28        | 0   | 23        | 51         |
| Seme-alabak haien kargu dituzten artatutako emakume berrien % kasu berrien guztizkoaren gainean                | 48,3      | -   | 67,6      | 55,4       |
| <b>Artatutako emakume berrien kargura dauden seme-alaba adingabeen kopurua</b>                                 | <b>58</b> | -   | <b>34</b> | <b>92</b>  |
| Alaba adingabeen % artatutako emakume berrien kargura dauden seme-alaba adingabeen guztizko kopuruaren gainean | 58,6      | -   | 52,9      | 56,5       |

Artatutako emakumeen jatorriari dagokionez, % 65,6 atzerritarrak dira. **Atzerriko emakumeak apur bat gehiago dira Arabako baliabideetan** (% 66,1), **Gipuzkoan, aldiz, artatutako emakume atzerritarren kopurua baxuagoa da** (% 65,0).

FORU ALDUNDIETAKO BEREHALAKO HARRERA EGITEKO ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK LURRALDE HISTORIKOAREN  
ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA 2023

|                                | 2023 | AFA  | BFA | GFA  | FA GUZTIRA  |
|--------------------------------|------|------|-----|------|-------------|
| Nazionalitate espainiarraren % |      | 33,9 |     | 35,0 | <b>34,4</b> |
| Atzerriko nazionalitatearen %  |      | 66,1 |     | 65,0 | <b>65,6</b> |
| Guztira                        |      | 100  | -   | 100  | <b>100</b>  |

Indarkeriaren arloa kontuan hartuta, atzerriko emakumeak gehiengoa dira arlo guztietan.

FORU ALDUNDIETAKO BEREHALAKO HARRERA EGITEKO ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK INDARKERIAREN ARLOAREN  
ETA JATORRIAREN ARABERA 2023

|                                | 2023 | BIKOTEKIDEA EDO<br>BIKOTEKIDE OHIA | FAMILIA<br>BARNEKO | SEXUALA | FA GUZTIRA  |
|--------------------------------|------|------------------------------------|--------------------|---------|-------------|
| Nazionalitate espainiarraren % |      | 34,0                               | 33,3               | 30,8    | <b>34,2</b> |
| Atzerriko nazionalitatearen %  |      | 66,0                               | 66,7               | 69,2    | <b>65,6</b> |
| Guztira                        |      | 100                                | 100                | 100     | <b>100</b>  |

Oharra: BFAko datuak soilik daude.

Emakumeen egoera administratiboari erreparatuz gero, baliabide horretan artatutako bost emakumetik bat inguru (% 19,7) egoera irregularrean dago. Egoera administratibo irregularrean dauden emakumeen kopurua altuagoa da Araban (% 21,0).

FORU ALDUNDIETAKO BEREHALAKO HARRERA EGITEKO ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK LURRALDE HISTORIKOAREN  
ETA EGOERA ADMINISTRATIBOAREN ARABERA 2023

|                               | 2023 | AFA  | BFA | GFA  | FA GUZTIRA  |
|-------------------------------|------|------|-----|------|-------------|
| Egoera erregularrean dauden % |      | 79,0 | -   | 81,7 | <b>80,3</b> |
| Egoera irregularrean dauden % |      | 21,0 | -   | 18,3 | <b>19,7</b> |
| Guztira                       |      | 100  | -   | 100  | <b>100</b>  |

Oharra: BFAko datuak soilik daude.

Egoera irregularrean dauden emakumeen presentzia altuagoa da sexu-indarkeria kasuetan (% 33,3).

FORU ALDUNDIETAKO BEREHALAKO HARRERA EGITEKO ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK INDARKERIAREN ARLOAREN  
ETA EGOERA ADMINISTRATIBOAREN ARABERA 2023

|                               | 2023 | BIKOTEKIDEA EDO<br>BIKOTEKIDE OHIA | FAMILIA<br>BARNEKO | SEXUALA | FA GUZTIRA  |
|-------------------------------|------|------------------------------------|--------------------|---------|-------------|
| Egoera erregularrean dauden % |      | 80,3                               | 83,9               | 66,7    | <b>80,3</b> |
| Egoera irregularrean dauden % |      | 19,7                               | 16,1               | 33,3    | <b>19,7</b> |
| Guztira                       |      | 100                                | 100                | 100     | <b>100</b>  |

Oharra: BFAko datuak soilik daude.

Azkenik, aipatu behar da **baliabide horietan artatutako 21 emakume berrik desgaitasun motaren bat duela, hau da emakume guztien % 7,5ek.**

## FORU ALDUNDIAK

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroak.

## BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroak espezializatutako zentroak dira, eta indarkeria matxistaren biktimak eta haien kargu dauden mendeko pertsonak artatzen dituzte.

## BALIABIDEAREN DATU OROKORRAK


**2023an foru-aldundiek 2.350.047,99 euroko inbertsioa egin dute indarkeria matxistaren biktimentzako egoitza-zentroetan.** BFAk 865.921,80 € euro bideratu ditu, hau da, aldundi horretako Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sailari dagokion gastuaren % 1,2 da. AFAk 798.295,10 euroko inbertsioa egin du, hau da baliabideari dagokion Gizarte Politiken Sailaren guztizko gastuaren % 0,3. Bestalde, GFAk 685.831,08 € gastatu ditu, Gizarte Politiken Sailaren gastu osoaren % 0,1.

2023an egoitza-zerbitzuetara bideratutako gastu guztia 2022koa baino baxuagoa da; 2.511.568,50 eurotik 2.350.047,99 eurora jaitsi da, hau da, % 6,4. Beherakada horren arrazoi nagusia da BFaren gastua murriztu egin dela; 2022an 1.347.763 €ko gastua egitetik 2023an 865.921,80 €ko gastua egitera, hau da, % 35,7ko beherakada.

| 2023                                                                     | AFA                  | BFA                | GFA                 | FA GUZTIRA           |
|--------------------------------------------------------------------------|----------------------|--------------------|---------------------|----------------------|
| <b>BALIABIDEAREN GUZTIZKO GASTUA</b>                                     | <b>798.295,108 €</b> | <b>865.921,8 €</b> | <b>685.831,08 €</b> | <b>2.350.047,99€</b> |
| Baliabidearen mende dagoen sailaren edo departamentuaren guztizko gastua | 269.009.835 €        | 75.085.822€        | 515.224.247 €       | 859.319.905 €        |
| Zerbitzuaren gastuaren proportzioa sail edo departamentuarekiko          | % 0,3                | % 1,2              | % 0,1               | % 0,3                |

BFaren gastu osoa Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sailari dagokio, AFaren eta GFaren kasuan berriz, Gizarte Politiken Sailari egiten dio erreferentzia.

## FORU ALDUNDIETAKO EGONALDI ERTAIN-LUZETAKO EGOITZA ZENTROETAKO GASTUAREN BILAKAERA 2020-2023



Oharra: AFAk ez zuen baliabide horren gastuaren informaziorik eman 2019an.


Guztira **58** profesionalak egiten dute lan foru aldundietako egoitza-zentroetan. Emakumeak dira guztiak eta emakumeen aurkako indarkeriaren eta/edo berdintasunaren gaineko prestakuntza dute.

2023an, profesionalen kopurua % 13,7 igo da aurreko urtearekin alderatuta, eta 51 pertsonatik 58 izatera igaro da. Igoera hori BFAko baliabideetako profesionalen kopuruaren igoeragatik izan da (20 izatetik 27 izatera igaro da).

| 2023                                                                                            | AFA       | BFA       | GFA       | FA GUZTIRA |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|-----------|-----------|------------|
| <b>BALIABIDEARI ATXIKITA DAUDEN LANGILEEN GUZTIZKO KOPURUA</b>                                  | <b>21</b> | <b>27</b> | <b>10</b> | <b>58</b>  |
| Baliabidean dauden emakume profesionalen %                                                      | 100       | 100       | 100       | 100        |
| Emakumeen aurkako indarkerian eta/edo berdintasunean prestakuntza duten baliabideko langileen % | 100       | 100       | 100       | 100        |

BFAko profesionalen kopurua baliabide hori kudeatzen duten enpresetako langileen kopurua da, eta ez dira kontuan hartzen baliabide horretan esku hartzen duten administrazioako langileak.

FORU ALDUNDIETAKO EGONALDI ERTAIN-LUZETAKO EGOITZA ZENTROETAKO LANGILEEN BILAKAERA 2020-2023




Oharra: AFAk ez zuen baliabide horren gastuaren informaziorik eman 2019an.

Epe ertain eta luzeko foru-aldundietako harrera-zentroetan **91 plaza** inguru daude, eta guztiak indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeentzako espezifikoak dira. 2022an baino bat gutxiago.

| 2023                                               | AFA       | BFA       | GFA       | FA GUZTIRA |
|----------------------------------------------------|-----------|-----------|-----------|------------|
| <b>BALIABIDEAN/ZERBITZUAN DAGOEN PLAZA KOPURUA</b> | <b>24</b> | <b>26</b> | <b>41</b> | <b>91</b>  |
| Indarkeriaren biktimentzako berariazko plazen %    | 100       | 100       | 63,4      | 83,5       |

Oharra: 2021ean, AFAk 2 egoitza-zentro zituen; batek 26 plaza zituen eta besteak 8 elkarbizitza-unitate (16 plaza gehienez ere).



### BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK<sup>5</sup>

2023an guztira **78** emakume artatu dituzte foru-aldundiek kudeatzen dituzten egonaldi ertain eta luzeko egoitza-baliabideetan, eta horietatik **48** (% 61,5) baliabidera lehen aldiz joan ziren emakumeak izan ziren. Gainera, baliabide horietan emakume horien **72** seme-alaba artatu dituzte, eta erdiak (% 52,8) 2023an lehen aldiz artatutako kasuak dira.


Guztira, **1.590** pertsona artatu dituzte foru aldundietako egonaldi ertain eta luzetako egoitza-baliabideetan, eta kasuen % 57,3 (86) berriak izan dira.

| 2023                                                                         | AFA       | BFA       | GFA       | FA GUZTIRA |
|------------------------------------------------------------------------------|-----------|-----------|-----------|------------|
| ARTATUTAKO EMAKUME GUZTIAK                                                   | 22        | 19        | 37        | 78         |
| <b>ARTATUTAKO EMAKUME BERRI GUZTIAK</b>                                      | <b>13</b> | <b>9</b>  | <b>26</b> | <b>48</b>  |
| Artatutako EMAKUME BERRIEN %, artatutako emakumeen guztizkoaren gainean      | 59,1      | 47,4      | 70,3      | 61,5       |
| ARTATUTAKO SEME-ALABAK, GUZTIRA                                              | 26        | 21        | 25        | 72         |
| <b>ARTATUTAKO SEME-ALABA BERRI GUZTIAK</b>                                   | <b>13</b> | <b>7</b>  | <b>18</b> | <b>38</b>  |
| Artatutako SEME ALABA BERRIEN %, artatutako seme-alaben guztizkoaren gainean | 50,0      | 33,3      | 72,0      | 52,8       |
| ARTATUTAKO PERTSONAK, GUZTIRA                                                | 48        | 40        | 62        | 150        |
| <b>ARTATUTAKO PERTSONA BERRI GUZTIAK</b>                                     | <b>26</b> | <b>16</b> | <b>44</b> | <b>86</b>  |
| PERTSONA berrien % guztizkoaren gainean                                      | 54,2      | 40,0      | 71,0      | 57,3       |

Aurreko urtearekin alderatuta, foru-aldundietako egonaldi ertain eta luzetarako egoitza-baliabideetan artatutako emakume berrien guztizko kopurua % 29,4 jaitsi da, eta 68 emakume izatetik 48 izatera igaro da. Artatutako kasu kopuruen beherakada hiru lurraldeetan gertatu da, baina Bizkaian handiagoa izan da beherakada (% 66,6) Araba (% 7,1) edo Gipuzkoan (% 3,7) baino.


<sup>5</sup>Baliabide horretako datuak interpretatzeko, kontuan izan behar da BFAk indarkeria matxistaren biktimekin esku hartzeko eredu aldatu duela azken hilabeteetan, eta horrek ere eragina duela zerbitzu-ereduetan, batez ere, egonaldi ertain eta luzeko egoitza-baliabide horretan.

FORU ALDUNDIETAKO BEREHALAKO HARRERA EGITEKO ZERBITZUETAN ARTATU DITUZTEN EMAKUME BIKTIMA BERRIEN BILAKAERA. 2020-2023




Artatutako emakume berrien kopuruarekin gertatzen denarekin alderatuta, baliabide horietan artatutako seme-alaben kopurua % 35,6 jaitsi da, eta 59 kasu izatetik 38 izatera igaro da. Lurraldeka, BFA da artatutako adingabeen kasuen kopurua gehien jaitsi den erakundea (2022an 25 eta 2023an 7). AFAn ere jaitsi egin da artatutako kasu kopurua, baina gutxiago (22tik 13ra pasatu da). BFaren kasuan, artatutako seme-alaben kopurua igo egin da (12tik 18ra).

FORU ALDUNDIETAKO EGONALDI ERTAIN-LUZEEKO EGOITZA ZENTROETAN ARTATU DITUZTEN EMAKUME BERRIEN BILAKAERA 2020-2023



Foru aldundietako egoitza-zentroetara jo duten 48 emakume berrien % 54,6 Gipuzkoako baliabideetan artatu dituzte; % 27,1 Araban eta % 18,8 Bizkaian.

FORU ALDUNDIETAKO EGONALDI ERTAIN ETA LUZEKO EGOITZA-ZENTROETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIEN BANAKETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2023





**Baliabide horietara jotzen duten emakume gehienek bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik jasan dute indarkeria (% 85,4).** Familia barruko indarkeriaren biktimak emakume horien guztien % 10,4 dira eta sexu-indarkeriarenak emakume horien guztien % 4,2.

Bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria jasan duten emakumeen kopurua handiagoa da AFaren baliabideetan (% 92,3 eta % 7,4, hurrenez hurren). Aldiz, egoitza-baliabide horietako familia barruko indarkeria-kasu gehienak BFAk artatu ditu (% 22,2).

FORU ALDUNDIETAKO EGOITZA ZENTROETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK LURRALDE HISTORIKOAREN ETA INDARKERIAREN ARLOAREN ARABERA. 2023

| 2023                                                  | AFA  | BFA  | GFA  | FA GUZTIRA  |
|-------------------------------------------------------|------|------|------|-------------|
| Bikotekidearen edo bikotekide-ohiaren indarkeriaren % | 92,3 | 77,8 | 84,6 | <b>85,4</b> |
| Familia barruko indarkeriaren %                       | 0,0  | 22,2 | 11,5 | <b>10,4</b> |
| Sexu-indarkeriaren %                                  | 7,7  | 0,0  | 3,8  | <b>4,2</b>  |
| Beste indarkeria modu batzuen %                       | 0,0  | 0,0  | 0,0  | <b>0,0</b>  |
| Guztira                                               | 100  | 100  | 100  | <b>100</b>  |

Baliabide horietan artatutako emakumeak indarkeria psikologikoaren biktimak izan dira gehienbat (% 60,0) edo indarkeria fisikoarenak (% 30,0). Indarkeria mota hori pairatzen den arloaren artean badira aldeak. Hala, zentro horietan artatutako emakumeek pairatutako indarkeria nagusia bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskutik jasandako indarkeria psikologikoa da (% 71,9); familia barruko indarkerian ere gauza bera gertatzen da (% 66,7).

FORU ALDUNDIETAKO EGOITZA ZENTROETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK, PAIRATU DUTEN INDARKERIA MOTA NAGUSIAREN ETA INDARKERIAREN ARLOAREN ARABERA 2023

| 2023                                               | BIKOTEKIDEA EDO BIKOTEKIDE OHIA | FAMILIA BARNEKOAK | FA GUZTIRA  |
|----------------------------------------------------|---------------------------------|-------------------|-------------|
| Nagusiki indarkeria fisikoa pairatu dutenen %      | 28,1                            | 33,3              | <b>30,0</b> |
| Nagusiki indarkeria psikologikoa pairatu dutenen % | 71,9                            | 66,7              | <b>60,0</b> |
| Nagusiki indarkeria ekonomikoa pairatu dutenen %   | 6,3                             | 0,0               | <b>10,0</b> |
| Nagusiki sexu-indarkeria pairatu dutenen %         | 0,0                             | 0,0               | <b>0,0</b>  |
| Nagusiki beste indarkeriak pairatu dituztenen %    | 0,0                             | 0,0               | <b>0,0</b>  |
| Guztira                                            | 100                             | 100               | <b>100</b>  |

Oharra: BFAk ez ditu datu horiek ematen.

FORU ALDUNDIETAKO EGOITZA ZENTROETAN ARTATUTAKO  
EMAKUME BERRIAK ERASOTZAILEAREN ARABERA. 2023

| BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE<br>OHIAREN INDARKERIA                            | 2023  |
|--------------------------------------------------------------------------------|-------|
| Ezkontidea /Izatezko bikotekidea<br>/Bikotekidea/ Mutil-laguna                 | 82,9  |
| Ezkontide ohia/ Izatezko bikotekide<br>ohia/ Bikotekide ohia/ Mutil-lagun ohia | 17,1  |
| Guztira                                                                        | 100   |
| FAMILIA BARRUKO INDARKERIA                                                     |       |
| Arbasoa (aita/aitona)                                                          | 20,0  |
| Ondorengoa (Semea/Biloba)                                                      | 40,0  |
| Beste senide batzuk                                                            | 40,0  |
| Guztira                                                                        | 100   |
| SEXU INDARKERIA                                                                |       |
| Pertsona ezagunak                                                              | 0,0   |
| Pertsona ezezagunak                                                            | 100,0 |
| Beste harreman mota bat                                                        | -     |
| Guztira                                                                        | 100   |

Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren partetik jasandako indarkeria kasuen hamar kasutik zortzitan erasotzailea biktimaren orduko bikotekidea da, eta kasuen % 17,1ean, erasotzailea bikotekide ohia da.

Bestalde, familia barruko indarkeria-kasuen (bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria kenduta) % 40an, erasotzailea biktimaren ondorengoa zen (semea/biloba); beste % 40ean beste senideren bat eta % 20ean ondorengoa (aita/aitona). Aldiz, sexu-indarkeriaren kasuan, erasotzaile guztiak ezezagunak ziren.

Lurraldea gorabehera, 21 eta 30 urteko emakumeak dira ia erdia baliabide horietan (% 45,8). Beste % 33,3k 31 eta 54 urte artean ditu. 18 eta 20 urte bitarteko neska gazteak dira erregistratutako kasu guztien % 6,3.

FORU ALDUNDIETAKO EGOITZA ZENTROETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK LURRALDE HISTORIKOAREN ETA ADINAREN  
ARABERA 2023

| 2023                         | AFA  | BFA  | GFA  | FA GUZTIRA |
|------------------------------|------|------|------|------------|
| 14 urte baino gutxiagokoen % | 0,0  | 0,0  | 0,0  | 0,0        |
| 14-17 urtekoen %             | 0,0  | 0,0  | 0,0  | 0,0        |
| 18-20 urtekoen %             | 7,7  | 0,0  | 7,7  | 6,3        |
| 21-30 urtekoen %             | 38,5 | 44,4 | 50,0 | 45,8       |
| 31-40 urtekoen %             | 38,5 | 44,4 | 26,9 | 33,3       |
| 41-50 urtekoen %             | 7,7  | 11,1 | 15,4 | 12,5       |
| 51-64 urtekoen %             | 7,7  | 0,0  | 0,0  | 2,1        |
| 65 urte edo gehiagokoen %    | 0,0  | 0,0  | 0,0  | 0,0        |
| Guztira                      | 100  | 100  | 100  | 100        |

Indarkeria motei erreparatuz, baliabide horietan artatu dituzten eta bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria pairatu duten emakume gehienek 21 eta 40 urte artean dituzte (% 82,9). Familia barruko indarkeriagatik baliabide horietan artatutako emakumeek profil gazteagoa dute eta sexu-indarkeriaren kasuan, kasu guztiak 18 eta 30 urte arteko adin tartekoak dira.

## FORU ALDUNDIETAKO EGOITZA ZENTROETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK INDARKERIAREN ARLOAREN ETA ADINAREN ARABERA 2023

| 2023                            | BIKOTEKIDEA EDO<br>BIKOTEKIDE OHIA | FAMILIA<br>BARNEKOA | SEXUALA | BESTE<br>MODU<br>BATZUK | FA GUZTIRA |
|---------------------------------|------------------------------------|---------------------|---------|-------------------------|------------|
| 14 urte baino<br>gutxiagokoen % | 0,0                                | 0,0                 | 0,0     | -                       | 0,0        |
| 14-17 urtekoen %                | 0,0                                | 0,0                 | 0,0     | -                       | 0,0        |
| 18-20 urtekoen %                | 0,0                                | 40,0                | 50,0    | -                       | 6,3        |
| 21-30 urtekoen %                | 46,3                               | 40,0                | 50,0    | -                       | 45,8       |
| 31-40 urtekoen %                | 36,6                               | 20,0                | 0,0     | -                       | 33,3       |
| 41-50 urtekoen %                | 14,6                               | 0,0                 | 0,0     | -                       | 12,5       |
| 51-64 urtekoen %                | 2,4                                | 0,0                 | 0,0     | -                       | 2,1        |
| 65 urte edo<br>gehiagokoen %    | 0,0                                | 0,0                 | 0,0     | -                       | 0,0        |
| Guztira                         | 100                                | 100                 | 100     | -                       | 100        |

Bestalde, bildutako datuek erakusten dute **egoitza-zentro horietan artatutako 24 emakumek seme-alaba adingabeak dituztela beren kargu**, hau da, artatutako kasu guztien % 35,3k. Lurraldeen arabera, adingabeak ardurapean dituzten artatutako emakumeen kopurua altuagoa da Bizkaian (% 55,6).

**Guztira, 29 haur eta nerabe adingabe daude foru-baliabide horietan artatutako emakumeen kargura, eta horietatik % 45,0 neskak dira.**

| 2023                                                                                                           | AFA       | BFA      | GFA       | FA<br>GUZTIRA |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|----------|-----------|---------------|
| <b>Beren kargu seme-alaba adingabeak dituzten artatutako emakume berriak</b>                                   | <b>7</b>  | <b>0</b> | <b>13</b> | <b>20</b>     |
| Seme-alabak haien kargu dituzten artatutako emakume berrien % kasu berrien guztizkoaren gainean                | 54        | -        | 50        | 42            |
| <b>Artatutako emakume berrien kargura dauden seme-alaba adingabeen kopurua</b>                                 | <b>12</b> | <b>0</b> | <b>17</b> | <b>29</b>     |
| Alaba adingabeen % artatutako emakume berrien kargura dauden seme-alaba adingabeen guztizko kopuruaren gainean | 50        | -        | 41        | 45            |

Jatorriari dagokionez, **egoitza-baliabide horietan artatutako hamar emakumetik zortzi baino gehiago atzerritarrak dira**. Atzerriko emakumeen ehunekoa apur bat altuagoa da AFAk kudeatutako zentroetan (% 84,6).

## FORU ALDUNDIETAKO EGOITZA ZENTROETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK LURRALDE HISTORIKOAREN ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA 2023

| 2023                           | AFA  | BFA | GFA  | FA GUZTIRA |
|--------------------------------|------|-----|------|------------|
| Nazionalitate espainiarraren % | 15,4 | -   | 69,2 | 17,9       |
| Atzerriko nazionalitatearen %  | 84,6 | -   | 30,8 | 82,1       |
| Guztira                        | 100  | -   | 100  | 100        |

Indarkeria motaren arabera, bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik jasandako indarkeriagatik baliabide horretan artatutako kasuen % 82,4tan emakumeak atzerritarrek dira. Familia barruko indarkeriagatik artatutako kasuetan % 66,7 eta % 50 sexu-indarkeriaren kasuetan.

FORU ALDUNDIETAKO EGOITZA ZENTROETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK INDARKERIAREN ARLOAREN ETA JATORRIAREN ARABERA 2023

| 2023                           | BIKOTEKIDEA EDO BIKOTEKIDE OHIA | FAMILIA BARNEKOA | SEXUALA | BESTE MODU BATZUK | FA GUZTIRA |
|--------------------------------|---------------------------------|------------------|---------|-------------------|------------|
| Nazionalitate espainiarraren % | 17,6                            | 33,3             | 0,0     | -                 | 17,9       |
| Atzerriko nazionalitatearen %  | 82,4                            | 66,7             | 50,0    | -                 | 82,1       |
| Guztira                        | 100                             | 100              | 100     | -                 | 100        |

Baliabide horietan artatutako emakumeen % 23,1 inguru egoera administratibo irregularrean dago. Egoera irregularrean dauden emakumeen kopurua altuagoa da GFAko baliabideetan (% 60).

FORU ALDUNDIETAKO EGOITZA ZENTROETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK LURRALDE HISTORIKOAREN ETA EGOERA ADMINISTRATIBOAREN ARABERA. 2023

| 2023                          | AFA  | BFA | GFA  | FA GUZTIRA |
|-------------------------------|------|-----|------|------------|
| Egoera erregularrean dauden % | 92,3 | -   | 40,0 | 76,9       |
| Egoera irregularrean dauden % | 7,7  | -   | 60,0 | 23,1       |
| Guztira                       | 100  | 100 | 100  | 100        |

Egoera administratiboari dagokionez, egoera administratibo irregularra duten emakumeen % 23,1 bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik jasandako indarkeriagatik artatzen dute.

FORU ALDUNDIETAKO EGOITZA ZENTROETAKO EMAKUME BERRIAK INDARKERIAREN ARLOAREN ETA EGOERA ADMINISTRATIBOAREN ARABERA 2023

| 2023                          | BIKOTEKIDEA EDO BIKOTEKIDE OHIA | FAMILIA BARNEKOA | SEXUALA | BESTE MODU BATZUK | FA GUZTIRA |
|-------------------------------|---------------------------------|------------------|---------|-------------------|------------|
| Egoera erregularrean dauden % | 82,4                            | 66,6             | 50,0    | -                 | 76,9       |
| Egoera irregularrean dauden % | 17,6                            | 33,3             | 50,0    | -                 | 23,1       |
| Guztira                       | 100                             | 100              | 100     | -                 | 100        |

Azkenik, 2023an **desgaitasuna duten lau emakume soilik artatu dituzte baliabide horietan, hau da, guztien % 8,3.**

## FORU ALDUNDIAK

Indarkeria matxistaren egoerei laguntza soziojuridikoa emateko zerbitzua

## BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA

Foru Aldundietako aholkularitza soziojuridikorako zerbitzuek orientazio juridikoa eskaintzen dute indarkeria matxistaren egoeren ekinbideen eta ebazpenen inguruan. Programa horiek banaka eta modu pertsonalizatuan artatzen dituzte informazio legala eta arlo juridikoaren eta familia-eskubideen inguruko baliabideei buruzko aholkularitza nahi duten indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak.

## BALIABIDEAREN DATU OROKORRAK

**2023an, aldundiek 486.584,64 euro bideratu dituzte indarkeria matxistaren biktimentzako aholkularitza soziojuridikorako zerbitzuen finantzaketara.** Gastu hori baliabide horietan arduratzen diren sailen edo arloen aurrekontu osoaren % 0,06 baino ez da.


2022arekin alderatuta, **baliabide horren gastua % 209,3 igo da. Hazkunde hori ez da homogeneous izan lurraldeen artean.** GFAk izan du hazkunderik handiena eta 2022an 49.829,89 €-ko gastua egitetik 2023an 365.275,83 €-ko gastua egitera igaro da, Garaitu zerbitzua sartu baita. Bestalde, BFAk 2022an baliabide horretara bideratu zuen gastu berbera mantendu du. Araban aldiz, gastua % 33,5 igo da aurreko urtearekin alderatuta.

|                                                                          | 2023 | AFA                | BFA                | GFA                 | FA GUZTIRA          |
|--------------------------------------------------------------------------|------|--------------------|--------------------|---------------------|---------------------|
| <b>BALIABIDEAREN GUZTIZKO GASTUA</b>                                     |      | <b>55.308,81 €</b> | <b>66.000,00 €</b> | <b>365.275,83 €</b> | <b>486.584,64 €</b> |
| Baliabidearen mende dagoen sailaren edo departamentuaren guztizko gastua |      | 269.009.835 €      | 75.085.822€        | 515.224.247€        | 859.319.905 €       |
| Zerbitzuaren gastuaren proportzioa sail edo departamentuarekiko          |      | % 0,02             | % 0,09             | % 0,07              | % 0,06              |

BFaren gastu osoa Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sailari dagokio, AFaren eta GFaren kasuan berriz, Gizarte Politiken Sailari egiten dio erreferentzia.

GFA: Urrats kontratuaren exekuzioa eta Garaitu kontratuaren exekuzioa.

FORU ALDUNDIETAKO EGONALDI ERTAIN-LUZEEKO EGOITZA ZENTROETAKO GASTUAREN BILAKAERA  
2020-2023




Guztira **13 profesional** egiten dute lana **foru-aldundietako aholkularitza juridikoan**, 2022an baino pertsona batek gehiagok. Profesional guztiak emakumezkoak dira, eta prestakuntza dute emakumeen aurkako indarkeria matxistan zein berdintasunean.

| 2023                                                                                            | AFA      | BFA      | GFA      | FA GUZTIRA |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------|----------|----------|----------|------------|
| <b>BALIABIDEARI ATXIKITA DAUDEN LANGILEEN GUZTIZKO KOPURUA</b>                                  | <b>3</b> | <b>2</b> | <b>8</b> | <b>13</b>  |
| Baliabidean dauden emakume profesionalen %                                                      | 100      | 100      | 100      | 100        |
| Emakumeen aurkako indarkerian eta/edo berdintasunean prestakuntza duten baliabideko langileen % | 100      | 100      | 100      | 100        |

BFAko profesionalen kopurua baliabide hori kudeatzen duten enpresetako langileen kopurua da, eta ez dira kontuan hartzen baliabide horretan esku hartzen duten administrazioari langileak.

FORU ALDUNDIETAKO AHOALKULARITZA SOZIOJURIDIKOKO ZERBITZUETAKO LANGILEEN KOPURUAREN BILAKAERA. 2020-2023




## BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK

Aholkularitza juridikorako baliabideetan 376 emakume artatu dituzte guztira 2022an, eta horietatik 267 (% 71,0) baliabidera lehen aldiz joandako emakumeak ziren.


| 2023                                                                         | AFA       | BFA        | GFA        | FA GUZTIRA |
|------------------------------------------------------------------------------|-----------|------------|------------|------------|
| ARTATUTAKO EMAKUME GUZTIAK                                                   | 34        | 146        | 196        | 376        |
| <b>ARTATUTAKO EMAKUME BERRI GUZTIAK</b>                                      | <b>10</b> | <b>134</b> | <b>123</b> | <b>267</b> |
| Artatutako EMAKUME BERRIEN %, artatutako emakumeen guztizkoaren gainean      | 29,4      | 91,8       | 62,8       | 71,0       |
| ARTATUTAKO SEME-ALABAK, GUZTIRA                                              | 4         | -          | -          | -          |
| <b>ARTATUTAKO SEME-ALABA BERRI GUZTIAK</b>                                   | -         | -          | -          | -          |
| Artatutako SEME ALABA BERRIEN %, artatutako seme-alaben guztizkoaren gainean | -         | -          | -          | -          |
| ARTATUTAKO PERTSONAK, GUZTIRA                                                | 38        | 146        | 196        | 380        |
| <b>ARTATUTAKO PERTSONA BERRI GUZTIAK</b>                                     | <b>10</b> | <b>134</b> | <b>123</b> | <b>267</b> |
| PERTSONA berrien % guztizkoaren gainean                                      | 26,3      | 91,8       | 62,8       | 70,3       |

**2023an, aholkularitza juridikorako aldundiaren zerbitzuetan artatutako emakume berri guztien kopurua % 7,7 igo da 2022ari dagokionez.** Hala ere, hazkunde hori ez da homogenea izan lurraldeen artean. GFAk eta BFAk kudeatutako kasuak % 16 eta % 4,7 igo dira, hurrenez hurren. Aldiz, AFAn nabarmen jaitsi dira kasuak, % 28,6.



**Zerbitzu horietara joan diren 248 emakume berrien ia erdiak Bizkaiko (% 50,2) eta Gipuzkoako (% 46,2) baliabideetan artatu dituzte.** Bestalde, Araban artatutako kasuak guztizkoaren % 3,7 baino ez dira.

FORU ALDUNDIETAKO AHOALKULARITZA SOZIOJURIDIKOKO ZERBITZUETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIEN BANAKETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2023



**Baliabide horietara jotzen duten hamar emakumetik zazpik baino gehiagok bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik pairatu dute indarkeria (% 73,6).** Gainera, % 20,1ek familia barruko indarkeria pairatu du eta % 6,3k sexu-indarkeria.

Bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik jasandako indarkeriarengatik aholkularitza juridikoko zerbitzuetara joaten diren emakumeen ehunekoa altuagoa da Araban (% 90,0). Aldiz, familia barruko indarkeria kasuen ehunekoa altuagoa da Bizkaian (% 20,9).

FORU ALDUNDIETAKO AHOALKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK LURRALDE HISTORIKOAREN ETA INDARKERIAREN ARLOAREN ARABERA. 2023

|                                                       | 2023 | AFA  | BFA  | GFA | FA GUZTIRA  |
|-------------------------------------------------------|------|------|------|-----|-------------|
| Bikotekidearen edo bikotekide-ohiaren indarkeriaren % |      | 90,0 | 72,4 | -   | <b>73,6</b> |
| Familia barruko indarkeriaren %                       |      | 10,0 | 20,9 | -   | <b>20,1</b> |
| Sexu-indarkeriaren %                                  |      | 0,0  | 6,7  | -   | <b>6,3</b>  |
| Beste indarkeria modu batzuen %                       |      | 0,0  | 0,0  | -   | <b>0,0</b>  |
| Guztira                                               |      | 100  | 100  | 100 | <b>100</b>  |

FORU ALDUNDIETAKO AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO  
ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK  
ERASOTZAILEAREN ARABERA. 2023

| BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE<br>OHIAREN INDARKERIA                            | 2023 |
|--------------------------------------------------------------------------------|------|
| Ezkontidea /Izatezko bikotekidea<br>/Bikotekidea/ Mutil-laguna                 | 69,8 |
| Ezkontide ohia/ Izatezko bikotekide<br>ohia/ Bikotekide ohia/ Mutil-lagun ohia | 30,2 |
| Guztira                                                                        | 100  |
| FAMILIA BARRUKO INDARKERIA                                                     |      |
| Arbasoa (aita/aitona)                                                          | 62,1 |
| Ondorengoa (Semea/Biloba)                                                      | 31,0 |
| Beste senide batzuk                                                            | 6,9  |
| Guztira                                                                        | 100  |
| SEXU INDARKERIA                                                                |      |
| Pertsona ezagunak                                                              | 77,8 |
| Pertsona ezezagunak                                                            | 22,2 |
| Beste harreman mota bat                                                        | 0,0  |
| Guztira                                                                        | 100  |

Baliabide horietan artatu diren bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik jasandako indarkeria-kasuen % 69,8an erasotzailea biktimaren bikotekidea zen, eta % 30,2an, bikotekide ohia.

Gainera, familia barruko indarkeria-kasuen % 62,1 biktimaren gizonezko arbaso batek gauzatu du (aita, aitona). Kasuen % 31,0an erasotzailea biktimaren ondorengoa da (semea, biloba) eta % 6,9an beste senide bat (anaia, osaba...).

Familia-eremutik kanpoko sexu-indarkeriaren kasuei dagokienez, artatutako kasuen % 77,8an erasotzailea gizonezko ezaguna da, eta % 22,2an, ezezaguna.

**Baliabide juridikoetan artatutako emakumeen erdiak inguruk 31 eta 50 urte artean ditu (% 47,2). 65 urtetik gorako emakumeak % 4,9 dira eta neska adingabeak % 10,5.**

FORU ALDUNDIETAKO AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK LURRALDE HISTORIKOAREN  
ETA ADINAREN ARABERA 2023

| 2023                         | AFA  | BFA  | GFA | FA GUZTIRA |
|------------------------------|------|------|-----|------------|
| 14 urte baino gutxiagokoen % | 0,0  | 6,0  | -   | 5,6        |
| 14-17 urtekoen %             | 10,0 | 4,5  | -   | 4,9        |
| 18-20 urtekoen %             | 20,0 | 3,7  | -   | 4,9        |
| 21-30 urtekoen %             | 10,0 | 16,4 | -   | 16,0       |
| 31-40 urtekoen %             | 20,0 | 22,4 | -   | 22,2       |
| 41-50 urtekoen %             | 30,0 | 24,6 | -   | 25,0       |
| 51-64 urtekoen %             | 10,0 | 17,2 | -   | 16,7       |
| 65 urte edo gehiagokoen %    | 0,0  | 5,2  | -   | 4,9        |
| Guztira                      | 100  | 100  | 100 | 100        |

Indarkeriaren arlo desberdinei erreparatuz, baliabide horietan artatu dituzten eta bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria pairatu duten emakume gehienek 31 eta 50 urte artean dituzte (% 60,0). Familia barruko indarkeriaren kasuan, profilik ohikoena adin txikiko neska batena da (% 41,3). Gainera, sexu-indarkeriaren biktima gehienek 30 urte baino gutxiago dituzte (% 88,8).



## FORU ALDUNDIETAKO AHOALKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK INDARKERIAREN ARLOAREN ETA ADINAREN ARABERA 2023

| 2023                         | BIKOTEKIDEA EDO BIKOTEKIDE OHIA | FAMILIA BARNEKOA | SEXUALA | FA GUZTIRA |
|------------------------------|---------------------------------|------------------|---------|------------|
| 14 urte baino gutxiagokoen % | 0,0                             | 24,1             | 11,1    | 5,6        |
| 14-17 urtekoen %             | 1,9                             | 17,2             | 0,0     | 4,9        |
| 18-20 urtekoen %             | 2,8                             | 3,4              | 33,3    | 4,9        |
| 21-30 urtekoen %             | 14,2                            | 13,8             | 44,4    | 16,0       |
| 31-40 urtekoen %             | 29,2                            | 0,0              | 11,1    | 22,2       |
| 41-50 urtekoen %             | 31,1                            | 10,3             | 0,0     | 25,0       |
| 51-64 urtekoen %             | 17,0                            | 20,7             | 0,0     | 16,7       |
| 65 urte edo gehiagokoen %    | 3,8                             | 10,3             | 0,0     | 4,9        |
| Guztira                      | 100                             | 100              | 100     | 100        |

2023an, ez da emakume horien kargu dauden seme-alabarik izan Arreta Soziojuridikorako Zerbitzuetan, ez eta emakume berri horien kargu dauden seme-alaba adin nagusikorik edo mendeko pertsonarik ere.

**Bestalde, zerbitzu horietan artatutako hamar emakumetik lau inguru (% 20,0) atzerrikoa da. Atzerritarrak diren emakumeen kopurua altuagoa da Gipuzkoan (% 43,2).**

## FORU ALDUNDIETAKO AHOALKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK LURRALDE HISTORIKOAREN ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA. 2023

| 2023                           | AFA  | BFA | GFA  | FA GUZTIRA |
|--------------------------------|------|-----|------|------------|
| Nazionalitate espainiarraren % | 80,0 | -   | 56,8 | 80,0       |
| Atzerriko nazionalitatearen %  | 20,0 | -   | 43,2 | 20,0       |
| Guztira                        | 100  | -   | 100  | 100        |

Oharra: BFAk ez ditu datu horiek ematen.

Atzerriko emakumeek baliabide horietan duten presentzia apur bat handiagoa da familia barruan erregistratutako indarkeria kasuetan.

## FORU ALDUNDIETAKO AHOALKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK INDARKERIAREN ARLOAREN ETA JATORRIAREN ARABERA. 2023

| 2023                           | BIKOTEKIDEA EDO BIKOTEKIDE OHIA | FAMILIA BARNEKOA | SEXUALA | FA GUZTIRA |
|--------------------------------|---------------------------------|------------------|---------|------------|
| Nazionalitate espainiarraren % | 77,8                            | 100              | -       | 80,0       |
| Atzerriko nazionalitatearen %  | 22,2                            | 0,0              | -       | 20,0       |
| Guztira                        | 100                             | 100              | 100     | 100        |

Bestalde, nabarmendu beharrekoa da aholkularitza juridikorako foru-baliabideetan artatutako emakume guztiek egoera administratibo erregularra dute.

FORU ALDUNDIETAKO AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK LURRALDE HISTORIKOAREN  
ETA EGOERA ADMINISTRATIBOA ARABERA. 2023

| 2023                          | AFA | BFA | GFA | FA GUZTIRA |
|-------------------------------|-----|-----|-----|------------|
| Egoera erregularrean dauden % | 100 | -   | -   | 100        |
| Egoera irregularrean dauden % | 0   | -   | -   | 0          |
| Guztira                       | 100 | -   | -   | 100        |

Oharra: BFAk eta GFAk ez dituzte datu horiek ematen.

Amaitzeko, baliabide horietan artatutako **18 emakumek desgaitasuna** dute, hau da, artatutako emakumeen % 6,7k.

## FORU ALDUNDIAK

## Indarkeria matxistaren egoerei laguntza psikosoziala emateko zerbitzua

Foru Aldundietako Arreta Psikologikorako Zerbitzua tratamendu psikologikoa hasi nahi duten indarkeria matxistaren biktimei zuzenduta dago, eta banakako arreta pertsonalizatua eskaintzen du. Zerbitzu psikologikoek indarkeria matxistatik eratorritako behar psikoemozionalak jorratzen dituzte, indarkeria pairatu duten eremua edozein dela ere. Zerbitzu horiek emakumeen seme-alabak ere artatzen dituzte.


## BALIABIDEAREN DATU OROKORRAK

**2023an, foru-aldundiek 2.895.544,64 € euro bideratu dituzte indarkeria matxistaren egoerei aurre egiteko arreta psikosozialerako zerbitzuetara.** BFAk 1.374.475,81 € bideratu ditu. AFak, berriz, 829.289,83 €; hau da, saileko aurrekontu osoaren % 0,31. Bestalde, GFAk 691.779,00 € gastatu ditu, bere saileko aurrekontuaren % 0,13.

2023an baliabide horietan egin den gastu osoa 2022koa baino altuagoa izan da: 2.254.493 €. Hein handi batean, BFaren igoerarengatik, gastua 935.000 €-tik 1.374.476 €-ra igo duelako, hots, % 47,0. AFaren eta GFaren gastuak ere igo egin dira, % 13,4 eta % 17,6, hurrenez hurren.

| 2023                                                                     | AFA                 | BFA                   | GFA                 | FA GUZTIRA            |
|--------------------------------------------------------------------------|---------------------|-----------------------|---------------------|-----------------------|
| <b>BALIABIDEAREN GUZTIZKO GASTUA</b>                                     | <b>829.289,83 €</b> | <b>1.374.475,81 €</b> | <b>691.779,00 €</b> | <b>2.895.544,64 €</b> |
| Baliabidearen mende dagoen sailaren edo departamentuaren guztizko gastua | 269.009.835 €       | 75.085.822 €          | 515.224.247 €       | 859.319.905 €         |
| Zerbitzuaren gastuaren proportzioa sail edo departamentuarekiko          | 0,31                | 1,83                  | 0,13                | 0,56                  |


ALDUNDIETAKO ARRETA PSIKOSOZIALERAKO ZERBITZUETAKO GASTUAREN BILAKAERA 2019-2023



Guztira, 148 profesional daude **aldundiek kudeatutako arreta psikologikorako baliabideetan**, 2022an baino sei gehiago. Guztiak emakumeak dira, eta kasu guztietan, emakumeen aurkako indarkeriaren eta/edo berdintasunaren gaineko prestakuntza dute (% 100).

| 2023                                                                                            | AFA       | BFA       | GFA        | FA GUZTIRA |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|-----------|------------|------------|
| <b>BALIABIDEARI ATXIKITA DAUDEN LANGILEEN GUZTIZKO KOPURUA</b>                                  | <b>15</b> | <b>27</b> | <b>106</b> | <b>148</b> |
| Baliabidean dauden emakume profesionalen %                                                      | 100       | 100       | 100        | 100        |
| Emakumeen aurkako indarkerian eta/edo berdintasunean prestakuntza duten baliabideko langileen % | 100       | 100       | 100        | 100        |

FORU ALDUNDIETAKO ARRETA PSIKOLOGIKORAKO ZERBITZUETAKO LANGILEEN KOPURUAREN BILAKAERA. 2020-2023




### BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK

2023an guztira **3.729** emakume igaro dira foru-aldundien arreta psikologikorako baliabideetatik, eta horietatik erdiak baino gehixeago lehen aldiz joan ziren (1.909).

Gainera, kalkulatzen da baliabide horiek emakume horien 1.073 seme-alaba artatu dituztela 2023an, eta gutxi gorabehera erdia ( % 47,1) alta emandako kasu berriak izan direla urte berean. Guztira, 4.802 pertsonak jaso dute arreta baliabide horietan, eta kasu horietatik 2.414 berriak izan dira.


| 2023                                                                         | AFA        | BFA        | GFA        | FA GUZTIRA   |
|------------------------------------------------------------------------------|------------|------------|------------|--------------|
| ARTATUTAKO EMAKUME GUZTIAK                                                   | 1.412      | 1.318      | 999        | 3.729        |
| <b>ARTATUTAKO EMAKUME BERRI GUZTIAK</b>                                      | <b>661</b> | <b>783</b> | <b>465</b> | <b>1.909</b> |
| Artatutako EMAKUME BERRIEN %, artatutako emakumeen guztizkoaren gainean      | 46,8       | 59,4       | 46,5       | 51,2         |
| ARTATUTAKO SEME-ALABAK, GUZTIRA                                              | 193        | 123        | 757        | 1.073        |
| <b>ARTATUTAKO SEME-ALABA BERRI GUZTIAK</b>                                   | <b>106</b> | <b>98</b>  | <b>301</b> | <b>505</b>   |
| Artatutako SEME ALABA BERRIEN %, artatutako seme-alaben guztizkoaren gainean | 54,9       | 79,7       | 39,8       | 47,1         |
| ARTATUTAKO PERTSONAK, GUZTIRA                                                | 1.605      | 1.441      | 1.756      | 4.802        |
| <b>ARTATUTAKO PERTSONA BERRI GUZTIAK</b>                                     | <b>767</b> | <b>881</b> | <b>766</b> | <b>2.414</b> |
| PERTSONA berrien % guztizkoaren gainean                                      | 47,8       | 61,1       | 43,6       | 50,3         |

Baliabide horietan artatutako emakume berrien kopurua osoa **igo egin da 2022arekin alderatuta: 1.810 emakumetik 1.909 emakumera, hau da, % 5,5eko hazkundea**. Hala ere, bilakaera desberdina da lurralde bakoitzaren arabera. BFAk kudeatutako baliabideetan artatutako kasuak % 30,5 igo dira 2023an, 600 kasutik 783ra. Aldiz, GFAk artatutako kasuak % 10,1 jaitsi dira, eta AFAn % 4,6ko beherakada erregistratu da.




Seme-alaba adingabeen arretari dagokionez, laguntza psikologikorako foru-baliabide horietan 505 haur berri artatu dira: 106 Araban, 98 Bizkaian eta 301 Gipuzkoan.

Kopuru horrek hazkunde nabarmena adierazten du 2022arekin alderatuta, orduan 151 adingabe artatu baitziren. Aipatzekoa da urte horretan ez zegoela Arabatik zetorren daturik.



Arreta psikologikoko foru-zerbitzuetara joan diren **1.909 emakume berrien % 41,0 Bizkaiko baliabideetan artatu dituzte, % 34,6 Araban eta % 24,4 Gipuzkoan.**

ARRETA PSIKOLOGIKORAKO FORU BALIABIDEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIEN BANAKETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2023



Datuak ez daude lurralde bakoitzaren biztanleen dentsitatearekin proportzioan. Hala, deigarria da baliabide horretan artatu diren hamar emakumetik hiru baino gehiago Araban artatu dituztela, eta bertan, Euskadiko emakume guztien % 14 soilik bizi da. Kontrara, Gipuzkoan kasuen ia % 24,4 artatu da eta lurralde horretan EAEko emakumeen % 33 bizi da. Alde horretatik, komeni da argitzea artatutako emakumeen eta biztanleen arteko aldea lurraldeetan baliabideetara heltzeko dauden bide desberdinen ondorioa dela<sup>6</sup>.

Bestalde, **baliabide honetara jotzen duten emakume gehienek bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik pairatu dute indarkeria (% 80,6). % 10,1ek familia barruko indarkeria pairatu du eta % 9,3k sexu-indarkeria.**

Lurraldeka, bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria jasan duten emakumeen kopurua handiagoa da BFAk kudeatzen dituen baliabideetan (% 88,8). Bestalde, sexu-indarkeriaren biktima izan diren emakumeen presentzia handiagoa da Araban (% 12,0).

FORU ALDUNDIETAKO ARRETA PSIKOLOGIKORAKO ZERBITZUETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK LURRALDE HISTORIKOAREN ETA INDARKERIAREN ARLOAREN ARABERA. 2023

| 2023                                                  | AFA  | BFA  | GFA  | FA GUZTIRA  |
|-------------------------------------------------------|------|------|------|-------------|
| Bikotekidearen edo bikotekide-ohiaren indarkeriaren % | 71,0 | 88,8 | 80,6 | <b>80,6</b> |
| Familia barruko indarkeriaren %                       | 17,1 | 5,0  | 8,6  | <b>10,1</b> |
| Sexu-indarkeriaren %                                  | 12,0 | 6,3  | 10,8 | <b>9,3</b>  |
| Beste indarkeria modu batzuen %                       | 0,0  | 0,0  | 0,0  | <b>0,0</b>  |
| Guztira                                               | 100  | 100  | 100  | <b>100</b>  |

**Indarkeria-modua gorabehera, badirudi indarkeria fisikoa eta psikologikoa direla baliabide horietara joaten diren emakumeek gehien pairatu dituztenak (% 32,2 eta % 60,9 hurrenez hurren).** Aipagarria da indarkeria ekonomikoaren proportzioa erasotzailea senitarteko bat denean (% 32,7).

FORU ALDUNDIETAKO ARRETA PSIKOLOGIKORAKO ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK, PAIRATU DUTEN INDARKERIA-MOTA NAGUSIAREN ETA INDARKERIAREN ARLOAREN ARABERA 2023

| 2023                                               | BIKOTEKIDEA EDO BIKOTEKIDE OHIA | FAMILIA BARNEKO | FA GUZTIRA  |
|----------------------------------------------------|---------------------------------|-----------------|-------------|
| Nagusiki indarkeria fisikoa pairatu dutenen %      | 33,7                            | 23,8            | <b>32,2</b> |
| Nagusiki indarkeria psikologikoa pairatu dutenen % | 64,0                            | 43,5            | <b>60,9</b> |
| Nagusiki indarkeria ekonomikoa pairatu dutenen %   | 1,8                             | 32,7            | <b>6,4</b>  |
| Nagusiki sexu-indarkeria pairatu dutenen %         | 0,2                             | 0,0             | <b>0,4</b>  |
| Nagusiki beste indarkeriak pairatu dituztenen %    | 0,0                             | 0,0             | <b>0,0</b>  |
| Guztira                                            | 100                             | 100             | <b>100</b>  |

<sup>6</sup>Egun, Bizkaian eta Araban, emakumeek hitzordu psikologikoa izan dezakete zuzenean foru-aldundiko baliabidean; Gipuzkoan, aldiz, gizarte-langileen bitartez bideratzen da.

FORU ALDUNDIETAKO ARRETA PSIKOLOGIKORAKO ZERBITZUEK  
ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK ERASOTZAILEAREN  
ARABERA. 2023

| BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE<br>OHIAREN INDARKERIA                            | 2023 |
|--------------------------------------------------------------------------------|------|
| Ezkontidea /Izatezko bikotekidea<br>/Bikotekidea/ Mutil-laguna                 | 74,3 |
| Ezkontide ohia/ Izatezko bikotekide<br>ohia/ Bikotekide ohia/ Mutil-lagun ohia | 25,7 |
| Guztira                                                                        | 100  |
| FAMILIA BARRUKO INDARKERIA                                                     |      |
| Arbasoa (aita/aitona)                                                          | 51,9 |
| Ondorengoa (Semea/Biloba)                                                      | 21,5 |
| Beste senide batzuk                                                            | 26,6 |
| Guztira                                                                        | 100  |
| SEXU INDARKERIA                                                                |      |
| Pertsona ezagunak                                                              | 25,8 |
| Pertsona ezezagunak                                                            | 71,9 |
| Beste harreman mota bat                                                        | 2,2  |
| Guztira                                                                        | 100  |

Oharra: AFAko familia barruko indarkeria kasu guztietan "beste senide batzuk" gisa sailkatu dira. Era berean, BFAren sexu-indarkeria kasu guztietan, "bestelako harreman mota bat" gisa erregistratu dira.

Lurraldea gorabehera, 31 eta 50 urte arteko emakumeak gehiengoa dira baliabide horietan, artatutako hiru emakumetik bik adin hori baitute (% 51,9). Emakume adinekoak (65 urtetik gorakoak) guztizkoaren % 5,3 dira eta neska adingabeak % 4,1 dira.

FORU ALDUNDIETAKO ARRETA PSIKOLOGIKORAKO ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK LURRALDE HISTORIKOAREN ETA  
ADINAREN ARABERA 2023

| 2023                         | AFA  | BFA  | GFA  | FA GUZTIRA |
|------------------------------|------|------|------|------------|
| 14 urte baino gutxiagokoen % | 3,8  | 0,0  | 0,6  | 1,5        |
| 14-17 urtekoen %             | 6,2  | 0,0  | 1,7  | 2,6        |
| 18-20 urtekoen %             | 6,2  | 5,5  | 5,4  | 5,1        |
| 21-30 urtekoen %             | 10,1 | 21,2 | 22,8 | 15,3       |
| 31-40 urtekoen %             | 21,5 | 35,9 | 20,6 | 23,1       |
| 41-50 urtekoen %             | 28,4 | 41,6 | 27,1 | 28,8       |
| 51-64 urtekoen %             | 17,1 | 27,3 | 17,8 | 18,3       |
| 65 urte edo gehiagokoen %    | 6,7  | 7,1  | 3,9  | 5,3        |
| Guztira                      | 100  | 100  | 100  | 100        |

Indarkeriaren arlo desberdinei erreparatuz, baliabide horietan artatu dituzten eta bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria pairatu duten emakumeen ia erdiak (% 49,9) 31 eta 50 urte artean dituzte. Familia barruko indarkeriaren kasuan, adineko emakumeak dira nagusi, haietako % 43,4k 50 urte baino gehiago baititu. Sexu-indarkeriaren kasuan, artatutako emakumeak gazteagoak dira; 30 urtetik beherakoak dira % 20,5.

## FORU ALDUNDIETAKO ARRETA PSIKOLOGIKORAKO ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK INDARKERIAREN ARLOAREN ETA ADINAREN ARABERA 2023

| 2023                         | BIKOTEKIDEA EDO BIKOTEKIDE OHIA | FAMILIA BARNEKOA | SEXUALA | FA GUZTIRA |
|------------------------------|---------------------------------|------------------|---------|------------|
| 14 urte baino gutxiagokoen % | 3,8                             | 0,0              | 0,6     | 1,5        |
| 14-17 urtekoen %             | 6,2                             | 0,0              | 1,7     | 2,6        |
| 18-20 urtekoen %             | 6,2                             | 5,5              | 5,4     | 5,1        |
| 21-30 urtekoen %             | 10,1                            | 21,2             | 22,8    | 15,3       |
| 31-40 urtekoen %             | 21,5                            | 35,9             | 20,6    | 23,1       |
| 41-50 urtekoen %             | 28,4                            | 41,6             | 27,1    | 28,8       |
| 51-64 urtekoen %             | 17,1                            | 27,3             | 17,8    | 18,3       |
| 65 urte edo gehiagokoen %    | 6,7                             | 7,1              | 3,9     | 5,3        |
| Guztira                      | 100                             | 100              | 100     | 100        |

Bestalde, datuek adierazten dute **arreta psikosozialerako Gipuzkoako foru-aldundiko baliabideek artatu dituzten 156 emakumek gutxienez seme-alaba adingabeak dituztela beren kargu.**

| 2023                                                                                                           | AFA | BFA | GFA   | FA GUZTIRA |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|-----|-------|------------|
| <b>Beren kargu seme-alaba adingabeak dituzten artatutako emakume berriak</b>                                   | -   | -   | 156   | 156        |
| Seme-alabak haien kargu dituzten artatutako emakume berrien % kasu berrien gutzizkoaren gainean                | -   | -   | % 8,2 | % 8,2      |
| <b>Artatutako emakume berrien kargura dauden seme-alaba adingabeen kopurua</b>                                 | -   | -   | 234   | 234        |
| Alaba adingabeen % artatutako emakume berrien kargura dauden seme-alaba adingabeen gutzizko kopuruaren gainean | -   | -   | 52,6  | 52,6       |

Gainera, **adin nagusiko 67 seme-alaba dituzte emakume horiek ardurapean, eta mendeko 56 pertsona heldu daude** horien ardurapean.

Jatorriari dagokionez, emakumeen %37,1 atzerriarrak dira. Jatorriaren arabera banaketa aldatu egiten da apur bat lurraldeen arabera, eta atzerriko emakumeen ehunekoa handiagoa da apur bat GFak kudeatutako baliabideetan, hain zuzen ere, % 43,2ra iristen da.

## FORU ALDUNDIETAKO ARRETA PSIKOLOGIKORAKO ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK LURRALDE HISTORIKOAREN ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA 2023

| 2023                           | AFA  | BFA | GFA  | FA GUZTIRA |
|--------------------------------|------|-----|------|------------|
| Nazionalitate espainiarraren % | 67,2 | -   | 56,8 | 62,9       |
| Atzerriko nazionalitatearen %  | 32,8 | -   | 43,2 | 37,1       |
| Guztira                        | 100  | -   | 100  | 100        |

Emakume horien egoera administratiboari dagokionez, ikus daiteke **emakume gehienek (% 62,9) egoera administratibo erregularra dutela.**



## FORU ALDUNDIETAKO ARRETA PSIKOLOGIKORAKO ZERBITZUEK ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA EGOERA ADMINISTRATIBOAREN ARABERA 2023

| 2023                            | AFA  | BFA | GFA  | FA GUZTIRA |
|---------------------------------|------|-----|------|------------|
| Egoera erregularrean daudenen % | 67,2 | -   | 56,8 | 62,9       |
| Egoera irregularrean daudenen % | 32,8 | -   | 43,2 | 37,1       |
| Guztira                         | 100  | -   | 100  | 100        |

Azkenik, 2023an **desgaitasunen bat duten 62 emakume artatu dira; hau da, baliabideetan artatutako emakume guztien % 3,2.**

## FORU ALDUNDIAK

## Hezkuntzako arreta psikosozialeko zerbitzua.

## BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA

Arreta-baliabide ibiltari espezializatua eta integrala da eta biktimaren ahalduntzea eta kontzientzia hartzea sustatzeko, bai eta indarkeria-harreman berrietatik babesteko eta prebenitzeko tresnak eskuratzeko, harremanean izan dituzten sinesmenak aldatzeko eta indarkeriak eragindako ondorioetatik osatzeko portaerak berriro ikasteko.

Lurralde bakoitzean programa batek eskaintzen du:

- Araba: Esku-hartze sozio edukatiboko eta psikosozialeko zerbitzua
- Bizkaia: Bazterkeria- eta babesgabetasun-arriskuan eta/edo -egoeran dauden indarkeria matxistaren emakume biktimen familia-unitateentzako edo bizikidetza-unitateentzako arreta psikosozialerako eta familiako esku-hartzerako arreta-programa, «Sua»; eta eguneko arreta-zerbitzua eta bizitegi laguntza-zerbitzua, «Beregain», eta esku-hartze soziohezitzailearen, psikosozialaren eta aholkularitza juridikoaren zerbitzua, «Zerizan».
- Gipuzkoa: GARAITU arreta psikosozialerako, gizarte- eta hezkuntza-arretarako eta arreta soziojuridikorako zerbitzua, indarkeria matxista eta sexu-erasoak gertatzen diren egoeren aurrean.

## BALIABIDEAREN DATU OROKORRAK

2023an, foru-aldundiek **2.357.524,20 € euro** bideratu dituzte indarkeria matxistaren egoerei aurre egiteko **hezkuntzako arreta psikosozialerako zerbitzuetara**. BFAren kasuan, gastua 1.880.989,04 € eurokoa izan da eta Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sailari dagokion gastuaren % 2,5 da. Bestalde, AFAk 118.809,39 euroko inbertsioa egin du, hau da baliabideari dagokion Gizarte Politiken Sailaren guztizko gastuaren % 0,04. GFaren kasuan, gastua 357.725,83 eurokoa da, hau da, Gizarte Politiken Saileko gastuaren % 0,07.

| 2023                                                                     | AFA                 | BFA                   | GFA                 | FA GUZTIRA            |
|--------------------------------------------------------------------------|---------------------|-----------------------|---------------------|-----------------------|
| <b>BALIABIDEAREN GUZTIZKO GASTUA</b>                                     | <b>118.809,39 €</b> | <b>1.880.989,04 €</b> | <b>357.725,83 €</b> | <b>2.357.524,26 €</b> |
| Baliabidearen mende dagoen sailaren edo departamentuaren guztizko gastua | 269.009.835 €       | 75.085.822 €          | 515.224.247 €       | 859.319.905 €         |
| Zerbitzuaren gastuaren proportzioa sail edo departamentuarekiko          | % 0,04              | % 2,51                | % 0,07              | % 0,27                |

BFAren gastu osoa Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sailari dagokio, AFAren eta GFaren kasuan berriz, Gizarte Politiken Sailari egiten dio erreferentzia.

Guztira **54 profesionalak egiten dute lan foru-aldundietako egoitza-zentroetan**; guztiak emakumeak dira, eta emakumeen aurkako indarkerian eta/edo berdintasunean prestakuntza dute.

| 2023                                                                                            | AFA      | BFA       | GFA      | FA GUZTIRA |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------|----------|-----------|----------|------------|
| <b>BALIABIDEARI ATXIKITA DAUDEN LANGILEEN GUZTIZKO KOPURUA</b>                                  | <b>8</b> | <b>38</b> | <b>8</b> | <b>54</b>  |
| Baliabidean dauden emakume profesionalen %                                                      | 100      | 89,5      | 100      | 92,6       |
| Emakumeen aurkako indarkerian eta/edo berdintasunean prestakuntza duten baliabideko langileen % | 100      | 92,1      | 100      | 94,4       |

BFAko profesionalen kopurua baliabide hori kudeatzen duten enpresetako langileen kopurua da, eta ez dira kontuan hartzen baliabide horretan esku hartzen duten administrazioako langileak.

## BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK

2023an **187 emakumek hartu dute parte guztira** aldundiek kudeatutako **Hezkuntzako Arreta Psikosozialeko Zerbitzuaren programetan** eta horietatik 147 (% 80,3) lehen aldiz izan dira baliabide horretan. Seme-alaba adingabeen arretari dagokionez, **169 artatu dira, eta horietatik % 36,1 kasu berriak izan dira**, lehen aldiz 2023an artatuak.


Guztira, 356 pertsona artatu ditu aldundietako Hezkuntzako Arreta Psikosozialeko Zerbitzuak eta horietatik % 58,4 (208 pertsona) erabiltzaile berriak izan dira.

| 2023                                                                         | AFA       | BFA        | GFA       | FA GUZTIRA |
|------------------------------------------------------------------------------|-----------|------------|-----------|------------|
| ARTATUTAKO EMAKUME GUZTIAK                                                   | 27        | 156        | -         | 187        |
Udal baliabide horietan artatutako emakumeen % 71,1 egoera administratibo erregularrean dago, eta % 28,9an egoera irregularra da. Lurraldeka, administrazio-egoera irregularrean dauden emakumeen ehunekoa handiagoa da Bizkaian (% 44,5), neurri batean, Bilboko Udalean egoera irregularrean erregistratutako 194 emakumek baldintzatuta.

OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA EGOERA  
ADMINISTRATIBOAREN ARABERA 2023

|                               | 2023 | Udalak<br>Araba | Udalak<br>Bizkaia | Udalak<br>Gipuzkoa | GUZTIRA<br>Udalak |
|-------------------------------|------|-----------------|-------------------|--------------------|-------------------|
| Egoera erregularrean dauden % |      | 96,6            | 55,5              | 86,6               | 71,1              |
| Egoera irregularrean dauden % |      | 2,1             | 44,5              | 13,4               | 28,9              |
| Guztira                       |      | 100             | 100               | 100                | 100               |

Indarkeria motaren arabera, egoera administratibo irregularrean dauden emakumeen proportzioa bereziki handia da bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria-kasuetan; artatutako emakume guztien % 17,9 dira.

OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK, INDARKERIAREN ARLOAREN ETA NAZIONALITATEAREN  
ARABERA 2023

|                               | 2023 | BIKOTEKIDEA<br>EDO<br>BIKOTEKIDE<br>OHIA | FAMILIA<br>BARNEKOA | SEXUALA | BESTE MODU<br>BATZUK | GUZTIRA<br>Udalak |
|-------------------------------|------|------------------------------------------|---------------------|---------|----------------------|-------------------|
| Egoera erregularrean dauden % |      | 82,1                                     | 91,7                | 91,4    | 37,5                 | 71,1              |
| Egoera irregularrean dauden % |      | 17,9                                     | 8,3                 | 8,6     | 62,5                 | 28,9              |
| Guztira                       |      | 100                                      | 100                 | 100     | 100                  | 100               |

Azkenik, udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuetan artatu diren emakume berrien % 2,4k desgaitasunen bat du (43 emakumek). Emakume horietako gehienek (% 54,8) desgaitasun fisiko eta organikoa dute; % 41,2k buruko eta garapeneko desgaitasuna; eta % 14,3k entzumen- edo ikusmen-desgaitasuna.

## UDALAK

## Ostatu zerbitzuak / Harrera pisua

## BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA

Genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako eta haien kargura dauden pertsonentzako udalek eskaintzen duten harrera-baliabidea da. Baliabide horietako asko balioanizdunak dira eta ez dira soilik genero-indarkeriaren biktimentzat.

## BALIABIDEAREN DATU OROKORRAK

Indarkeria matxistaren biktimen arretarako egoitza-baliabideetako gastuaren inguruko 2023ko datuek diote **Bizkaiko udalek gutxienez 484.981 € inbertitu dituztela baliabide horietan**. Hau da,osatzen duten sail edo arloen gastu guztiaren % 0,7.

| 2023                                                                     | Udalak Araba | Udalak Bizkaia     | Udalak Gipuzkoa | GUZTIRA Udalak     |
|--------------------------------------------------------------------------|--------------|--------------------|-----------------|--------------------|
| <b>BALIABIDEAREN GUZTIZKO GASTUA</b>                                     | - €          | <b>15.500,00 €</b> | - €             | <b>15.500,00 €</b> |
| Baliabidearen mende dagoen sailaren edo departamentuaren guztizko gastua | -€           | 2.290.728,00€      | -€              | 2.290.728,00€      |
| Zerbitzuaren gastuaren proportzioa sail edo departamentuarekiko          | -            | 0,7                | -               | 0,7                |

Oharra: Gogoan izan behar da baliabidearen/zerbitzuaren gastuaren inguruko informazioa eskaini duten udalak oso gutxi izan direla. Gainera, kontuan izan behar da, oro har, udalek ez dutela gasturik bideratu berariaz indarkeria matxistaren kasuen arretara. Hortaz, baliabideen gastuaren inguruko datuak informatzaileek egiten dituzten kalkuluak dira. Bi arrazoi horiek direla eta, datuak tentu handiz aztertu behar dira:

Gutxienez **67 profesional ari dira udaletako harrera-etxebizitzetan lanean** (% 75,6 Bizkaian, % 14,8 Gipuzkoan eta % 9,6 Araban). Profesional gehienak emakumeak dira (% 95,6) eta emakumeen aurkako indarkeriaren eta/edo berdintasunaren gaineko prestakuntza dute (% 63,0).

| 2023                                                                                            | Udalak Araba | Udalak Bizkaia | Udalak Gipuzkoa | GUZTIRA Udalak |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------|----------------|-----------------|----------------|
| <b>BALIABIDEARI ATXIKITA DAUDEN LANGILEEN GUZTIZKO KOPURUA</b>                                  | <b>6,5</b>   | <b>51</b>      | <b>10</b>       | <b>67,5</b>    |
| Baliabidean dauden emakume profesionalen %                                                      | 84,6         | 90,0           | 98,0            | 95,6           |
| Emakumeen aurkako indarkerian eta/edo berdintasunean prestakuntza duten baliabideko langileen % | -            | 60,0           | 63,9            | 63,0           |

Oharra: Gogoan izan behar da baliabidearen gastuaren inguruko informazioa eskaini duten udalak oso gutxi izan direla. Gainera, kontuan izan behar da, oro har, udaletan ez dagoela langile espezifikorik indarkeria matxistaren kasuei erantzuteko. Bi arrazoi horiek direla eta, datuak tentu handiz aztertu behar dira:

Plaza kopuruari dagokionez, kalkulatzen da guztira 297 plaza daudela eta horietatik 163 (% 54,9) indarkeria-matxistaren biktimentzako plaza espezifikoak direla. Araban hautemandako plaza guztiak kolektibo honentzako espezifikoak dira. Bizkaian % 83,7 dira espezifikoak (87) eta Gipuzkoan % 22,5 (34 plaza espezifiko daude 151tik).

| 2023                                               | Udalak Araba | Udalak Bizkaia | Udalak Gipuzkoa | GUZTIRA Udalak |
|----------------------------------------------------|--------------|----------------|-----------------|----------------|
| <b>BALIABIDEAN/ZERBITZUAN DAGOEN PLAZA KOPURUA</b> | 42           | 104            | 151             | <b>297</b>     |
| Indarkeriaren biktimentzako berariazko plazen %    | 100          | 83,7           | 22,5            | <b>54,9</b>    |


### BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK

2023an zehar, indarkeria matxistaren biktima izan diren 99 emakumek jo dute harrera-etxebizitzetara edo udaletako osatu-zerbitzuetara, eta horietako 46 (% 46,5) kasu berriak izan ziren. **Gainera, baliabide horietatik emakume horien 103 seme-alaba ere artatu dira, % 48,5 (50) kasu berriak.**

Guztira, **202 pertsona artatu dituzte EAEko udaletako egoitza-baliabideetan**, eta % 47,5 (96) kasu berriak izan dira.

| 2023                                                                         | Udalak Araba | Udalak Bizkaia | Udalak Gipuzkoa | GUZTIRA Udalak |
|------------------------------------------------------------------------------|--------------|----------------|-----------------|----------------|
| ARTATUTAKO EMAKUME GUZTIAK                                                   | 26           | 54             | 19              | 99             |
| <b>ARTATUTAKO EMAKUME BERRI GUZTIAK</b>                                      | <b>11</b>    | <b>24</b>      | <b>11</b>       | <b>46</b>      |
| Artatutako EMAKUME BERRIEN %, artatutako emakumeen guztizkoaren gainean      | 42,3         | 44,4           | 57,9            | 46,5           |
| ARTATUTAKO SEME-ALABAK, GUZTIRA                                              | 30           | 55             | 18              | 103            |
| <b>ARTATUTAKO SEME-ALABA BERRI GUZTIAK</b>                                   | <b>13</b>    | <b>23</b>      | <b>14</b>       | <b>50</b>      |
| Artatutako SEME ALABA BERRIEN %, artatutako seme-alaben guztizkoaren gainean | 43,3         | 41,8           | 77,8            | 48,5           |
| ARTATUTAKO PERTSONAK, GUZTIRA                                                | 56           | 109            | 37              | 202            |
| <b>ARTATUTAKO PERTSONA BERRI GUZTIAK</b>                                     | <b>24</b>    | <b>47</b>      | <b>25</b>       | <b>96</b>      |
| PERTSONA berrien % guztizkoaren gainean                                      | 42,9         | 43,12          | 67,6            | 47,5           |


UDALEKO HARRERA ETXEBIZITZETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIEN BILAKAERA LURRALDEAREN ARABERA. 2023



Emakume horien % 52,2 Bizkaiko baliabideetan artatu dituzte; % 23,9, Gipuzkoan, eta % 23,9, Araban.


**Baliabide horietan artatutako emakume berrien kopuru osoak % 9,8 egin du behera 2022tik, 51tik 46ra.** Lurraldeari dagokionez, Bizkaiko datuak igo egin dira (+% 84,6) eta jaitsi Gipuzkoakoak eta Arabakoak (% 50 eta % 31,3, hurrenez hurren).

UDALEKO HARRERA ETXEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIEN BILAKAERA 2015-2023



Bestalde, **udaleko abegi-etxeetan artatutako biktimen seme-alaben kopurua igo egin da; urtebeteen 40 izatetik 50 izatera pasatu da (+% 25). Hazkunde hori bereziki handia da Bizkaiko udaletan, artatutako seme-alaben kopurua 6tik 23ra igo baita 2022tik 2023ra.**

UDALEKO HARRERA ETXEBIZITZETAN ARTATUTAKO SEME-ALABA BERRIEN BILAKAERA 2020-2023



**Baliabide honetara jotzen duten emakume gehienek bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik pairatu dute indarkeria (% 79,7). Sexu-indarkeriaren biktimak % 2,4 eta % 6,5 artean dira, eta beste % 2,2 beste indarkeria mota batzuei dagokie.**

Lurraldeei dagokienez, bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria jasan duten emakumeen ehunekoa altuagoa da Arabako eta Gipuzkoako udalek kudeatzen dituzten baliabideetan (% 100). Aldiz, Bizkaian, baliabideetan proportzio handiagoa dute sexu-indarkeriaren kasuek (% 13) eta beste indarkeria mota batzuek (% 4,3).

UDALEKO HARRERA-ETXEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK INDARKERIAREN ARLOAREN ARABERA 2023

|                                                       | 2023 | Udalak Araba | Udalak Bizkaia | Udalak Gipuzkoa | GUZTIRA Udalak |
|-------------------------------------------------------|------|--------------|----------------|-----------------|----------------|
| Bikotekidearen edo bikotekide-ohiaren indarkeriaren % |      | 100          | 82,6           | 100             | 89,1           |
| Familia barruko indarkeriaren %                       |      | 0,0          | 0,0            | 0,0             | 0,0            |



|                                 |     |      |     |     |
|---------------------------------|-----|------|-----|-----|
| Sexu-indarkeriaren %            | 0,0 | 13,0 | 0,0 | 6,5 |
| Beste indarkeria modu batzuen % | 0,0 | 4,3  | 0,0 | 2,2 |
| Guztira                         | 100 | 100  | 100 | 100 |

UDALETAKO HARRERA ETXEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK,  
PAIRATU DUTEN INDARKERIA MOTA NAGUSIAREN ETA INDARKERIAREN  
ARLOAREN ARABERA 2023

| 2023                                               | GUZTIRA |
|----------------------------------------------------|---------|
| Nagusiki indarkeria fisikoa pairatu dutenen %      | 20,0    |
| Nagusiki indarkeria psikologikoa pairatu dutenen % | 80,0    |
| Nagusiki indarkeria ekonomikoa pairatu dutenen %   | 0,0     |
| Nagusiki sexu-indarkeria pairatu dutenen %         | 0,0     |
| Nagusiki beste indarkeriak pairatu dituztenen %    | 0,0     |
| Guztira                                            | 100     |

Emakume horiek pairatu duten indarkeria modu nagusia – bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik– indarkeria psikologikoa (% 80,0) eta fisikoa izan dira (% 20,0).

UDALEKO HARRERA ETXEETAN ARTATUTAKO EMAKUME  
BERRIAK ERASOTZAILEAREN ARABERA. 2023

| BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE<br>OHIAREN INDARKERIA                            | 2023 |
|--------------------------------------------------------------------------------|------|
| Ezkontidea /Izatezko bikotekidea<br>/Bikotekidea/ Mutil-laguna                 | 57,1 |
| Ezkontide ohia/ Izatezko bikotekide<br>ohia/ Bikotekide ohia/ Mutil-lagun ohia | 42,9 |
| Guztira                                                                        | 100  |
| FAMILIA BARRUKO INDARKERIA                                                     | -    |
| Arbasoa (aita/aitona)                                                          | -    |
| Ondorengoa (Semea/Biloba)                                                      | -    |
| Beste senide batzuk                                                            | -    |
| Guztira                                                                        | -    |
| SEXU INDARKERIA                                                                |      |
| Pertsona ezagunak                                                              | 50,0 |
| Pertsona ezezagunak                                                            | 0,0  |
| Beste harreman mota bat                                                        | 50,0 |
| Guztira                                                                        | 100  |

Baliabide honetan artatu diren bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria-kasuen % 57,1ean erasotzailea biktimaren bikotekidea zen.

Bestalde, sexu-indarkeriaren arloan erregistratutako kasuen erdietan biktima eta erasotzailea ezagunak ziren eta beste erdian beste harreman motaren bat zuten.

Lurraldea gorabehera, 21 eta 50 urteko emakumeak dira gehiengoa baliabide horietan (% 84,4). Bigarrenik, 18 eta 20 urte bitartekoen presentzia (% 11,1) eta 50 urte baino gehiagokoena (% 4,4) nabarmentzen dira. Lurraldeka, Bizkaian 18-20 urte bitarteko emakumeen kopurua handiagoa da; Gipuzkoan aldiz, 51 eta 64 urte bitartekoena.

## UDALEKO HARRERA ETXEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA ADINAREN ARABERA 2023

| 2023                         | Udalak Araba | Udalak Bizkaia | Udalak Gipuzkoa | GUZTIRA Udalak |
|------------------------------|--------------|----------------|-----------------|----------------|
| 14 urte baino gutxiagokoen % | 0,0          | 0,0            | 0,0             | 0,0            |
| 14-17 urtekoen %             | 0,0          | 0,0            | 0,0             | 0,0            |
| 18-20 urtekoen %             | 0,0          | 21,7           | 0,0             | 11,1           |
| 21-30 urtekoen %             | 36,4         | 26,1           | 27,3            | 28,9           |
| 31-40 urtekoen %             | 36,4         | 21,7           | 54,5            | 33,3           |
| 41-50 urtekoen %             | 27,3         | 21,7           | 18,2            | 22,2           |
| 51-64 urtekoen %             | 0,0          | 8,7            | 0,0             | 4,4            |
| 65 urte edo gehiagokoen %    | 0,0          | 0,0            | 0,0             | 0,0            |
| Guztira                      | 100          | 100            | 100             | 100            |

Indarkeria arloei erreparatuz gero, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktima izan diren emakume gehienek 21 eta 30 urte artean, eta 41 eta 50 urte artean dituzte (% 32,1 eta % 28,6, hurrenez hurren). Sexu-indarkeriaren biktimen kasuan, biktima guztiak 40 eta 50 urte artekoak dira.

## UDALEKO HARRERA ETXEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK, INDARKERIAREN ARLOAREN ETA ADINAREN ARABERA 2023

| 2023                         | BIKOTEKIDEA EDO BIKOTEKIDE OHIA | FAMILIA BARNEKOA | SEXUALA | BESTE MODU BATZUK | GUZTIRA Udalak |
|------------------------------|---------------------------------|------------------|---------|-------------------|----------------|
| 14 urte baino gutxiagokoen % | 0,0                             | -                | 0,0     | -                 | 0,0            |
| 14-17 urtekoen %             | 0,0                             | -                | 0,0     | -                 | 0,0            |
| 18-20 urtekoen %             | 17,9                            | -                | 0,0     | -                 | 11,1           |
| 21-30 urtekoen %             | 28,6                            | -                | 0,0     | -                 | 28,9           |
| 31-40 urtekoen %             | 32,1                            | -                | 0,0     | -                 | 33,3           |
| 41-50 urtekoen %             | 14,3                            | -                | 100,0   | -                 | 22,2           |
| 51-64 urtekoen %             | 7,1                             | -                | 0,0     | -                 | 10,3           |
| 65 urte edo gehiagokoen %    | 0,0                             | -                | 0,0     | -                 | 0,0            |
| Guztira                      | 100                             | -                | 100     | -                 | 100            |

**Egoitza-baliabide horietan artatutako emakumeen ardurapean 15 adingabeko seme-alaba zenbatu dira guztira (% 66,7 neskak dira).** Gainera, emakume horiek adin nagusiko beste 3 seme-alaba dituzte.

| 2023                                                                                                           | Udalak Araba | Udalak Bizkaia | Udalak Gipuzkoa | GUZTIRA Udalak |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------|----------------|-----------------|----------------|
| <b>Beren kargu seme-alaba adingabeak dituzten emakumeen kopurua</b>                                            | -            | 1              | 9               | 10             |
| Seme-alaba adingabeak beren kargu dituzten emakume berrien % kasu berrien guztizkoaren gainean                 | -            | 4,2            | 81,8            | 21,7           |
| <b>Artatutako emakume berrien kargura dauden seme-alaba adingabeen kopurua</b>                                 | -            | 1              | 14              | 15             |
| Alaba adingabeen % artatutako emakume berrien kargura dauden seme-alaba adingabeen guztizko kopuruaren gainean | -            | 100            | 64,3            | 66,7           |

Artatutako emakumeen jatorriari dagokionez, datuek erakusten dute udal-etxeetan artatutako hamar emakumetik bost inguru (% 51,4) espainiarrak direla. Emakume atzerriarren ehunekoa apur bat altuagoa da Bizkaiko etxeetan eta % 50era iristen da.

UDALEKO HARRERA-ETXEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK LURRALDE HISTORIKOAREN ETA NAZIONALITATEREN ARABERA  
2023

| 2023                           | Udalak Araba | Udalak Bizkaia | Udalak Gipuzkoa | GUZTIRA Udalak |
|--------------------------------|--------------|----------------|-----------------|----------------|
| Nazionalitate espainiarraren % | -            | 50,0           | 54,5            | <b>51,4</b>    |
| Atzerriko nazionalitatearen %  | -            | 50,0           | 45,5            | <b>48,6</b>    |
| Guztira                        | 100          | 100            | 100             | <b>100</b>     |

Indarkeria motaren arabera, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria jasan duten biktime gehienak espainiarrak dira (% 77,3) eta atzerriko emakumeak % 22,7 dira. Aldiz, sexu-indarkeriaren kasuan, kasu guztiak hartzen dituzte.

UDALEKO HARRERA ETXEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK INDARKERIAREN ARLOAREN ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA  
2023

| 2023                           | BIKOTEKIDEA EDO BIKOTEKIDE OHIA | FAMILIA BARNEKOAK | SEXUALA | BESTE MODU BATZUK | GUZTIRA Udalak |
|--------------------------------|---------------------------------|-------------------|---------|-------------------|----------------|
| Nazionalitate espainiarraren % | 77,3                            | -                 | 0,0     | -                 | 51,4           |
| Atzerriko nazionalitatearen %  | 22,7                            | -                 | 100,0   | -                 | 48,6           |
| Guztira                        | 100                             | -                 | 100     | -                 | <b>100</b>     |

Emakume horien egoera administratiboari dagokionez, eta Arabako eta Gipuzkoako etxeen datuen faltan, datuek erakusten dute baliabide horietan artatutako emakumeen % 66,7 egoera administratibo erregularrean dagoela eta % 25,0 irregularrean.

UDALEKO HARRERA-ETXEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK LURRALDE HISTORIKOAREN ETA EGOERA ADMINISTRATIBOAREN ARABERA 2023

| 2023                          | Udalak Araba | Udalak Bizkaia | Udalak Gipuzkoa | GUZTIRA Udalak |
|-------------------------------|--------------|----------------|-----------------|----------------|
| Egoera erregularrean dauden % | -            | 66,7           | -               | 66,7           |
| Egoera irregularrean dauden % | -            | 25,0           | -               | 25,0           |
| Guztira                       | -            | 100            | -               | <b>100</b>     |

Azkenik, aipatu behar da **baliabide horietan artatutako 1 emakume berrik desgaitasun motaren bat duela, hau da emakume guztien % 2,2k.**

**UDALAK (Bizkaia)**

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren egoeretarako arreta soziojuridikoko zerbitzua

**BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA**

Arreta juridikorako zerbitzuen bitartez indarkeria matxista jasan duten emakumeei ezagutarazi nahi zaizkie agindu juridikoak egoera horien aurrean eskaintzen dizkien aukerak: zer eskubide dituzten, nola eta non salatu gertakariak, nola jo baliabide juridiko eta sozialetara, etab. Halaber, hala behar izanez gero, prozesu judizialean nola esku hartu ere azaltzen zaie. Horri dagokionez, kontuan izan behar da askotan tratu txarren egoerek iraun egiten dutela biktimek ez dituztelako haien eskubideak eta dauden gizarte-zerbitzuak ezagutzen.

Egun, Bizkaiko Lurralde Historikoko udal batzuek soilik eskaintzen dute emakumeen aurkako indarkeriaren biktimeentzako aholkularitza juridikoa. Kasu batzuetan, aholkularitza juridikorako baliabide espezifikorik ez izan arren, izaera orokorra duen baliabideetatik emakume biktimei aholkularitza eskaini dietenek ere eman dituzte datuak.

**BALIABIDEAREN DATU OROKORRAK**

Indarkeria matxistaren biktimei arreta eskaintzeko baliabide juridikoen gastuari dagokionez 2023an jasotako datuek erakusten dute **udalek** (kasu honetan Bizkaikoak soilik) gutxienez **84.413 €** inbertitu dituztela.

| 2023                                                                     | Udalak Araba | Udalak Bizkaia | Udalak Gipuzkoa | GUZTIRA<br>Bizkaiko udalak |
|--------------------------------------------------------------------------|--------------|----------------|-----------------|----------------------------|
| <b>BALIABIDEAREN GUZTIZKO GASTUA</b>                                     | -            | 84.413€        | -               | 84.413€                    |
| Baliabidearen mende dagoen sailaren edo departamentuaren guztizko gastua | -            | 13.733.826€    | -               | 13.733.826€                |
| Zerbitzuaren gastuaren proportzioa sail edo departamentuarekiko          |              | % 0,6          | -               | % 0,6                      |

Oharra: Gogoan izan behar da baliabidearen/zerbitzuaren gastuaren inguruko informazioa eskaini duten udalak oso gutxi izan direla. Gainera, kontuan izan behar da, oro har, udalek ez dutela gasturik bideratu berariaz indarkeria matxistaren kasuen arretara. Hortaz, baliabideen gastuaren inguruko datuak informatzaileek egiten dituzten kalkuluak dira. Bi arrazoi horiek direla eta, datuak tentu handiz aztertu behar dira:

Gutxienez **21 profesionalek egiten dute lan Bizkaiko udaletako baliabide horietan**, gehienak emakumeak dira (% 95,2) eta guztiek prestakuntza dute emakumeen aurkako indarkerian eta/edo berdintasunean.

| 2023                                                           | Udalak Araba | Udalak Bizkaia | Udalak Gipuzkoa | GUZTIRA<br>Udalak (Bizkaia) |
|----------------------------------------------------------------|--------------|----------------|-----------------|-----------------------------|
| <b>BALIABIDEARI ATXIKITA DAUDEN LANGILEEN GUZTIZKO KOPURUA</b> | -            | <b>21</b>      | -               | <b>21</b>                   |
| Baliabidean dauden emakume profesionalen %                     | -            | % 95,2         | -               | % 95,2                      |

|                                                                                                 |   |       |   |       |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------|---|-------|---|-------|
| Emakumeen aurkako indarkerian eta/edo berdintasunean prestakuntza duten baliabideko langileen % | - | % 100 | - | % 100 |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------|---|-------|---|-------|

Oharra: Gogoan izan behar da baliabidearen gastuaren inguruko informazioa eskaini duten udalak gutxi izan direla. Gainera, kontuan izan behar da, oro har, udaletan ez dagoela langile espezifikorik indarkeria matxistaren kasuei erantzuteko. Bi arrazoi horiek direla eta, datuak tentu handiz aztertu behar dira:


## BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK

2023an zehar, **indarkeria matxistaren biktima izan diren 500 emakumek jo dute udaletako aholkularitza juridikorako baliabideetara, eta horietako 128 (% 25,6) kasu berriak izan dira.** Gainera, baliabide horietatik **gutxienez emakume horien seme-alaben 57 kasu** artatu dituzte, eta horietatik 37 (% 64,9) kasu berriak izan dira. Guztira, **baliabide horietatik 165 pertsona berri artatu dira.**

| 2023                                                                         | Udalak Araba | Udalak Bizkaia | Udalak Gipuzkoa | GUZTIRA Udalak (Bizkaia) |
|------------------------------------------------------------------------------|--------------|----------------|-----------------|--------------------------|
| ARTATUTAKO EMAKUME GUZTIAK                                                   | -            | 500            | -               | 500                      |
| <b>ARTATUTAKO EMAKUME BERRI GUZTIAK</b>                                      | -            | <b>128</b>     | -               | <b>128</b>               |
| Artatutako EMAKUME BERRIEN %, artatutako emakumeen guztizkoaren gainean      | -            | 25,60          | -               | 25,60                    |
| ARTATUTAKO SEME-ALABAK, GUZTIRA                                              | -            | 57             | -               | 57                       |
| <b>ARTATUTAKO SEME-ALABA BERRI GUZTIAK</b>                                   | -            | <b>37</b>      | -               | <b>37</b>                |
| Artatutako SEME ALABA BERRIEN %, artatutako seme-alaben guztizkoaren gainean | -            | 64,91          | -               | 64,91                    |
| ARTATUTAKO PERTSONAK, GUZTIRA                                                | -            | 557            | -               | 557                      |
| <b>ARTATUTAKO PERTSONA BERRI GUZTIAK</b>                                     | -            | <b>165</b>     | -               | <b>165</b>               |
| PERTSONA berrien % guztizkoaren gainean                                      | -            | 29,62          | -               | 29,62                    |

2023an Bizkaiko aholkularitza juridikoko udal-baliabideek artatutako kasu berrien kopurua 2022koa baino baxuagoa izan da, 250 kasu berri erregistratu baitziren (% 50 gehiago).

BIZKAIKO AHOALKULARITZA JURIDIKOKO UDAL BALIABIDEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIEN BILAKAERA 2015-2023



Kasu berriak murriztu egin diren arren, artatutako biktimen seme-alaben kopurua igo egin da, 34tik 37ra.

**Baliabide horietara sartzen diren emakume gehienak (% 81,3) bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktimak dira, % 11,7 familia barruko indarkeriarena eta % 7,0 sexu-indarkeriarena.**

UDALEKO AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO BALIABIDEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK, INDARKERIAREN ARLOAREN ARABERA 2023

| 2023                                                  | Udalak Araba | Udalak Bizkaia | Udalak Gipuzkoa | GUZTIRA Bizkaiko udalak |
|-------------------------------------------------------|--------------|----------------|-----------------|-------------------------|
| Bikotekidearen edo bikotekide-ohiaren indarkeriaren % | -            | 81,3           | -               | 81,3                    |
| Familia barruko indarkeriaren %                       | -            | 11,7           | -               | 11,7                    |
| Sexu-indarkeriaren %                                  | -            | 7,0            | -               | 7,0                     |
| Beste indarkeria modu batzuen %                       | -            | 0,0            | -               | 0,0                     |
| Guztira                                               | -            | 100            | -               | 100                     |

Indarkeria-modua gorabehera, baliabide juridiko horietan artatutako emakume gehienek indarkeria psikologikoa (% 80,0) jasan dute, eta ondoren, fisikoa (% 17,8) eta sexu-indarkeria (% 2,2)

UDALETAKO AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO BALIABIDEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK, PAIRATU DUTEN INDARKERIA MOTA NAGUSIAREN ETA INDARKERIA ARLOAREN ARABERA. 2023

| 2023                                               | BIKOTEKIDEA EDO BIKOTEKIDE OHIA | FAMILIA BARNEKOA | GUZTIRA Udalak (Bizkaia) |
|----------------------------------------------------|---------------------------------|------------------|--------------------------|
| Nagusiki indarkeria fisikoa pairatu dutenen %      | 19,5                            | 20,0             | 17,8                     |
| Nagusiki indarkeria psikologikoa pairatu dutenen % | 78,0                            | 80,0             | 80,0                     |
| Nagusiki indarkeria ekonomikoa pairatu dutenen %   | 0,0                             | 0,0              | 0,0                      |
| Nagusiki sexu-indarkeria pairatu dutenen %         | 2,4                             | 0,0              | 2,2                      |
| Nagusiki beste indarkeriak pairatu dituztenen %    | 0,0                             | 0,0              | 0,0                      |
| Guztira                                            | 100                             | 100              | 100                      |

UDALEKO AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO BALIABIDEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK, ERASOTZAILAREN ARABERA. 2023

| BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE OHIAREN INDARKERIA                             | 2023 |
|------------------------------------------------------------------------------|------|
| Ezkontidea /Izatezko bikotekidea /Bikotekidea/ Mutil-laguna                  | 56,1 |
| Ezkontide ohia/ Izatezko bikotekide ohia/ Bikotekide ohia/ Mutil-laguna ohia | 43,9 |
| Guztira                                                                      | 100  |
| FAMILIA BARRUKO INDARKERIA                                                   |      |
| Arbasoa (aita/aitona)                                                        | 80,0 |
| Ondorengoa (Semea/Biloba)                                                    | 20,0 |
| Beste senide batzuk                                                          | 0,0  |
| Guztira                                                                      | 100  |

Baliabide honetan artatu diren bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria-kasuen % 56,1ean erasotzailea biktimaren bikotekidea zen.

Bestalde, familia barruko emakumeen aurkako indarkeria-kasuen % 80 emakumearen arbaso batek (aita, aitona) eragindakoa da eta beste % 20 ondorengo batek.

Sexu-indarkeriaren arloan, erregistratutako kasu guztien erdietan erasotzailea biktimak ezagutzen zuen gizona da.

| SEXU INDARKERIA         |      |
|-------------------------|------|
| Pertsona ezagunak       | 50,0 |
| Pertsona ezezagunak     | 0,0  |
| Beste harreman mota bat | 50,0 |
| Guztira                 | 100  |

Baliabide horietan artatutako kasu guztien ia % 33,3k 31 eta 40 urte bitartean ditu, eta % 24,2k 41 eta 50 urte artean. Gainera, 65 urtetik gorako emakumeak dira haietako % 9,1.

Indarkeria arloei erreparatuz gero, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktima berri gehienek 41 eta 50 urte artean dituzte (% 31,7). Familia barruko indarkeriaren biktimen kasuan, % 20 adin txikikoa da.

UDALEKO AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO BALIABIDEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK, INDARKERIAREN ARLOAREN ETA ADINAREN ARABERA 2023

| 2023                         | BIKOTEKIDEA EDO<br>BIKOTEKIDE OHIA | FAMILIA BARNEKOA | SEXUALA | GUZTIRA<br>Bizkaiko udalak |
|------------------------------|------------------------------------|------------------|---------|----------------------------|
| 14 urte baino gutxiagokoen % | 0,0                                | 0,0              | 25,0    | 0,0                        |
| 14-17 urtekoen %             | 2,4                                | 20,0             | 0,0     | 1,5                        |
| 18-20 urtekoen %             | 2,4                                | 0,0              | 50,0    | 3,0                        |
| 21-30 urtekoen %             | 17,1                               | 0,0              | 25,0    | 16,7                       |
| 31-40 urtekoen %             | 29,3                               | 20,0             | 0,0     | 33,3                       |
| 41-50 urtekoen %             | 31,7                               | 20,0             | 0,0     | 24,2                       |
| 51-64 urtekoen %             | 4,9                                | 40,0             | 0,0     | 12,1                       |
| 65 urte edo gehiagokoen %    | 12,2                               | 0,0              | 0,0     | 9,1                        |
| % Guztira                    | 10                                 | 100              | 100     | 100                        |

**Gutxienez artatutako 29 emakume berrik dituzte seme-alaba adingabeak beren kargu, hau da, % 23,2k. Orotara, 42 seme-alaba adingabe zenbatu dira eta horietatik erdiak baino gehiago neskak dira (% 52,9). Gainera, emakume horien kargura dauden adin nagusiko 5 seme-alaba ere zenbatu dira.**

| 2023                                                                                                            | Udalak<br>Araba | Udalak<br>Bizkaia | Udalak<br>Gipuzkoa | GUZTIRA<br>Bizkaiko udalak |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------|-------------------|--------------------|----------------------------|
| <b>Beren kargu seme-alaba adingabeak dituzten emakumeen kopurua</b>                                             | -               | 29                |                    | 29                         |
| Seme-alaba adingabeak beren kargu dituzten emakume berrien % kasu berrien guztizkoaren gainean                  | -               | 23,2              |                    | 23,2                       |
| <b>Artatutako emakume berrien kargura dauden seme-alaba adingabeen kopurua</b>                                  | -               | 42                |                    | 42                         |
| Alaba adingabeen %, artatutako emakume berrien kargura dauden seme-alaba adingabeen guztizko kopuruaren gainean | -               | 52,9              |                    | 52,9                       |

Emakumeen jatorriari dagokionez, datuek erakusten dute udaletako baliabide juridikoetan artatutako emakumeen % 63,6k jatorri espainiarra duela eta gainerako % 36,4 atzerritarra dela. Indarkeria motaren arabera, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren kasuan, atzerriko emakumeen ehunekoa batezbestekoarena baino altuagoa da (% 46,3).

UDALEKO AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO BALIABIDEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK, INDARKERIAREN ARLOAREN ETA JATORRIAREN ARABERA 2023

| 2023                           | BIKOTEKIDEA EDO<br>BIKOTEKIDE OHIA | FAMILIA BARNEKO | SEXUALA | GUZTIRA<br>Bizkaiko udalak |
|--------------------------------|------------------------------------|-----------------|---------|----------------------------|
| Nazionalitate espainiarraren % | 53,7                               | 80,0            | 75,0    | 63,6                       |
| Atzerriko nazionalitatearen %  | 46,3                               | 20,0            | 25,0    | 36,4                       |
| Guztira                        | 100                                | 100             | 100     | 100                        |

Emakume horien egoera administratiboari dagokionez, datuek erakusten dute baliabide horietan artatutako emakumeen % 80 egoera administratibo erregularrean dagoela eta % 20 irregularrean.

Administrazio-egoera irregularrean dauden emakumeak bakarrik identifikatu dira bikotekidearen edo bikotekide ohiarengandik arreta jaso duten emakumeen artean, hau da, artatutako emakume guztien % 20,7.

UDALEKO AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO BALIABIDEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK, INDARKERIA ARLOAREN ETA EGOERA ADMINISTRATIBOAREN ARABERA 2023

| 2023                          | BIKOTEKIDEA<br>EDO<br>BIKOTEKIDE<br>OHIA | FAMILIA<br>BARNEKO | SEXUALA | GUZTIRA<br>Udalak (Bizkaia) |
|-------------------------------|------------------------------------------|--------------------|---------|-----------------------------|
| Egoera erregularrean dauden % | 79,3                                     | -                  | 100     | 80,0                        |
| Egoera irregularrean dauden % | 20,7                                     | -                  | 0,0     | 20,0                        |
| Guztira                       | 100                                      | -                  | 100     | 100                         |

Azkenik, aipatu behar da **baliabide horietan artatutako 1 emakume berrik desgaitasun motaren bat dutela.**



**UDALAK (Bizkaia)**

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren egoerei arreta psikosoziala emateko zerbitzua

**BALIABIDEAREN DESKRIBAPENA**

Foru-aldundietako zerbitzuez gain, udal eta mankomunitate batzuek ere eskaintzen dituzte emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako arreta psikologikorako zerbitzuak.

Arreta juridikorako baliabideekin gertatzen den moduan, egun, Bizkaiko Lurralde Historikoko udal batzuek soilik eskaintzen dute emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako arreta psikologikoa. Kasu batzuetan, indarkeria mota horren biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa emateko berariazko baliabiderik ez izan arren, baliabide orokor batetik laguntza psikologikoa eskaini dieten biktimei buruzko datuak eman dituzte.

**BALIABIDEAREN INGURUKO DATU OROKORRAK**

Indarkeria matxistaren biktimen arreta psikologikorako baliabideen 2023ko gastuaren inguruko datuek diote **udalek gutxienez 525.363 € inbertitu dituztela baliabide horietan.**

| 2023                                                                     | Udalak Araba | Udalak Bizkaia  | Udalak Gipuzkoa | GUZTIRA Udalak     |
|--------------------------------------------------------------------------|--------------|-----------------|-----------------|--------------------|
| <b>BALIABIDEAREN GUZTIZKO GASTUA</b>                                     | -            | <b>525.363€</b> | -               | <b>525.363€</b>    |
| Baliabidearen mende dagoen sailaren edo departamentuaren guztizko gastua | -            | 13.733.826€     | -               | <b>13.733.826€</b> |
| Zerbitzuaren gastuaren proportzioa sail edo departamentuarekiko          | -            | % 3,8           | -               | <b>% 3,8</b>       |

Oharra: kontuan izan behar da, oro har, udalek ez dutela gasturik bideratu berariaz indarkeria matxistaren kasuen arretara. Hortaz, baliabideen gastuaren inguruko datuak informatzaileek egiten dituzten kalkuluak dira. Bi arrazoi horiek direla eta, datuak tentu handiz aztertu behar dira:

**19 profesionalek egiten dute lan Bizkaiko udaletako arreta psikologikorako baliabideetan.** Baliabide horietan lan egiten duten profesional guztiak emakumeak dira eta gehienek prestakuntza dute emakumeen aurkako indarkerian eta/edo berdintasunean (% 94,7).

| 2023                                                                                            | Udalak Araba | Udalak Bizkaia | Udalak Gipuzkoa | GUZTIRA Udalak |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------|----------------|-----------------|----------------|
| <b>BALIABIDEARI ATXIKITA DAUDEN LANGILEEN GUZTIZKO KOPURUA</b>                                  | -            | <b>19</b>      | -               | <b>19</b>      |
| Baliabidean dauden emakume profesionalen %                                                      | -            | 100            | -               | 100            |
| Emakumeen aurkako indarkerian eta/edo berdintasunean prestakuntza duten baliabideko langileen % | -            | 94,7           | -               | 94,7           |

Oharra: kontuan izan behar da, oro har, ez dagoela espezifikoki indarkeria matxistaren kasuen arretara bideratuta dagoen pertsonarik. Hortaz, taulan ageri diren kopuruak kontuz interpretatu behar dira eta bildu ahal izan dena kontuan hartuta.

## BIKTIMEN ARRETAREN INGURUKO DATUAK


2023an zehar, indarkeria matxistaren biktima izan diren **447** emakumek jo dute arreta psikologikorako zerbitzuetara Bizkaian, eta horietatik **135** (% 30,2) kasu berriak izan dira. Gainera, baliabide horiei esker, emakume horien **80** seme-alaba artatu dira, eta % 61,3 (49) kasu berriak izan dira.

Guztira **527** pertsona artatu dituzte EAEko udaletako baliabide psikologikoetan, eta % 34,9 (184) kasu berriak izan dira.

| 2023                                                                         | Udalak Araba | Udalak Bizkaia | Udalak Gipuzkoa | GUZTIRA Bizkaiko udalak |
|------------------------------------------------------------------------------|--------------|----------------|-----------------|-------------------------|
| ARTATUTAKO EMAKUME GUZTIAK                                                   | -            | 447            | -               | 447                     |
| <b>ARTATUTAKO EMAKUME BERRI GUZTIAK</b>                                      | -            | <b>135</b>     | -               | <b>135</b>              |
| Artatutako EMAKUME BERRIEN %, artatutako emakumeen guztizkoaren gainean      | -            | 30,2           | -               | 30,2                    |
| ARTATUTAKO SEME-ALABAK, GUZTIRA                                              | -            | 80             | -               | 80                      |
| <b>ARTATUTAKO SEME-ALABA BERRI GUZTIAK</b>                                   | -            | <b>49</b>      | -               | <b>49</b>               |
| Artatutako SEME ALABA BERRIEN %, artatutako seme-alaben guztizkoaren gainean | -            | 61,3           | -               | 61,3                    |
| ARTATUTAKO PERTSONAK, GUZTIRA                                                | -            | 527            | -               | 527                     |
| <b>ARTATUTAKO PERTSONA BERRI GUZTIAK</b>                                     | -            | <b>184</b>     | -               | <b>184</b>              |
| PERTSONA berrien % guztizkoaren gainean                                      | -            | 34,9           | -               | 34,9                    |

2023an baliabide horietan artatutako emakume berri guztien kopuruak behera egin du 2022arekin alderatuta; 259 izatetik 135 izatera (-% 26,955) pasatuz.

ARRETA PSIKOLOGIKORAKO FORU ZERBITZUETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIEN BILAKAERA. 2015-2023



Bestalde, nabarmendu beharrekoa da baliabide horietan artatutako seme-alaben kopurua igo egin dela; 2022an 72 izatetik 2023an 49 izatera igaro da.

**Baliabide horietara jotzen duten emakume gehienek bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik pairatu dute indarkeria (% 81,3).** Familia barruko indarkeriaren biktimak emakume horien guztien % 11,7 dira, eta sexu-indarkeriarenak, % 7.

ARRETA PSIKOLOGIKORAKO BALIABIDEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK, LURRALDEAREN ETA INDARKERIAREN ARLOAREN ARABERA. 2023

| 2023                                                  | Udalak Araba | Udalak Bizkaia | Udalak Gipuzkoa | GUZTIRA Bizkaiko udalak |
|-------------------------------------------------------|--------------|----------------|-----------------|-------------------------|
| Bikotekidearen edo bikotekide-ohiaren indarkeriaren % | -            | 81,3           | -               | 81,3                    |
| Familia barruko indarkeriaren %                       | -            | 11,7           | -               | 11,7                    |
| Sexu-indarkeriaren %                                  | -            | 7,0            | -               | 7,0                     |
| Beste indarkeria modu batzuen %                       | -            | 0,0            | -               | 0,0                     |
| Guztira                                               | -            | 100            | -               | 100                     |

Emakume horiek pairatu duten indarkeria mota nagusiari dagokionez, arreta psikologikorako baliabide horietan artatutako emakumeen % 64k indarkeria fisikoa jasan du batik bat eta % 36,0k indarkeria psikologikoa.

UDALETAKO ARRETA PSIKOLOGIKORAKO BALIABIDEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK, PAIRATU DUTEN INDARKERIA MOTA NAGUSIAREN ETA INDARKERIAREN ARLOAREN ARABERA. 2023

| 2023                                               | BIKOTEKIDEA EDO BIKOTEKIDE OHIA | FAMILIA BARNEKOAK | GUZTIRA Bizkaiko udalak |
|----------------------------------------------------|---------------------------------|-------------------|-------------------------|
| Nagusiki indarkeria fisikoa pairatu dutenen %      | 68,2                            | 33,3              | 64,0                    |
| Nagusiki indarkeria psikologikoa pairatu dutenen % | 31,8                            | 66,7              | 36,0                    |
| Nagusiki indarkeria ekonomikoa pairatu dutenen %   | 0,0                             | 0,0               | 0,0                     |
| Nagusiki sexu-indarkeria pairatu dutenen %         | 0,0                             | 0,0               | 0,0                     |
| Nagusiki beste indarkeriak pairatu dituztenen %    | 0,0                             | 0,0               | 0,0                     |
| Guztira                                            | 100                             | 100               | 100                     |

UDALEKO ARRETA PSIKOLOGIKORAKO BALIABIDEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK, ERASOTZAILEAREN ARABERA. 2023

Bikotearen arloan jasandako indarkeria-kasuen % 82,1ean erasotzailea bikotekide ohia izan da.

| BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE OHIAREN INDARKERIA                            | 2023 |
|-----------------------------------------------------------------------------|------|
| Ezkontidea /Izatezko bikotekidea /Bikotekidea/ Mutil-laguna                 | 17,9 |
| Ezkontide ohia/ Izatezko bikotekide ohia/ Bikotekide ohia/ Mutil-lagun ohia | 82,1 |
| Guztira                                                                     | 100  |
| FAMILIA BARRUKO INDARKERIA                                                  |      |
| Arbasoa (aita/aitona)                                                       | 71,4 |
| Ondorengoa (Semea/Biloba)                                                   | 28,6 |
| Beste senide batzuk                                                         | 0,0  |
| Guztira                                                                     | 100  |

Bestalde, familia barruko emakumeen aurkako indarkeria-kasuen % 71,4 biktimaren gizonezko arbaso batek (aita, aitona) eragindakoa da eta % 28,6 ondorengo gizonezko batek (semea, biloba).

Erregistratutako sexu-indarkeriaren kasuen % 33,3an erasotzailea biktimak ezagutzen zuen gizona izan da eta kasuen % 66,7an ezagutzen ez zuen gizona.

| SEXU INDARKERIA         |      |
|-------------------------|------|
| Pertsona ezagunak       | 33,3 |
| Pertsona ezezagunak     | 0,0  |
| Beste harreman mota bat | 66,7 |
| Guztira                 | 100  |

|-------------------------------------------------------------|-------------------------------|--------------------------------|-------------------------|----------------------|-----------------------|-------------------|----------------------------|
|                                                             | Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak | Ostatu-zerbitzua - Abegi-etxea | Aholkularitza juridikoa | Arreta psikologikoa. | UDALAK GUZTIRA        |                   |                            |
| <b>ZERBITZUAREN GASTU OSOA</b>                              | <b>4.131.349,00 €</b>         | <b>15.500,00 €</b>             | <b>84.413 €</b>         | <b>525.363€</b>      | <b>4.756.625,00 €</b> | <b>2.481.908€</b> | <b>-23,2</b>               |
| Baliabideari dagokion Sailaren/Departamentuaren gastu osoa. | 11.027.674,00 €               | 2.290.728,00 €                 | 13.733.826 €            | 13.733.826 €         | <b>40.786.054€</b>    | <b>-€</b>         |                            |
| Zerbitzuaren gastuaren % saileko guztizko gastuaren gainean | 37,5                          | 0,68                           | 0,6                     | 3,8                  | <b>2,1</b>            | -                 |                            |

Oharra: Gogoan izan behar da baliabidearen/zerbitzuaren gastuaren inguruko informazioa eskaini duten udalak oso gutxi izan direla. Gainera, kontuan izan behar da, oro har, udalek ez dutela gasturik bideratu berariaz indarkeria matxistaren kasuen arretara. Hortaz, baliabideen gastuaren inguruko datuak informatzaileek egiten dituzten kalkuluak dira. Bi arrazoi horiek direla eta, datuak tentu handiz aztertu behar dira:

2023an **297 plaza erregistratu dira udal-harrerako etxebizitzetan, 2022an baino gehiago, orduan 290 plaza zenbatu baitziren**. Plazen banaketa ez da lurralde bakoitzeko biztanleriarekiko proportzionala. Gipuzkoako udalek biztanleriaren % 33 hartzen dute, eta 151 plaza biltzen dituzte, hau da, erregistratutako plazen % 50,8. Aldiz, Bizkaiak, biztanleria-dentsitate handiena duen lurraldea denak, 104 plaza ditu, hau da, guztizkoaren % 35. Bestalde, 42 plaza ( % 14,1) Arabako udalei dagozkie.

Bestalde, **datuen arabera, plaza guztien % 54,9 (163) espezifikoak izango lirateke indarkeria matxistaren** biktimentzat.

Lurraldeka, Araban identifikatutako plaza guztiak kolektibo horretarako espezifikoak direla ikusi da. Bizkaian ere % 83,7 (87 plaza) espezifikoak dira, eta Gipuzkoan, berriz, % 22,5 (34 plaza espezifiko daude).

Kasu horietan guztietan, udalerriek kudeatutako plaza gehienak hiriburuetan biltzen dira. Gipuzkoan, bost udalerritan banatutako 151 plazatik 121 Donostian daude. Era berean, lurraldean udalek kudeatzen dituzten indarkeria-kasuetarako 34 plaza espezifikoetatik 28 Donostian daude.

Indarkeria matxistarako 87 plaza espezifikoetatik, ehuneko esanguratsu bat (53 plaza) Bilbon dago. Bestalde, Gasteizen, harrera-pisuen zerbitzuak zortzi etxebizitza dira, gehienez ere 37 plaza espezifikotarako ostatua eskaintzen dutenak indarkeria matxistaren biktimentzat.

| <b>2023</b>                                     | Arabako udalen abegi-etxeak | Bizkaiko udalen abegi-etxeak | Gipuzkoako udalen abegi-etxeak | Udal guztien abegi-etxeak | 2022ko Udal guztien abegi-etxeak | Desberdintasuna 2022- 2023 |
|-------------------------------------------------|-----------------------------|------------------------------|--------------------------------|---------------------------|----------------------------------|----------------------------|
| <b>PLAZA KOPURUA GUZTIRA</b>                    | 42                          | 104                          | 151                            | <b>297</b>                | 290                              | <b>+2,41</b>               |
| Indarkeriaren biktimentzako berariazko plazen % | 100                         | 83,7                         | 22,5                           | <b>54,9</b>               | 55,9                             |                            |

#### 4.4. ARRETA BALIABIDE GUZTIEN EZAUGARRI OROKORRAK

Kontsultatutako baliabide guztiak kontuan hartzen badira, **2023an 1.056 pertsona inguru ari ziren lanean indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko EAEko baliabideetan, hau da, % 25,12 gehiago.** Arretarako guztizko gastua 50 milioi eurotik gorakoa izango litzateke. Gainera, 448 plaza daude biktima horiei egoitza-arreta emateko.

2023ko datuen arabera, handitu egin da arreta-baliabideen guztizko gastua, bai eta baliabide horietan lan egiten duten profesionalen eta egoitza-plazen kopurua ere.

|                                                                | 2023         |              |                  |                | 2022         |              |                  |                | Desberdintasuna<br>2020-2021 |
|----------------------------------------------------------------|--------------|--------------|------------------|----------------|--------------|--------------|------------------|----------------|------------------------------|
|                                                                | Gustizkoa EJ | Gustizkoa FA | Gustizkoa udalak | Gustizkoa 2021 | Gustizkoa EJ | Gustizkoa FA | Gustizkoa udalak | Gustizkoa 2020 |                              |
| ZERBITZURA<br>ATXIKITA DAUDEN<br>LANGILEEN<br>GUZTIZKO KOPURUA | 307          | 375          | 374              | 1.056          | 233          | 280          | 331              | 844            | 25,12                        |
| ZERBITZUAREN<br>GASTU OSOA                                     | 31.826.675€  | 14.027.974€  | 4.756.625 €      | 50.611.274,7€  | 24.672.144€  | 10.059.824€  | 3.556.908€       | 38.288.877€    | 32,18                        |
| PLAZA KOPURUA<br>GUZTIRA                                       | -            | 151          | 297              | 448            | -            | 86           | 290              | 376            | 19,15                        |

## 5. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMEN ARRETAREN AZTERKETA: ARTATUTAKO KASUAK ETA EMAKUMEEN PROFILAK

### 5.1. EUSKO JAURLARITZAKO BALIABIDEEN ARRETAREN AZTERKETA

Baliabide bakoitzaren izaerak zehazten du hein handi batean artatutako kasu kopurua eta kasu mota, eta agerian uzten du aztertu ditugun baliabideen aniztasuna eta heterogeneotasuna.

Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak diren baliabideei dagokionez, ohikoa den moduan, Segurtasun Saileko baliabideek erregistratu dituzte kasu kopuru gehien. Horregatik, baliabide horrek emandako datuak erreferentzia kuantitatibo gisa hartu ohi dira arazo sozial horren tamaina neurtzeko orduan. 2023an, Ertzaintzak **indarkeria matxistaren 6.737 kasu erregistratu ditu. Horietatik 5.235 indarkeria matxistaren biktima berriak izan dira; hortaz, legez kontrako zigor-delitu baten biktima izan dira aurten<sup>8</sup>. 1.502 emakume horien seme-alabak izan dira.**

Kasu kopuru gehien artatu dituztenak hurrengo baliabideak dira: *Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Koordinazio Zentroa (EAIKZ)* eta *Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ)*. Bi baliabide horiek Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiken Saileko Justizia Sailburuordetzara daude atxikita. 2023an, *BLZ*k 2.642 espediente izapidetu zituen genero-indarkeriagatik eta sexu-askatasunaren aurkako indarkeriagatik. Bestalde, urte horretan bertan, *EAIKZ*ak urte horretan prozeduraren bat hasitako 2.045 emakume erregistratu zituen guztira –horien % 54,0 urte horretan zabalduetako prozedurak dira–.

Sail horretan bertan, eta Gizarte Politika Sailburuordetzarekin lotuta, *SATEVIk*, *Indarkeriaren biktima diren emakumei informazioa eta arreta eskaintzeko 24 orduko zerbitzuak*, emakume askori eskaini die arreta 2023an. Guztira, 1.442 emakume artatu ditu eta horietatik 1.162 (% 80,6) lehen aldiz izan dira zerbitzuan. Halaber, 385 emakumek jaso dute Ordainketa Bakarreko Prestazio Ekonomikoa. Baliabide hori ere Sailburuordetza horrek kudeatzen du.

Enplegu eta Lan Sailari dagokionez, esan behar da indarkeria matxistaren biktima izan ziren 1.613 emakumek jaso zutela 2023an *Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta* (% 25,9k lehen aldiz) eta 1.647k *Bitartekaritza Sozialalderako Programan* hartu dute parte; horietatik erdiek (824) lehen aldiz.

Gainera, 1.672 emakumek *Etxebideren Babes Ofizialeko Etxebizitzaren sustapenen baremazio gehigarria izan dute* (% 29,8k dirulaguntza hori lehen aldiz jaso dute) eta 53 emakume berriri *etxebizitza bat esleitu diote egoera larrian edo ezohikoan egoteagatik*.

Osasun Sailari dagokionez, 1.124 indarkeria matxista kasu erregistratu dira *Lehen arreta eta Etengabeko arretako guneetan* (EAG) eta 1.158 *Ospitaleko Larrialdietan*.

Azkenik, aipatu behar da 83 pertsonak izan dutela Hezkuntza Sailaren *genero-indarkeriaren biktimentzako eta haien seme-alabentzako unibertsitateko ikasketak ordaintzeko salbuespena*. Gainera, *jazarpen edo abusu sexualarekin eta/edo jazarpen sexistarekin lotutako 21 kasu erregistratu dira eta haien seme-alaben ikasketak espedienteak lekualdatzea 81 kasutan egin da*.

<sup>8</sup> Datu horiek emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazio estatistikoa jasotzen dute (Ertzaintzak bere jardun- eta eskumen-eremuan ezagututako indarkeria, dokumentu polizialean erregistratuta dagoena). Denbora-epe jakin batean legez kontrako egintza penala jasan duten emakumeak zenbatu dira biktima moduan. Gizonezkoek eragindako indarkeriari buruzko datuak dira (bikotekidea, bikotekide ohia, senideren bat edo beste gizon batzuek eragindakoa).

**Artatutako pertsonen zenbateko osoak adierazten du 2023an Eusko Jaurlaritzaren indarkeria matxistaren biktimentzako arreta-baliabide guztiek 14.801 kasu artatu zituztela indarkeria mota horrengatik. Datu hori 2023koa baino % 10,9 altuagoa da, urte horretan, baliabide horietan 13.329 arreta izan baitziren guztira.**

| 2023                                            | Arau-hauste<br>penalak eta biktime<br>diren emakumeen | BLZ          | Emakumearen<br>aurkako | Zurekin programa | SATEVI     | Ordainketa<br>bakarreko<br>laguntza | Babes Ofizialeko<br>Etxebizitzaren<br>promozioan | Etxebizitzak<br>zuzenean | Lehen arreta | Ospitaleko<br>larrialdiak | DSBE       | Bitartekaritza<br>Sozialabolerak<br>o Programa | Unibertsitateko<br>ikasketak | Eskolako  | Espedientea<br>helarazte | Guztira<br>EJ 2023 | Guztira<br>EJ 2022 | Desberdintasuna<br>2022-2023 |
|-------------------------------------------------|-------------------------------------------------------|--------------|------------------------|------------------|------------|-------------------------------------|--------------------------------------------------|--------------------------|--------------|---------------------------|------------|------------------------------------------------|------------------------------|-----------|--------------------------|--------------------|--------------------|------------------------------|
| ARTATUTAKO<br>EMAKUME GUZTIAK                   | -                                                     | -            | 2.045                  | 1.442            | -          | 1.672                               |                                                  |                          |              | 1.613                     | 1.647      |                                                |                              |           |                          |                    |                    |                              |
| <b>EMAKUME BERRIEN<br/>GUZTIZKOA</b>            | <b>5.235</b>                                          | <b>2.642</b> | <b>1.105</b>           | <b>1.162</b>     | <b>385</b> | <b>498</b>                          | <b>54</b>                                        | <b>1.124</b>             | <b>1.158</b> | <b>404</b>                | <b>824</b> | <b>83</b>                                      | <b>21</b>                    | <b>81</b> | <b>25</b>                | <b>14.801</b>      | <b>13.360</b>      | <b>10,7</b>                  |
| EMAKUME BERRIEN<br>% guztizkoaren<br>gainean    | -                                                     | -            | 54                     | 80,6             | -          | 29,8                                |                                                  |                          |              | 25,9                      | 50,0       |                                                |                              |           |                          |                    |                    |                              |
| ARTATUTAKO SEME-<br>ALABAK GUZTIRA              | -                                                     | -            | -                      | -                | -          | -                                   | -                                                | -                        | -            | -                         | -          | -                                              | -                            |           |                          | -                  | -                  |                              |
| <b>SEME-ALABA BERRI<br/>GUZTIAK</b>             | <b>1.502</b>                                          | -            | -                      | -                | -          | -                                   | -                                                | -                        | -            | -                         | -          | -                                              | -                            |           |                          | -                  | -                  |                              |
| SEME-ALABA<br>BERRIEN %<br>guztizkoaren gainean | -                                                     | -            | -                      | -                | -          | -                                   | -                                                | -                        | -            | -                         | -          | -                                              | -                            |           |                          | -                  | -                  |                              |
| ARTATUTAKO<br>PERTSONAK,<br>GUZTIRA             | -                                                     | -            | -                      | -                | -          | -                                   |                                                  | -                        | -            | -                         | -          | -                                              | -                            |           |                          | -                  | -                  |                              |
| <b>PERTSONA BERRI<br/>GUZTIAK</b>               | <b>6.737</b>                                          | <b>2.642</b> | <b>1.105</b>           | <b>1.162</b>     | <b>385</b> | <b>498</b>                          | <b>54</b>                                        | <b>1.124</b>             | <b>1.158</b> | <b>404</b>                | <b>404</b> | <b>83</b>                                      | <b>21</b>                    | <b>81</b> | <b>25</b>                | <b>15.966</b>      | <b>13.360</b>      | <b>6,79</b>                  |
| PERTSONA berrien %<br>guztizkoaren gainean      | -                                                     | -            | -                      | -                | -          | -                                   |                                                  |                          |              | 34,1                      | 48,7       |                                                |                              |           |                          |                    |                    |                              |

Indarkeriaren arloari dagokionez, Ertzaintzak –aipatu dugun moduan emakumeen aurkako indarkeria kuantifikatzerakoan erreferente nagusia izan ohi da EAEn– jasotako Segurtasun Sailaren datuek islatzen dute erregistratutako hamar kasutatik zazpi inguru (% 69,9) bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik jasandako indarkeria-kasuak direla; % 18,0 familia barruko indarkeria (bikotekidea edo bikotekide ohiak kenduta) eta % 12,1 familiakoa ez den gizon batek egindako sexu-indarkeria.

Aztertutako baliabide guztietan, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria da gehiengoa (are, baliabide batzuek definizioz indarkeria mota horren kasuak soilik artatzen dituzte). *SATEViren* kasuan, jasotako datuek erakusten dute baliabide horrek bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria jasan duten emakumeen deiak jasotzen dituela gehien bat (% 90,2); familia barruko indarkeria-kasuengatik egiten diren deiak (% 5,1) edo sexu-indarkeriagatik egiten direnak (% 4,7) intzidentzia-tasa horren oso azpitik daude (Ertzaintzaren datuen arabera).

*BLZrentzat* jasotako datuei dagokienez, aipatu behar da bikotekidearen edo bikotekide ohiaren arloan artatutako kasuen ehunekoa Ertzaintzak ezarritako intzidentzia (% 72,1) baino apur bat altuagoa dela, eta, aldiz, familia barruko indarkeriaren kasuan, erreferentzia hori baino askoz ere baxuagoa da (% 12,3).

Azkenik, 2023an, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) tramitazioaren barruan, % 86,9 bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria-kasuak dira, % 8,4 familia barruko indarkeriaren kasuak (bikotea edo bikotekidea kenduta) eta % 4,2 beste indarkeria mota batzuk.



## EJ-KO ARRETARAKO BALIABIDEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK, INDARKERIAREN ARLOAREN ARABERA 2023

| 2023                                                  | Arau-hauste penak eta biktime diren emakumeen segurtasun-eta babes-zerbitzuak | BLZ          | Emakumearen aurkako indarkeriaren koordinazio-zentroa | Zurekin programa | SATEVI     | Ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa | Babes Ofizialeko Etxebizitzaren promozioan baremazio | Etxebizitzak zuzenean esleitzea | Lehen arreta eta etengabeko arretarako guneak (EAG) | Ospitaleko larrialdiak | DSBE       | Bitartekaritza Sozialaboralerako Programa | Unibertsitateko ikasketak ordaintzetik salbuetsita egotea | Eskolako jazarpena | Espedientea helarazte | Guztira EJ 2023 | Guztira EJ 2022 |
|-------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------|--------------|-------------------------------------------------------|------------------|------------|------------------------------------------|------------------------------------------------------|---------------------------------|-----------------------------------------------------|------------------------|------------|-------------------------------------------|-----------------------------------------------------------|--------------------|-----------------------|-----------------|-----------------|
| <b>EMAKUME BERRIEN GUZTIZKOA</b>                      | <b>5.235</b>                                                                  | <b>2.642</b> | <b>1.105</b>                                          | <b>1.162</b>     | <b>385</b> | <b>498</b>                               | <b>54</b>                                            | <b>1.124</b>                    | <b>1.158</b>                                        | <b>404</b>             | <b>824</b> | <b>83</b>                                 | <b>21</b>                                                 | <b>81</b>          | <b>25</b>             | <b>14.801</b>   | <b>13.360</b>   |
| Bikotekidearen edo bikotekide-ohiaren indarkeriaren % | 69,9                                                                          | 65,8         | 100                                                   | 90,2             | 100        | 100                                      | 100                                                  | 100                             | 100                                                 | 86,9                   | 100        | -                                         | -                                                         | -                  |                       | <b>80,2</b>     | 82,2            |
| Familia barruko indarkeriaren %                       | 18,0                                                                          | 10,4         | 0,0                                                   | 5,1              | 0,0        | 0,0                                      | 0,0                                                  | 0,0                             | 0,0                                                 | 8,4                    | 0,0        | -                                         | -                                                         | -                  |                       | <b>11,0</b>     | 10,8            |
| Sexu-indarkeriaren %                                  | 12,1                                                                          | 14,0         | 0,0                                                   | 4,7              | 0,0        | 0,0                                      | 0,0                                                  | 0,0                             | 0,0                                                 | 0,5                    | 0,0        | -                                         | -                                                         | -                  |                       | <b>8,3</b>      | 6,6             |
| Beste indarkeria modu batzuen %                       | 0,0                                                                           | 9,8          | 0,0                                                   | 0,0              | 0,0        | 0,0                                      | 0,0                                                  | 0,0                             | 0,0                                                 | 4,2                    | 0,0        | -                                         | -                                                         | -                  |                       | <b>0,5</b>      | 0,4             |
| Guztira                                               | 100                                                                           | 100          | 100                                                   | 100              | 100        | 100                                      | 100                                                  | 100                             | 100                                                 | 100                    | 100        | -                                         | -                                                         | -                  |                       | <b>100</b>      | 100             |

Adinari erreparatuta, Ertzaintzak erregistratutako kasuen % 46,3an 31 eta 50 urte bitarteko emakumeak dira. Emakume gazteagoak, adingabeak, % 11,4 dira. Gainera, erregistratutako kasu guztien % 4,7 65 urtetik gorako emakumeak dira.

31 eta 50 urte arteko emakumeak dira; gehiengoa, kontuan hartu diren baliabide guztietan. Hain zuzen ere, izatez, intzidentzia-tasa da (Ertzaintzak erregistratutako datuen arabera). Hala, SATEVIn, erregistratutako kasuen erdia (% 50,1) emakume horiek. Adingabeak % 0,2 dira (Ertzaintzak markatutako intzidentzia-tasaren oso azpitik).

Era berean, ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa jaso duten ia hiru emakumetik bik (% 59,7) 31 eta 50 urte artean ditu. Aldiz, ez dago adingaberik, eta adinez nagusienak, 65 urtetik gorakoak, guztizkoaren % 1,8 dira.

Bestalde, lehen aldiz *Bitartekaritza Soziolaboralerako Programan* parte hartu dutenen % 60k 31 eta 50 urte artean ditu. Emakume gazteenen eta helduenen artean ez dago apenas kasurik.

Alokairu sozialeko etxebizitzaren esleipenean (arrunta) eta errentarekin lotutako kudeaketetan, gehienek (% 94,4) 21 eta 50 urte artean dituzte. Aldiz, *eskola jazarpenaren* kasuan, % 100 adingabeak dira.

## EJ-KO ARRETARAKO BALIABIDEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK, ADINAREN ARABERA 2023

| 2023                             | Arau-hauste penalak eta biktima diren emakumeen segurtasun- | BLZ          | Emakumearen aurkako indarkeriaren koordinazio-zentroa | Zurekin programa | SATEVI     | Ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa | Babes Ofizialeko Etxebizitzak | Etxebizitzak zuzenean esleitzea | Lehen arreta | Ospitaleko larrialdiak | DSBE       | Bitartekaritza Soziorabalerako Programa | Unibertsitateko ikasketak ordaintzetik salbuetsita egotea | Eskolako jazarpena | Espedientea helaraztea | Guztira EJ 2023 | Guztira EJ 2022 |
|----------------------------------|-------------------------------------------------------------|--------------|-------------------------------------------------------|------------------|------------|------------------------------------------|-------------------------------|---------------------------------|--------------|------------------------|------------|-----------------------------------------|-----------------------------------------------------------|--------------------|------------------------|-----------------|-----------------|
| <b>EMAKUME BERRIEN GUZTIZKOA</b> | <b>5.235</b>                                                | <b>2.642</b> | <b>1.105</b>                                          | <b>1.162</b>     | <b>385</b> | <b>498</b>                               | <b>54</b>                     | <b>1.124</b>                    | <b>1.158</b> | <b>404</b>             | <b>824</b> | <b>83</b>                               | <b>21</b>                                                 | <b>81</b>          | <b>25</b>              | <b>14.801</b>   | <b>13.360</b>   |
| 14 urte baino gutxiagokoen %     | 5,7                                                         | -            | -                                                     | 0,2              | 0,0        | 0,0                                      | 0,0                           | -                               | -            | -                      | 0,0        | -                                       | -                                                         | -                  |                        | <b>2,3</b>      | 3,0             |
| 14-17 urtekoen %                 | 5,7                                                         | -            | -                                                     | 0,0              | 0,0        | 0,0                                      | 0,0                           | -                               | -            | -                      | 0,2        | -                                       | -                                                         | -                  |                        | <b>3,9</b>      | 5,7             |
| 18-20 urtekoen %                 | 5,3                                                         | -            | -                                                     | 17,5             | 2,3        | 1,8                                      | 0,0                           | -                               | -            | -                      | 0,0        | -                                       | -                                                         | -                  |                        | <b>7,0</b>      | 4,5             |
| 21-30 urtekoen %                 | 21,2                                                        | -            | -                                                     | 0,0              | 29,4       | 31,9                                     | 27,8                          | -                               | -            | -                      | 30,8       | -                                       | -                                                         | -                  |                        | <b>22,8</b>     | 23,2            |
| 31-40 urtekoen %                 | 24,5                                                        | -            | -                                                     | 23,3             | 34,8       | 33,5                                     | 46,3                          | -                               | -            | -                      | 33,0       | -                                       | -                                                         | -                  |                        | <b>26,7</b>     | 25,5            |
| 41-50 urtekoen %                 | 21,8                                                        | -            | -                                                     | 26,7             | 24,9       | 23,1                                     | 20,4                          | -                               | -            | -                      | 26,9       | -                                       | -                                                         | -                  |                        | <b>20,6</b>     | 22,6            |
| 51-64 urtekoen %                 | 11,0                                                        | -            | -                                                     | 32,2             | 6,8        | 8,4                                      | 5,6                           | -                               | -            | -                      | 8,6        | -                                       | -                                                         | -                  |                        | <b>12,3</b>     | 10,0            |
| 65 urte edo gehiagokoen %        | 4,7                                                         | -            | -                                                     | 0,0              | 1,8        | 1,2                                      | 0,0                           | -                               | -            | -                      | 0,4        | -                                       | -                                                         | -                  |                        | <b>4,3</b>      | 5,5             |
| Guztira                          | 100                                                         | -            | -                                                     | 100              | 100        | 100                                      | 100                           | -                               | -            | 100                    | 100        | -                                       | 100                                                       | 100                |                        | <b>100</b>      | 100             |

*Oharra: Osasun Sailak adinaren arabera emandako datuak ez datoz bat txosten honetako adin-tarteekin. Horregatik, datuok baliabideen banakako azterketan sartu ditugu, eta ez dugu baliabideen azterketa konparatiborik egin.*

Emakumeen jatorriari dagokionez, *Ertzaintzaren* datuek adierazten dute artatutako emakumeen % 57,6k jatorri espainiarra duela eta % 42,4k atzerritarra.

*BLZn* (% 25,9) eta *SATEVIn* (% 27,5) artatutako atzerriko emakumeen kopurua askoz ere txikiagoa da *Ertzaintzak* erregistratutakoa baino.

Bestalde, atzerriko emakumeen proportzioa *Ertzaintzak* adierazitakoa baino askoz ere handiagoa da egoera larri eta ezohikoetarako etxebizitza zuzenean esleitzeko garaian (% 77,8) eta *EAIKZn* (% 47,3).

Baliabide guztietan, artatutako hamar emakumetik sei espainiarrak dira (% 62,8); aldiz, % 38,2 atzerritarrak dira.

## EJ-KO ARRETARAKO BALIABIDEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK, NAZIONALITATEAREN ARABERA 2023

| 2023                             | Arau-hauste penalak eta biktime diren emakumeen segurtasun- eta babes zerbitzuak | BLZ          | Emakumearen aurkako indarkeria | Zurekin programa | SATEVI     | Ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa | Babes Ofizialeko Etxebizitzaren promozioan | Etxebizitzak zuzenean esleitzea | Lehen arreta | Ospitaleko larrialdiak | DSBE       | Bitartekaritza Soziolaboralerako Programa | Unibertsitateko ikasketak ordaintzetik | Eskolako jazarpena | Espedientea helaraztea | Guztira EJ 2023 | Guztira EJ 2022 |
|----------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------|--------------|--------------------------------|------------------|------------|------------------------------------------|--------------------------------------------|---------------------------------|--------------|------------------------|------------|-------------------------------------------|----------------------------------------|--------------------|------------------------|-----------------|-----------------|
| <b>EMAKUME BERRIEN GUZTIZKOA</b> | <b>5.235</b>                                                                     | <b>2.642</b> | <b>1.105</b>                   | <b>1.162</b>     | <b>385</b> | <b>498</b>                               | <b>54</b>                                  | <b>1.124</b>                    | <b>1.158</b> | <b>404</b>             | <b>824</b> | <b>83</b>                                 | <b>21</b>                              | <b>81</b>          | <b>25</b>              | <b>14.801</b>   | <b>13.360</b>   |
| Nazionalitate espainiarraren %   | 57,6                                                                             | 74,1         | 52,7                           | 72,5             | 37,7       | 60,6                                     | 22,2                                       | -                               | -            | -                      | -          | -                                         | -                                      |                    |                        | 61,8            | 61,5            |
| Atzerriko nazionalitatearen %    | 42,4                                                                             | 25,9         | 47,3                           | 27,5             | 62,3       | 39,4                                     | 77,8                                       | -                               | -            | -                      | -          | -                                         | -                                      |                    |                        | 38,2            | 38,5            |
| Guztira                          | 100                                                                              | 100          | 100                            | 100              | 100        | 100                                      | 100                                        | -                               | -            | -                      | -          | -                                         | -                                      |                    |                        | 100             | 100             |

Oharra: Ertzaintzaren eta Bitartekaritza Soziolaboraleko Programaren datuek erreferentzia egiten diote jaioterriari, eta ez nazionalitateari.

Eusko Jaurlaritzako arretarako baliabideek artatu dituzten emakumeen egoera administratiboari dagokionez, emandako datuek erakusten dute baliabide horietan artatutako emakume gehienak egoera administratibo erregularrean daudela (% 96,3).

Baliabide motaren arabera, informazio hori ematen dutenen artean, *Ordainketa Bakarreko laguntza ekonomikoa* egoera irregularrean dauden emakumeak erregistratzen dituen bakarra da, eta artatutako emakume guztien % 9,1 ordezkatzeko ditu.

## EJ-KO ARRETARAKO BALIABIDEETAN ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK EGOERA ADMINISTRATIBOAREN ARABERA 2023

| 2023                             | Arau-hauste penalak eta biktima diren emakumeen segurtasun- eta babes-zerbitzuak (Ertzaintza) | BLZ          | Emakumearen aurkako indarkeriaren | Zurekin programa | SATEVI     | Ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa | Babes Ofizialeko Etxebizitzaren promozioan | Etxebizitzak zuzenean esleitzea | Lehen arreta | Ospitaleko larrialdiak | DSBE       | Bitartekaritza Soziorabalerako Programa | Unibertsitateko ikasketak ordaintzetik | Eskolako jazarpena | Espedientearen helaraztea | Guztira EJ 2023 | Guztira EJ 2022 |
|----------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------|--------------|-----------------------------------|------------------|------------|------------------------------------------|--------------------------------------------|---------------------------------|--------------|------------------------|------------|-----------------------------------------|----------------------------------------|--------------------|---------------------------|-----------------|-----------------|
| <b>EMAKUME BERRIEN GUZTIZKOA</b> | <b>5.235</b>                                                                                  | <b>2.642</b> | <b>1.105</b>                      | <b>1.162</b>     | <b>385</b> | <b>498</b>                               | <b>54</b>                                  | <b>1.124</b>                    | <b>1.158</b> | <b>404</b>             | <b>824</b> | <b>83</b>                               | <b>21</b>                              | <b>81</b>          | <b>25</b>                 | <b>14.801</b>   | <b>13.360</b>   |
| Egoera erregularrean dauden %    | -                                                                                             | -            | -                                 | -                | 90,9       | 100                                      | 100                                        | -                               | -            | -                      | -          | -                                       | -                                      |                    |                           | 96,3            | 100             |
| Egoera irregularrean dauden %    | -                                                                                             | -            | -                                 | -                | 9,1        | 0,0                                      | 0,0                                        | -                               | -            | -                      | -          | -                                       | -                                      |                    |                           | 3,7             | 0,0             |
| Guztira                          | -                                                                                             | -            | -                                 | -                | 100        | 100                                      | 100                                        | -                               | -            | -                      | -          | -                                       | -                                      |                    |                           | 100             | 100             |

## 5.2. FORU ALDUNDIETAKO BALIABIDEEN ARRETAREN AZTERKETA

Eusko Jaurlaritzako baliabideekin gertatzen den moduan, foru aldundien kasuan, baliabide desberdinen izaerak zehazten du hein handi batean artatutako kasuen kopurua eta kasu mota.

Oro har, *indarkeria matxistaren egoerei laguntza psikosoziala emateko zerbitzuak* dira, zalantzarik gabe, emakume gehien artatu dituzten baliabideak. 2023an, 3.729 emakumek jo dute zerbitzu horietara, eta horietatik erdiak (1.909) kasu berriak izan dira.

2023an arreta psikologikoa jaso duten emakumeen % 38,2k Bizkaian jaso du (881), % 28,6k Araban (661) eta % 33,2k Gipuzkoan (766). Deigarria da baliabide horretan artatu diren hiru emakumetik bat inguru Araban artatu dutela, eta bertan Euskadiko emakume guztien % 14 soilik bizi da. Kontrara, Bizkaian kasuen ia % 38,2 artatu dute eta lurralde horretan EAEko emakumeen % 52 bizi da. Alde horietatik, komeni da argitzea artatutako emakumeen eta biztanleen arteko aldea lurraldeetan baliabideetara heltzeko dauden bide desberdinen ondorioa dela<sup>9</sup>.

Gainera, zerbitzu horietatik emakume horien 1.073 seme-alaba artatu dira 2023an, eta horietatik 505 kasu berriak ziren ( % 47,1). Hala eta guztiz ere, 4.802 emakumek jo dute laguntza psikologikoko zerbitzuetara; horietatik erdiak (2.414) kasu berriak ziren.

Bestalde, *indarkeria matxistaren egoerei laguntza soziojuridikoa emateko zerbitzuak* 376 emakumeri lagundu die; horietatik 267 kasu berriak ziren (% 70,3). Emakume horien erdia baino gehiago (% 35,6, 134 kasu) Bizkaiko baliabideetan artatu dute; % 32,7 (123 kasu) Gipuzkoan, eta % 31,7 (119 kasu) Araban.

Bestalde, 2023an jasotako datuen arabera, 311 emakume berri artatu dituzte *berehalako harrera* egiteko foru-baliabideetan. Artatutako emakumeen % 55,3 (172 kasu) Bizkaiko baliabideetan artatu dituzte, % 22,5 (70 kasu) Gipuzkoan eta % 22,2 (69 kasu) Araban.

Gainera, 89 emakumek jo dute *egonaldi ertain eta luzeko egoitza-zentroetara* 2023an; horietatik ia erdia kasu berriak izan dira (48). Gainera, emakumeen 79 seme-alaba ere artatu dituzte baliabide horietan (59 kasu berri, hau da, % 47,3). Hala, 72 pertsona artatu dituzte guztira aldundietako egoitza-zentroetan, eta % 52,8 kasu berriak izan dira (38).

Oro har, **2023an indarkeria matxistaren biktimentzako arretarako foru-baliabideek 6.artatu dituzte, eta horietatik 3.604 kasu berriak ziren ( % 55,6)**. Datu horiek 2022an jasotakoak baino handiagoak dira. Urte horretan, baliabide horietan 3.170 kasu berri artatu ziren.

<sup>9</sup>Bizkaian eta Araban, emakumeek hitzordu psikologikoa izan dezakete zuzenean foru-aldundiko baliabidean; Gipuzkoan, aldiz, gizarte-langileen bitartez bideratzen da.



| 2023                                       | ARABAKO FORU ALDUNDIA |                     |                         |                     |                                 |               | BIZKAIKO FORU ALDUNDIA |                     |                         |                     |                                 |                                       |               | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA |                     |                         |                     |                                 |               |                                         |               | FORU ALDUNDIAK, GUZTIRA |                     |                         |                     |                                 |                                         |              |       | Guztizkoa FA 2022 | Desberdintasuna 2022-2023 |
|--------------------------------------------|-----------------------|---------------------|-------------------------|---------------------|---------------------------------|---------------|------------------------|---------------------|-------------------------|---------------------|---------------------------------|---------------------------------------|---------------|--------------------------|---------------------|-------------------------|---------------------|---------------------------------|---------------|-----------------------------------------|---------------|-------------------------|---------------------|-------------------------|---------------------|---------------------------------|-----------------------------------------|--------------|-------|-------------------|---------------------------|
|                                            | Berehalako harrera    | Egoitza-baliabideak | Aholkularitza juridikoa | Arreta psikologikoa | Hezkuntzako arreta psikosoziala | Guztizkoa AFA | Berehalako harrera     | Egoitza-baliabideak | Aholkularitza juridikoa | Arreta psikologikoa | Hezkuntzako arreta psikosoziala | Beste batzuk: Indarkeriaren familiako | Guztizkoa BFA | Berehalako harrera       | Egoitza-baliabideak | Aholkularitza juridikoa | Arreta psikologikoa | Hezkuntzako arreta psikosoziala | Besteak SFCUS | Beste batzuk: SFUSS eta Egoitza Zentroa | Guztizkoa GFA | Berehalako harrera      | Egoitza-baliabideak | Aholkularitza juridikoa | Arreta psikologikoa | Hezkuntzako arreta psikosoziala | Especializatutako beste programa batzuk | Guztizkoa FA |       |                   |                           |
| ARTATUTAKO EMAKUME GUZTIAK                 | 69                    | 22                  | 34                      | 1.412               | 27                              | 1.564         | 172                    | 30                  | 146                     | 1.318               | 156                             | 46                                    | 1.868         | 70                       | 37                  | 196                     | 999                 | 0                               | 0             | 25                                      | 1.327         | 311                     | 89                  | 376                     | 3.729               | 183                             | 71                                      | 4.759        | 4.686 |                   |                           |
| EMAKUME BERRIEN GUZTIZKOA                  | 62                    | 13                  | 10                      | 661                 | 10                              | 756           | 157                    | 9                   | 134                     | 783                 | 58                              | 21                                    | 1.162         | 60                       | 26                  | 123                     | 465                 | 79                              | 192           | 18                                      | 963           | 279                     | 48                  | 267                     | 1.909               | 147                             | 231                                     | 2.881        | 2.714 | + 6,15            |                           |
| EMAKUME BERRIEN %, guztizkoaren gainean    | 89,9                  | 59,1                | 29,4                    | 46,8                | 37,0                            | 48,3          | 91,3                   | 30,0                | 91,8                    | 59,4                | 37,2                            | 45,7                                  | 62,2          | 85,7                     | 70,3                | 62,8                    | 46,5                | -                               | -             | 72,0                                    | 72,6          | 89,7                    | 53,9                | 71,0                    | 51,2                | 80,3                            | -                                       | 60,5         | 55,4  |                   |                           |
| ARTATUTAKO SEME-ALABAK, GUZTIRA            | 67                    | 26                  | 4                       | 193                 | 28                              | 318           | 119                    | 21                  | -                       | 123                 | 141                             | 70                                    | 474           | 40                       | 25                  | -                       | 757                 | -                               | 75            | 7                                       | 904           | 226                     | 72                  | 4                       | 1073                | 169                             | 152                                     | 2.007        | 797   |                   |                           |
